

Batzar Nagusia
Asamblea General



2004



TXOSTEN POLITIKOA

–

*“Abertzaleon erronkak XXI. mendeko
lehenengo hamarkadan”*

TXOSTEN POLITIKOA

“Abertzaleon erronkak XXI. mendeko lehenengo hamarkadan”

	<i>Or.</i>
0.- SARRERA: "AZKEN GODOA"	1
1.- IRAGAN HURBILA: EGOERA POLITIKOAREN BILAKAERA 1998tik	4
1.1.- SU-ETENAREN ETA LIZARRAKO ADIERAZPENAREN IRAKURKERA KRITIKOA	4
1.1.1.- ETA eta EHNAM	5
1.1.2.- Espainiako gobernua, PP eta PSOE.....	5
1.1.3.- Lizarrako Foroko kideak.....	6
1.2.- SU-ETENA APURTU ETA LAU URTE GEROAGO.....	7
1.2.1.- Lizarraren osteko eszenatoki politikoa.....	7
1.2.2.- Azken lau urteotako gertaera nagusiak, gizarte-pronuntziamenduak eta gidaritza politikoa.....	8
2.- ORAINA: EUSKAL HERRIKO GIZARTEA BLOKEATZEN DUTEN FAKTORE NAGUSIAK	9
2.1.- INDARKERIA, MEHATXUA ETA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA.....	9
2.2.- GATAZKA POLITIKOAREN BLOKEOA.....	9
2.3.- ATZERAKADA DEMOKRATIKOA	10
3.- ETORKIZUNA: ABERTZALEON ERRONKAK XXI. MENDEKO LEHENENGO HAMARKADAN. EAJ-PNVren KONPROMISOAK	12
3.1.- BAKE PROZESU BAT GARATU.....	12
3.2.- EUSKAL HERRIKO GATAZKA POLITIKOA ELKARRIZKETAREN BITARTEZ KONPONDU	13
3.3.- ESKUBIDE, BETEBEHAR, ASKATASUN, BERME ETA PRINTZIPIO DEMOKRATIKOAK DEFENDATU ETA BERREZARRI	14
3.4.- ABERTZALEON PROIEKTU POLITIKOAN AURRERA EGIN	14
3.4.1.- Sarrera: oinarrizko kontzeptuak eta datuak.....	14
3.4.2.- Oinarri eta printzipio ideologikoak (2000ko Txosten Politikoa)	18
3.4.3.- Helburua: estrategia nazionalaren zehaztapena	19
3.4.4.- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik	20

	<u>Or.</u>
3.4.5.- Nafarroatik	24
3.4.6.- Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoatik	30
3.4.7.- Alderdien Batzorderako proiektua.....	36
3.4.8.- Udalbiltza	38
3.5.- EUOPAR BATASUNA	40
3.5.1.- Aurrekariak.....	40
3.5.2.- Konstituzio Proiektua	41
3.5.3.- Konbentzioari egindako proposamenak	42
3.5.4.- Konstituzio Proiektuaren alde onak.....	43
3.5.5.- Konstituzio Proiektuaren alde txarrak.....	43
3.5.6.- Ondorioak	44
3.6.- NAZIOA, GIZARTEA ETA KULTURA ERAIKI	45
3.6.1.- Integrazioa eta aurrerakuntza soziala.....	45
3.6.2.- Euskara, Euskal Herriaren identitate nazionalaren ardatza	51
ERANSKINA	56
"KONSTITUZIONALITASUN BERRIA ETA URRITASUN DEMOKRATIKOA (ESPAINIAKO 1978ko KONSTITUZIOAK 25 URTE)"	57
1.- Konstituzioaren aldarrikapena, askatasunerako bermetzat	57
2.- Konstituzionaltasunaren esangura historikoa eta Espainiako tradizio konstituzionala	58
3.- Konstituzioaren eta errealitate politikoaren arteko lotura	59
4.- Konstituzionaltasuna itxuragabetu eta Konstituzioa agintearen tresnatzat erabili.....	61

0.- SARRERA: AZKEN GODOA

Espainiako II. Errepublikaren azken aldian, oraingo euskal gizarteak ondo ezagutzen ez duen eztabaida egon zen Parlamentuan.

Diputatuen Kongresuan (Parlamentuko orduko ganbara bakarra), EAJ-PNVko diputatuek eztabaida gogorra izan zuten José Calvo Sotelorekin, Espainiako eskuin mutur nazionalistako ordezkariarekin. **Calvo Soletok legez kanpo utzi nahi zuen Euzko Alderdi Jeltzalea.**

Horren aurkakorik sutsuena Manuel de Irujo izan zen.

Hitzaldi luze eta sutsu batean, Manuel jaunak Cánovas del Castillo aipatu zuen, hauxe esanez : **“ospe handia lortu zuen aulki urdinean, geure foruen mozketaren garaian, eta halakoak esaten zituen, lasaitasunarekin idazten zuenean”.**

“Egoera oso triste hau, zioen Cánovasek, eta gaur egun euskal probintziek dutena ez dira amaituko, **harik eta Espainian politika guztiz desberdina egin ahal izan arte: askatasuneko eta adiskidetasuneko politika, euskaldunen sinesmenak errespetatzen dituen. Halako politika bat onartezina izanez gero, bai euskal probintzietarako eta bai Espainia osorako, justifikaturik egongo litzateke ‘Infernua’ lanaren autorearen esakune goibel hau (Lasciate ogni speranza...)**”

Manuel jaunak hauxe esan zuen gero: **“amaitzeko, Calvo Sotelo jaunari esan nahi diot nire herriko errepublikar batentzat, euskaldun batentzat, batez ere nafar batentzat, ohorerik handiena, osperik handiena eta pozik handiena berorrek aurka egitea dela.** Errege godoek, batek bestearen atzetik, ‘domuit vascones’ deritzona idatzi zutenetik, agintetik igaro den eta Espainiako politika idatzi duten gizonen artean, Euskal Herriarekin ausartu den bakarra berori da (Calvo Sotelo), ‘Mis servicios al Estado’ liburuan hauxe esaten baitu: **‘Nafarroa garaitu nuen, garaitu eta menperatu egin nuen, baina ez arrautzarengatik, pezetengatik; foruagatik jardun nuen, esangura juridikoarengatik, eta Nafarroako foruen esangura eraitsi nuen, horrek kupoa aldaezina zela baitzioen, eta Estatuari foruen eraiste hori pozik eskaintzen diot’”.**

Eta Manuel jaunak, azkenik, hauxe esan zuen sutsu: **“euskaldun batentzat ohorerik handiena, osperik handiena, azken godoa bere aurka edukitzea da”.**

Franco buruzagiak, eztabaida hori egin eta hilabete gutxi batzuk geroago, legez kanpo utzi zuen EAJ-PNV, gainerako alderdi demokratikoekin batera, eta gainera, EAJ-PNVren pertsonak eta ondasunak bereganatu zituen.

Baina demokrazian, beste inoiz ere eskatu izan da EAJ-PNV legez kanpo uzteko. 1918an, EAJ-PNVko diputatuak Madrileko kongresura joan ziren lehenengoz. Abertzaleek eta nazionalista katalanek eraso gogorak jasan zituzten, batez ere Iruñeko Victor Pradera tradizionalistaren eta Gregorio de Balparda santandertar-bilbotarraren aldetik. Horiak ziotenez, **“aberria Espainia dela ez dioena ezin daiteke Parlamentuan eseri”;** **“ez da nahiko hiritar espainola dela adieraztea”;** **“Espainia aberrizat duena eta aberri bakartzat Espainia duena”** soilik eseriko da aulkian”.

Orduan ere, Miguel Primo de Riveraren diktadurak alderdi politikoen jarduerarekin amaitu zuen, besteak beste, EAJ-PNVren jarduerarekin. Primo de Riverak “aginte legegilea nahiz betearazlea elkartu eta etengabeko esku-hartzea izan zuen aginte judizialean”.

Baina Cánovas del Castillo, Calvo Sotelo, Primo de Rivera, Berenguer edo Franco ez ziren azken godoak izan. Trantsiziotik 25 urte igaro ondoren, horien ondorengoa eta euren adierazpen historikorik gogorrenaren (Mugimendu Nazionala) ondorengoa den alderdi batek abertzaleok egindako bidea eten eta atzerako pausoak eman nahi ditu, planteamendu nazionalista espainolak eta kontserbadoreak erakutsita.

Gobernua baino gehiago “Agintea” eratzen ari da, “Erregimenean” bezala. Espainiako parlamentuko bi ganbaretan gehiengo osoa lortu duenetik, aginte-eremuak bereganatzen joan da, ezein alderdi edo gobernu demokratikori ez dagozkion eremuetan, ekonomian, komunikabideetan edo epaitegietan, eta demokrazia modu larrian perbertitu eta faltsutu du.

2000ko urtarrileko Batzar Nagusiko adierazpen politikoan ere hauxe esan genuen: “Aipagarria da, armen bidea aukeratu eta justifikatu dutenek bide politikoekiko konpromisoa ahalbidetzeko ahalegina egiten dugun unean (su-etenaren garaia), abertzale guztiok lintxamendu politiko eta mediatiko orokorra jasatea”.

10 urte luze eta zailtan, alderdi abertzalerik edo Euskadin finkatutako alderdirik gehienek irizpide bera mantendu genuen politikagintzan, biolentziaren gaiari zegokionez: Ajuria-Eneko ituna izan zen.

Bertako 8. puntuan hauxe esaten da: “Dei egin nahi diegu ordezkariak parlamentarioa eduki baina horren berezko eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko ez dituztenei, gainerako alderdi politiko guztiok bezala erantzukizun instituzionalak bereganatzeko eta, horietan oinarrituz, euren planteamendu politikoak defendatzeko”.

HB erakundeetan parte hartzen hasi zenean eta, batez ere, HBk Ibarretxe lehendakariaren gobernuko ekintza bultzatzeko aukera ikusi zenean, Aznarrek Zuzenbide Estatuaren ulermen berezia erakutsi eta abertzaleon aurka jo zuen, hauteskunde-ekintza oso bortitzean, EAJ-PNV Eusko Jaurlaritzatik kentzeko. Lortu ezin izan zuenez, abertzale erradikalak legez kanpo utzi eta abertzaletasunaren barruko bi adarren arteko ekintza politiko bateratua ekiditeko ahalegina egin zuen, ekintza bateratu horrek Legebiltzarreko eta bertoko erakunde gehienetako gehiengo osoa ekarriko zuelako.

Horrela, Ajuria-Eneko irizpideak apurtu eta, abertzaleok erakunde guztietan sartu zirenean, baztertu egin zituen, PSOEko Rodríguez Zapateroren otzantasun sinestezinarekin.

Horretarako, legalitate berria sortu zuen, Espainiako estatuko erakunde guztien laguntzarekin, Giza Eskubideak urratuz, Euskal Herriko gatazka politikoa blokeatuz eta atzerakada demokratikoan sartuz; hain zuzen ere, patriotismo konstituzionala aldarrikatu, Konstituzioa itxuragabetu eta berori aginte alderdikorako tresnatzat erabili zuen; aldi berean, Zuzenbide Estatuaren kontzeptu desitxuratua garatu zuen, agiri honen eranskinean zorrotasun tekniko egokiarekin azaltzen denez.

Lehenegok bezala, oraingo gobernuak ere geure izate politikoa gogor erasotzeari ekin dio. Politika errepikaria erabiliz, Madrilek soka askatu, promesak egin eta irribarrea erakusten du estu dagoenean; baina soka bildu, kendu eta agindutakoa apurtu egiten du, indartsu dagoenean.

Pujol presidenteak, orainsu, Aznarrek nazionalismo periferikoekin duen politika adierazteko, Calvo Sotelo edo Cánovas del Castillo baino atzerago jo zuen, eta Felipe IV.a

erregearen erabateko balidoa izandako Olivares konde-dukea zeritzona aipatu zuen, horrek Espainiaren handitasuna berrezartzeko plana eskaini baitzuen.

Espainiak European protagonismoa galdu zuen une historikoan (protagonismo hori Richelieuren Frantziak kenduta), Herbehereei independentzia eman behar izan zien, hondamen politikoa eta ekonomikoa eragin zuen 30 urteko gerraren ostean, eta horrela, Espainia Indietako errearen menpe gelditu zen; orduan, Konde-Dukeak, bere memorialean, Koroako erresuma eta lur guztiak Gaztelako legeetara lotzeko proposamena egin zuen, era guztietako “bereizkeriak” ezabatuz. Formula horren bitartez, Koroak beharrezko indarra berreskuratuko zuen, Espainiak galdutako posizio nagusia berreskuratuzko .

Aznarrek sustatzen duen politika horixe da, Kataluniako presidentearen iritziz; horren arabera, hamar urte inguruan, autonomiekin amaituko du.

Horren guztiaren eraginez, geure Autonomia Estatutuak, berez garapen-gaitasun handikoa izan arren, ez dauka garatzeko aukerarik eta, inolako segurtasun juridikorik gabe, “azken godoaren” amets eroen menpe gelditu da (Espainiaren batasunari eta nazioarteko presentziari lotutako ametsak).

Euskaldunok Estatuan lortu beharreko “status berriaren” proiektua, bestalde, ikuspegi horretatik aztertu behar da. Status berria diogu, indarrekoak tratu txarra jasan duelako, eraginkortasunik eta etorkizunik gabe gelditu baita. Gainera, status berri hori ez da transferentzietara mugatuko, lerrun eta segurtasun juridikoa izango baitu. Eta Aznarren nahiz horren osteko PPk eta oraingo PSOE baldintzatuak onartzen ez badute, Euskadiko eraikuntza nazionalerako sortu zen EAJ-PNVk ez du inondik inora ere onartuko (Alderdiaren izateari uko egin barik) atzerakada autonomikoarekin eta demokratikoarekin lotutako egoera hori.

Estatuaren mehatxua daukagu aurrean, Estatuko aginte guztiekin (baita judiziala ere); eta horrek “Estatuaren gai nagusitzat” izendatu du arazoa, ez bakarrik HBrena, abertzale guztion baizik. Mehatxua, beraz, politikara, ekonomiara eta kulturara nahiz hizkuntzara iritsi da.

Baina godoak joan dira eta euskaldunok bertan gaude oraindik. Horrelaxe izan da orain arte. Eta geure herriaren historia luzean eta gogorrean beste batzuek egin badute, geuk ere gogor egingo diogu “azken godoari”.

1.- IRAGAN HURBILA: EGOERA POLITIKOAREN BILAKAERA 1998tik

Ibarretxe lehendakariaren Proposamena ez da Lehendakaritzak Euskadikoa bezalako egoera zailari eta “gordiarriari” irtenbidea aurkitzeko egin den lehenengo ahalegin serioa.

Era berean, “Lizarra” ulertzeko, beharrezkoa da Ardanza lehendakariaren ahaleginak aintzat hartzea; izan ere, kargua utzi baino apur bat lehenago, esfortzu handia egin zuen Ajuria-Eneko itun zaharkituari eta geldituari irtenbidea emateko.

2000ko Batzar Nagusian onetsitako txosten politikoan, ekimen hori gogoratu eta laburbildu genuen.

Ardanza lehendakariak berak landu zuen bere proposamena. Berak eraman eta irakurri egin zuen; lehenengo eta behin, Mahaiko kideei, eta gero, Aznarri, garai hartan Barne Ministroa izandako Mayor Orejaren aurrean. Proposamena eman eta PSOEko Idazkari Nagusiarekin eta Izquierda Unidako Koordinatzaile Nagusiarekin komentatu zuen. Azken hori izan zen, hala ere, proposamena aintzat hartu zuen bakarra.

Ardanza lehendakariak 1997aren amaieratik 1998ko udaberriaren hasierara arte landutako baketze-bide hau, bestalde, Ajuria-Enean 1998ko matxoaren 17an egindako bilkuran heldu zen goreneko unera. EAJ-PNV, EA eta EBko ordezkariak onartu eta PP, PSE-PSOE zein UAko ordezkariak ukatu egin zuten.

Madriren inolako alternatibarik aurkeztu gabe ukatu ondoren, Ajuria-Eneko mahaia hilda gelditu zen, 10 urteko lana egin ondoren. EAJ-PNV, EA eta EB alderdiek arazoa konpontzeko beste bide bati hasiera eman eta, horrela, “Lizarrako Adierazpena” iritsi zen, gaur egunera arte PPren eta, horrenbestez, PSOEren “piztia beltza” den adierazpena.

1.1.- SU-ETENAREN ETA LIZARRAKO ADIERAZPENAREN IRAKURKERA KRITIKOA

Lizarrako Adierazpena sinatuta eta ETAk 1998ko irailean su-etena eginda, aukera historikoa sortu zen geure herrian, Euskal Herriko gatazka politikoa Irlandako bake prozesuaren antzeko parametroetan jartzeko. Hala eta guztiz ere, itxaropena horrek 18 hilabetetan soilik iraun zuen bizirik. ETak su-etenen amaiera jakinarazi (1999ko azaroan) eta su-etenen osteko lehenengo atentatu hilgarria egin zuen, 2000ko urtarrilean. Gaur egun, oraindik ere egin gabe dago aldi horretan gertatutakoari eta batzuek nahiz besteek izandako eginkizunari buruzko azterketa zorrotza, kritikoa eta autokritikoa. Izan ere, denon arteko azterketa beharrezkoa da, demagogiarik gabeko azterketa, orduko akats berberak ez errepikatzeko, baldin eta bakerako aukera berririk sortzen bada. Su-etena, Lizarrako Adierazpena eta bertako Foroaren kudeaketa inflexioko gunea eta alferrik galdutako aukera izan ziren; aukera hori galtzea eragin zuten faktoreak hiru erantzukizun-multzotan banatzeko modukoak dira: lehenengo eta behin, ETari eta EHNAM deritzonari dagokiona; gero Espainiako gobernuari, PPri eta PSOEri dagokiena, eta azkenik, Lizarrako Foroko Batzorde Iraunkorreko alderdi eta erakundeoi dagokiguna.

1.1.1.- ETA eta EHNAM

Lizarrako Adierazpenaren eta eraikitzen ari ziren erabaki- nahiz aldaketa-prozesuen aukerak ezeztatu zituen faktore nagusia, erabakigarria eta atzeraezina, izatez ere, ETAk su-etena apurtzeko hartutako erabakia izan zen. Jatorrian, arazoa ETAk prozesuaren ebaluatzailetzat bere buruari eratzkitzen dion eginkizunean kokatzen da; izan ere, ekintza politikoa ikuskapen militarren menpe jarri eta HB/EH/Batasunaren gidaritza politikorako aukera guztiak desegin zituen. Etorkizunean antzeko prozesurik sortuz gero, erabaki-eremu zibil eta politiko soila bermatu behar da.

ETAren jokabideak, jarduerak edo ekintzen logika ez dira ulergarriak, indarkeriarekin lotuta jarduten ez dutenez. Atentaturik gabe, zoritxarrez Kale Borrokako episodioak egon arren, argi gelditu zen herri honek, ezta “ezker abertzalea” izenarekin ezagutzen denaren barruko gehiengoak ere, ez duela logika hori ulertzen eta logika horren aurka dagoela. ETA bezalako talde bat herri baten beso armatutzat eratzen denean, herri horrek nahi eta eskatu barik, ageri-agerian gelditzen da ETA lekuz kanpo dagoela, askatu nahi omen duen herriaren testuinguruan.

ETAk su-etena apurtzearen ondorioz, hilketa izugarriak egin eta euskal gizarte osoa mehatxupean gelditu da; horrek, gainera, geure gizarteak bere arazoak konpontzeko duen gaitasunarekiko mesprezua utzi du agerian, eta abertzale guztion arteko lankidetzaren politikoa oztopatu du.

Su-etena apurtzearen beste ondorio zuzenatariko bat, bestalde, bake-prozesuaren aurkako jarrerarik gogorrena izan duten alderdiak eta arduradun politikoak indartzea izan da; horiek oso erasokorrak dira abertzaleekin eta geure gizartearen nortasuna egituratzen duten ikurrekin. Izan ere, abertzaletasunari ideologiatzat ospe txarra eman eta berorri etikaren aldetik legitimitatea kendu nahi izan diote.

ETAk (ekintza bakartiko eta alde bakarreko ETA) su-etena apurtu eta jendea hil zuen berriro; horrela, bide politikoak eta demokratikoak soilik erabiltzeko konpromiso publikoa hartuta zeukan HB/EH/Batasuna bezalako erakundea eskema politiko-militarrerantz eraman zuen nahitaez. HB/EH/Batasunak iruzur politikoa egiteaz gain, era askotako ekimenetan sartu ditu bere hautesleak, bere oinarri soziala, berari laguntzen dioten guztiak, baita euskal gizarte osoa ere.

1.1. 2.- Espainiako gobernuak, PP eta PSOE

Prozesuaren beste oztopo nagusienatariko bat PPren Gobernuaren inobilismoa izan zen, baita oztopoak jartzeko joera ere. Hasierako zalantzen ostean (gogoratu “Presidentearen gizonak” ETAREN zuzendaritzarekin egindako bilera), Aznarrek eta PPk ez zuten berenganatu nahi izan, Tony Blairrek Ipar Irlandan izandako eginkizun historikoa, eta lubakia jarri zuten, abertzaleon aurkako demagogian (hauteskondeekin lotutakoa) oinarrituz. PSOEek, bestalde, PPrekiko erabateko otzantasuna izan zuen. Aldi horretako urritasunik handienatarikoa sozialistek politika independenterik ez egitea izan zen. Halaber, agerian gelditu zen Espainiako gobernuak komunikabideetan zeukan indar ikaragarria.

Komunikabide nagusiek PPren zerbitzuan jardun zuten eta irekitako prozesuarekiko eginkizun suntsikorra izan zuten. Gatazka konpontzeko sor daitekeen edozein prozesuren

erronka nagusienetarikoa, izatez ere, indar politikorik eta komunikabiderik gehienek horren aldeko lan emankorra egitea izango da.

Gaur egun, badakigu Aznarren eta PPren gobernuek ez dutela horren aldeko ekimenik edo lankidetzarik garatuko; landuko duten bide bakarra indarrarena, gatazkarena eta erasokortasunarena izango da, euren planteamenduak onartzen ez dituzten guztien aurka. Horrexegatik urrundu ginen Aznarren eta PPren gobernutik, hau da, arazoaren azterketan eta diagnostikoan inondik inora ere ados ez geundelako eta, horrenbestez, soluzio-bideetan ere ados jartzen ez ginelako. EAJ-PNVri ospe txarra emateko eta ETArekin identifikatzeko politikaren eragilea horixe izan da: geure planteamendu ideologikoak eta helburu politikoak aldatzeko eskatu digute.

1.1.3.- Lizarrako Foroko kideak

Bakea lortzeko konpromiso sakonarekiko koherentzian, geure Alderdia, euskal gizartearen zatirik handienaren kasuan bezala, guztiz inplikatu zen Lizarrako Adierazpena sinatu eta ETAk su-etena egin osteko dinamikan.

Hala eta guztiz ere, hasierako itxaropenak handiak izan arren, Lizarrako eremuak ia ez zuen aukerarik izan ekimena aurrera eramateko, eta defentsiban jokatu behar izan zuen. Arrazoi asko egon zen horretarako. Lehenengo eta behin, elkarrekin lan egiteko ohiturarik ez duten eta, batzuetan, elkarren aurka egon diren alderdien, sindikatuen eta mugimendu sozialen arteko estrategia bateratua aurrera eramatea ez da erraza. Beste alde batetik, urtebete eta erditan, hiru hauteskunde-prozesu egon ziren, eta aldiok itxuragabetze handia sortzen dute. Era berean, indar politikoek egindako azterketak sarritan ez ziren bat etortzen. Halaber, indar guztien barruan ere ez dira diagnostiko erregularrak egon; zenbait kasutan, azterketak aldagarriak izan dira, edo luzatu egin dira, hauteskundeak igaro arte. Indar politiko guztiek, inolako salbuespenik gabe, sentsibilitate desberdinak izan zituzten euren barruan, eta horrek erabaki hartzeak oztopatu zituen. Horren ondorioz, prozesuaren kudeaketan parte hartu zuten indarrek ez zuten beharrezko baliabide guztiak jarri, lankidetzaz-politika erregularatasunez garatzeko.

Komunikabideek eta politikariek Lizarraren aurka egindako eraso etengabeek ez zuten neurriko erantzun egokirik izan. Espetxe-politikak frustrazioa eta eszeptizismoa sortu zuen, emaitzarik ez ikustean prozesuarekiko ilusioa galtzen ari ziren sektoreetan. “Kale-borroka” ia etengabea izan zen, eta horrek oztopatu, neutralizatu eta moteldu egin zuen alderdien arteko lankidetzaz. Komunikabide askok fenomeno horrek sorturiko eragina erabili zuten, egiten ari ginen esfortzuari sinesgarritasuna eta egiatasuna kentzeko. Arrazoi horien eta antzeko beste batzuen eraginez, Lizarra gertaeren atzetik joan zen, bere burua etengabe defendatu nahian. Lizarrako ekimenek, esate baterako, Udalbiltzak, EHrekiko lankidetzaz-hitzarmenak (Legebiltzarrean) edo Baterak, ez zuten euren berezko dinamika garatzeko astirik eta aukerarik izan. Horren ondorioz, su-etenenaren garaian prozesua ezin izan zen behar bezala garatu.

Hala eta guztiz ere, prozesu desberdinak antolaketarik eta kudeaketa bereizirik gabe nahasteak egin zuen kalterik handiena, su-etenenaren garaian sorturiko prozesuan. Gatazka politikoaren konponbidea, eraikuntza nazionala eta indarreko erakundeen leuntzea edo gobernagarritasuna elkarrekin lotuta daude, baina izatez gauza desberdinak dira. Lizarran egindako akats nagusia, izan ere, aldi berean eta publikoki bi helburu lortu nahi izatea izan zen: batetik, indar abertzaleen arteko eraikuntza nazionalerako proiektua garatzea; bestetik, gizarteari eta gainerako alderdi politikoei gatazka elkarriketaren bidez eta guztion artean konpontzeko metodologia eskaintzea.

Norberaren akatsen eta prozesuaren aurkakoek egindako “asmatzeen” eraginez, eraikuntza nazionalari buruzko diskurtsoa nagusitu egin zitzaion gatazka denon artean konpondu beharri buruzko diskurtsoari, eta azken hori baztertuta gelditu zen. Horrek ondorio kaltegarriak izan zituen, mesede egin baitzion Lizarraren aurkako demagogiari, eta gainera, gizartearen zati handi batean nahastea eragin zuen; izan ere, zalantzak sortu ziren prozesuaren helburuari buruz: arazoak konpondu ala abertzaleon aldeko hobariak atera.

1.2.- SU-ETENA APURTU ETA LAU URTE GEROAGO

1.2.1.- Lizarraren osteko eszenatoki politikoa

ETAk su etena apurtu zuenetik (1999aren amaieran), hiru estrategia dituen eszenatokia sortu da:

- *ETAk elkarriketa eta politika indarkeriaren eta mehatxuaren menpe jartzeko duen estrategia.*

Estrategia honen ezaugarri nagusia oinazea mugarik gabe hedatzea da, hain zuzen ere, ezker abertzalearen ezeztatze zibilak eta politikoak adierazten duen oinazea; horrek agerian jartzen du gizartearekiko eta errealitatearekiko urruntze oso larria. Horren ondorioz, zatiketak egon dira, aurrekorik gabeko babes-galtzea egon da (gizartean eta hauteskundeetan) eta euren proiektua ahuldu egin da. “Borroka armatua” PPren gobernuak bere estrategia justifikatzeko duen aitzakiarik onena da gaur egun.

- *Abertzaleon eta Euskadiko erakundeen aurkako estrategia. PPren gobernuak gidaturiko Terrorismoaren aurkako Itunak “elkarriketaren kontra” duen estrategia.*

Estrategia horren ardatza abertzaletasunaren eta Euskadiko erakundeen aurka eraso gogorra egitea da, baita elkarriketarako aukera guztiak ukatzea ere. PPren gobernuak ETA eta EHNAM erabiltzen ditu, borroka horren ardaztat.

Estrategia horren ezaugarri nagusiak alde bakarrekoa eta autoritarioa izatea da; PPren gobernuak gidatzen du, Terrorismoaren aurkako Itunaren bitartez, komunikabideen laguntzarekin eta sozialisten otzantasunarekin. Estrategia horren ondorio nagusiak atzerakada demokratiko oso larria, aginte-banaketaren printzipioa apurtzea eta bermeen sistema haustea izan dira. Horren emaitzarik nabarmenenak alderdiak legez kanpo uztea eta egunkariak ixtea izan dira.

- *Gehiengo sozialak garaturiko “Elkarriketaren aldeko eta indarkeriaren aurkako” estrategia, hirukoak garatu eta gidatzen duena.*

Estrategia hori, berriz, Lehendakariak 2001eko otsailaren 8an proposaturiko “Kursaaleko Printzipioetako” lau puntuetan zehaztuta dago: giza eskubideei bai, elkarriketari bai, euskal gizartearen nahiari bai eta eraikuntza sozialari bai. 2001eko maiatzaren 13ko eta 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeen emaitzek

abalatu egin dute estrategia hori; horren ondorioz, hiruko gobernua sortu eta Lehendakariaren Proposamena aurkeztu da.

1.2.2.- Azken lau urteotako gertaera nagusiak, gizarte-pronuntziamenduak eta gidaritza politikoa

- Euskadiko azken lau urteotako panorama politikoan eraginik handiena izan duten gertaerak honako hauek dira:

ETAren atentatuak.

PPren gehiengo osoa. Terrorismoaren aurkako Ituna.

2001eko maiatzaren 13ko hauteskunde autonomikoak.

2001eko irailaren 11ko atentatuak eta ondorengo gertaerak.

Alderdi Politikoen Lege Organikoa eta horren eraginezko ilegalizazioak: Batasuna, AuB, Udalbiltza (SA)...

Egunkariaren itxiera eta euskararen munduaren aurkako erasoak.

Irakeko gerra eta gerraostea.

Iparraldeko 2001eko udal-hauteskundeak eta kantonamenduetakoak, eta Hegoaldeko 2003ko hauteskundeak (udal- eta foru-hauteskundeak).

Legebiltzarraren aurkako eraso politiko-judiziala.

- Hegoaldean, gizartearen barruko gehiengoaren pronuntziamenduak zalantzarik gabeak izan dira: ETArri Ez, alderdien ilegalizazioei Ez eta egunkariak ixteari Ez. Gizarteak hautestontzietan, inkestetan edo mobilizazioetan iritziak emateko aukera izan duenean ere argi hitz egin du, eta berriro ere Baietz esan dio indarkeriarik gabeko, elkarrizketako, bazterkeriarik gabeko eta erabaki-askatasuneko proiektuari, euskal gizarte osoarentzako proiektuari.
- Aldi horretan, EAJ-PNV aipaturiko gertaera guztietako joera sozial nagusiekin batera egon da, horien gidaritza eraginkorra eginez. Horrenbestez, ebaluazio positiboa egin dezakegu, aldi konplexu eta gogor horretan izandako eginkizunari buruz.

2.- ORAINA: EUSKAL HERRIKO GIZARTEA BLOKEATZEN DUTEN FAKTORE NAGUSIAK

2.1.- INDARKERIA, MEHATXUA ETA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA

Larritasunik eta premiari handiena duten elementuak, zalantzarik gabe, bizitzaren aurkako atentatuak eta ETaren mehatxupear daudenen egoera da. Indarkeriaren amaiera, mehatxuen bukaera eta biktima guztiekiko elkartasun aktiboa lehentasunezkoak dira, giza eskubideekiko konpromisoaren ikuspegitik begiratuta.

Pertsonaren duintasunarekiko konpromiso hori koherentea eta salbuespenik gabea izan behar da, eta geure gizarteak ere horrelaxe ulertzen du. Horrenbestez, espetxean eta atxilotuta dauden pertsonen giza eskubideen defentsa ere (defentsarik ezari, sakabanaketari eta tortura-salaketei dagokienez) lehentasunezkoa izango da.

Giza eskubideen urraketa blokeo politikoaren eragile nagusienetakoa da: horrek euskal gizartean eta egoera politikoan duen eragina ondoen adierazten duten hitzak “atsekabe” eta “adoregabetze” dira, eta horrela, gizarteak itxaropena galtzen du bakean eta geure herriko normalizazio politikorako nahiz sozialerako aukeretan.

Zenbait taldek oinazea politikoki erabiltzeko kanpainak egin arren, indarkeriaren eta sufrimenduaren biktima guztiekiko elkartasuna eta hurbiltasuna berretsi nahi ditugu.

2.2.- GATAZKA POLITIKOAREN BLOKEOA

Oraingo egoera politikoa 25 urtetik gorako apurka-apurkako narriaduraren eraginezkoa da, eta hori Euskal Herriaren historia hurbila bakarrik hartuta kontuan. Espainiako Trantsizioko baldintza faktikoen eraginez, konstituzio-prozesua ezin izan zen adostasun egokiarekin egin. Prozesu horrek bertatik kanpo utzi zuen Euskal Herriaren zatirik handiena. Gernikako Estatutua ez da bete eta balioa galdu du; gainera, Euskal Herriaren eta Espainiako estatuaren arteko gatazka politikoa oraindik ere konpondu barik dago. Ajuria-Eneko ituna, Aljerreko elkarrizketak, Ardanzaren proposamena, Lizarrako Adierazpena eta beste ekimen sozial batzuk alferrik galdutako aukerak izan dira. ETaren indarkeriak eta PPren gehiengo osoaren agintekeriak (elkarrizketa demokratikorako aukera ukatuz) sakondu eta larriagotu egin dute blokeoa.

Euskal gizartean eta egoera politikoan pilaturiko blokeo horren eraginez, frustrazioa eta nekea nagusitu dira, eta horrela, gizarteak politikan eta herri honen etorkizunean sinesteari uzteko arriskua dago.

Lehendakariaren proposamenak, testuinguru horretan, itxaropena eta egoera gainditzeko benetako aukera ekarri ditu.

2.3.- ATZERAKADA DEMOKRATIKOA

Alderdi Popularraren gobernuak gidaturiko atzerakada demokratikoaren prozesua bost jarduketa-ardatz nagusitan euskarritu da:

- a) gehiengo osoa agintekeriaz eta tolerantziarik gabe gauzatzea;
- b) enpresa publiko handiak pribatizatzea, PPrekiko leialtasuna duten pertsonen eta erakundeen gidaritzapean jartzeko eta, horrela, Espainiako gobernuaren interes politikoen nahiz mediatikoen zerbitzuan kudeatzeko;
- c) komunikabide nagusien kontrol ekonomikoa zein politikoa lortzea eta, horrenbestez, informazioa manipulatzeko;
- d) Terrorismoaren aurkako Ituna sinatzea, PSOEk aurkaritzarik gauzatu ezin izateko, Euskadiko erakundeei eraso egitea eta abertzaletasuna kriminalizatzea, eta
- e) aginte judizialaren kontrol politikoa gauzatzea, Estatuko Fiskal Nagusia eta Entzutegi Nazionaleko epaile batzuk disimulurik gabe inplikaturik eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Auzitegi Goreneko eta Konstituzio Auzitegiko kideak modu politikoan eta alderdikieriaz izendatuz.

Estrategia horrek politikan eta gizartean izandako ondorioak larrienak, bestalde, agintebanaketaren printzipioa apurtzea, komunikabideak kontrolpean edukitzea eta kontrol demokratikorako mekanismoak eta bermeak desagertzea (agintearen erabilerari dagokionez) izan dira. Hain zuzen ere, atzerakada demokratiko horrek hiru tresna nagusi izan ditu:

- *legeen interpretazio berria*, esate baterako, Kode Zibilarena; horrela, interpretazio zabalerako eta nahasirako bidea ireki da, talde armatuarekiko lankidetzari edo bertako kidea izateari dagokionez, baita subjektu kolektiboek egotzitako delituei dagokienez ere. Horren bitartez, egunkariak itxi, erakunde sozialak legez kanpo utzi eta hamarnaka pertsona espexera sartu dituzte;
- *ad hoc idatzitako lege berrien sorrera*, eta horren adierazle nagusia, berriz, HB, EH eta Batasuna legez kanpo uzteko sorturiko Alderdi Politikoen Lege Organikoa izan da; hori, gainera, aitzakiatzat erabiltzen ari dira, Legebiltzarraren eta marko politikoen aldaketa sustatzen duten beste ekimen batzuen aurka aurrekorik gabeko erasoaldia garatzeko;
- eta, azkenik, *legeen aldaketa*; horrela, besteak beste, espetxe-zaintza Entzutegi Nazionalean zentralizatu, prebentziozko espetxe-zigorra sistematikoki aplikatu, biziarteko kartzela-zigorra egintzen bidez ezarri eta espetxe-onurak, baldintzapeko askatasuna edota birgizarteratzea *de facto* indargabetu dituzte.

Panorama horrek demokraziak bizi duen egoera oso larria adierazten du. Sistema demokratiko bateko oinarritzko askatasunak eta eskubideak arriskuan daude: askatasun ideologikoa edo elektoralak, adierazpen-askatasuna, prentsakoa, elkartzekoa, manifestaziokoa, aukera politikorakoa, partaidetza politikorako eskubidea, alderdi politikoak sortzeko eskubidea, birgizarteratzekoa, legearekiko berdintasuneko...

Blokeo politiko eta sozialeko faktore garrantzitsua dugu aurrez aurre. PPreu gobernua aspalditik soluzioen eremutik irten eta arazoaren eremuan sartuta dago; indarkeriari eta gatazka politikoari atzerakada demokratikoa gehitu behar zaie orain. Horrek guztiak euskal gizartean eta egoera politikoan duen eraginaren ondorioz, berriz, hiritarrek ez dute konfiantzarik politikan, justizian eta demokraziaren funtzionamenduan. Horren eraginez, interesik eta sentsibilitaterik eza nagusitu da gizartean, kalitateko eta oinarri sendoko demokrazia lortzeari dagokionez ¹.

1 "Konstituzionaltasun berria eta urritasun demokratikoa (Espainiako 1978ko Konstituzioak 25 urte)" izeneko eranskinean, gai hauek guztiak sakonago aztertuta daude.

3.- ETORKIZUNA: ABERTZALEON ERRONKAK XXI. MENDEKO LEHENENGO HAMARKADAN. EAJ-PNVren KONPROMISOAK

Arazo eta gatazka kronikoen eragile nagusienetarikoa bazterkeria da. Euskal Herrian lehentasunezkoa da horren bi modu nagusien aurka borrokatzea: bazterkeria soziala eta bazterkeria politikoa. Bazterkeria soziala desorekekin eta sektorerik baztertuenean marjinazio-modu berriekin dago lotuta. Ezinbestekoa da eskubideen eta aukeren berdintasunean oinarrituriko gizartean aurrerapausoak ematea, bazterkeria-mota guztiak saihesteko politika publikoak bultzatuz.

Bazterkeria politikoak hiru adierazpen nagusi ditu:

- ETaren mehatxuaren barruko *suntsipena, sektarismoa eta ezarkuntza*; sektore eta alderdi estatalen aurka zuzenduta dago, batez ere.
- *Bazterkeria politikoa eta bazterkeria zibila*; Batasuna eta AuB legez kanpo uztearekin lotuta dago, horren bidez geure gizartearen %10 politikatik eta bizikidetzatik kanpo gelditu baita.
- *Nazioarekin, kulturarekin edo hizkuntzarekin loturiko identitatearen eraginezko bazterkeria*; hori gordin-gordin azaltzen da UPN-PPk garaturiko politiketan, abertzaleak, euskara eta euskal kultura marjinezeko garatu dituen politiketan, hain zuzen ere, eta PSOEk eta CDNk otzantasun nabaria izan dute. Nafarroan, Iparraldean edo Euskal Autonomia Erkidegoan, abertzaleok sentimendu nazionalen edo identitate kulturalaren ondoriozko marjinazio edo bazterkeria guztien aurka egin behar dugu borroka.

Bazterkeriak gizartean eta politikan duen eraginak, bestalde, bazterturiko sektoreen etsipena, sakabanaketa eta marjinazioa dakar. Horren ondorioz, kohesioa eta gizartearen inplikazioa (prozesu eraikitzaileetan) lortu ezin izatearen arriskua sortzen da. Gure gizartean, inor ez dago soberan eta etorkizuna denon artean eraiki behar dugu.

Hori dela eta, EAJ-PNVk konpromiso batzuk hartu nahi ditu etorkizunerako, geure gizartearen eta abertzaletasunaren funtsezko erronkei erantzun egokia eman ahal izateko.

3.1.- BAKE PROZESU BAT GARATU

EAJ-PNVren helburu nagusienetariko bat, izatez ere, mota guztietako indarkeriekin amaitzea eta giza eskubideen adierazpen unibertsalean jasotako eskubideen babesa bermatzea da, baita Euskal Herriko eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko nazioarteko ituna gauzatzea ere.

Helburu hori betetzeko, ezinbestekoa da honako hau egitea:

- Pertsonen segurtasuna, askatasuna eta bizitza bermatzeko baliabide demokratiko guztien erabilera bultzatu, eta mehatxupearan dauden pertsoneri eta biktimei laguntza eta elkartasuna eskaini.
- Indarkeriaren aurkako eta bizitza nahiz pertsona guztien funtsezko eskubideak defendatzearen aldeko mobilizazio soziala sustatu, eta giza eskubideen aldeko kultura salbuespenik gabe defendatu; kultura hori pertsonen duintasun besterenezinean oinarritzen da, eta askatasunik gabeko pertsonak babestu eta horien giza eskubideei arreta berezia eskainiko die.
- Indar politiko eta sozialekiko elkarrizketa-prozesuak bultzatu, bake- eta adiskidetze-prozesua zehazteko eta, horrela, indarkeriari amaiera emateko.
- Distentsio, komunikazio eta adiskidetze politikoari nahiz sozialari loturiko politikak garatu, mehatxu, inkomunikazio, bazterkeria edo sektakeria guztiak gainditu ahal izateko.

3.2.- EUSKAL HERRIKO GATAZKA POLITIKOA ELKARRIZKETAREN BITARTEZ KONPONDU

Gatazka politikoaren blokeoa gainditzeko eta akordioak lortzeko, honako hau egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Euskal Herri osoan eta horren marko desberdinetan, elkarrizketarako eta partaidetza instituzional, politiko edo sozialerako alderdi anitzeko foroak sustatu eta bultzatu; horien helburua, berriz, oraingo blokeo politikoa gaintzeko adostasunak lortzea izango da. Elkarrizketa-foro horiek sendoak izateko, baldintza bikoitzean oinarriturik egon beharko dira: alde batetik, gatazka politikoa dagoela onartzea; bestetik, horri eta berorren funtsezko elementuei (marko juridiko-politikoa, lurraldetasuna, subjektu politikoak, subiranotasuna...) buruzko ulermen anitzak eta dibergenteak daudela onartzea.
- Hiritarren partaidetzarako tresnak sortu; halaber, gizartearen nahiaren adierazpen askea nahiz demokratikoa eta gizartearen pronuntziamentuen errespetua ahalbidetzen duten prozesuak sustatu.
- Lehendakariaren Proposamena euskarritzen duten hiru konpromisoak eta proposamen horren bidez irekitako prozesua sustatu. Nafarroan eta Lapurdin, Nafarroa Beherean nahiz Zuberoan ekimenak bultzatu, beste alderdi politiko eta sozial batzuekin batera akordioak lortzeko eztabaida-prozesuak irekitzeko.
- Elkarrizketa-prozesu horien oinarriak honako hauek izateko proposamena egin: indarkeriarekin loturiko bitartekoak ez erabiltzeko konpromisoa, salbuespenik gabeko pluralismoaren bermea eta gizartearen gehiengoak duen nahiaren errespetua, baita nahi hori askatasunez eta modu demokratikoan adierazteko eskubidearen errespetua ere.

3.3.- ESKUBIDE, BETEBEHAR, ASKATASUN, BERME ETA PRINTZIPIO DEMOKRATIKOAK DEFENDATU ETA BERREZARRI

Euzko Alderdi Jeltzalearen ekintza politiko osoa Giza Eskubideen eta Herrien Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekiko erabateko atxikipenean oinarritzen da; gainera, konpromiso sendoa dauka hartuta, bertako artikuluko guztiak eraiki beharreko euskal gizartean gauzatzeko.

Pentsamendu-aniztasunarekiko errespetua, prozedura demokratikoaren bitartez defendaturiko ideien legitimitatearen berariazko aitortza eta hiritarrak proiektu politikoetara askatasun osoz atxikitzeko printzipioa dira geure praxi politikoaren ezaugarriak.

Espainiako gobernuaren, PPren eta PSOEn atzerakada demokratikoari erantzun demokratikoa eta zibila egituratzeko, honako hau egiteko konpromisoa adierazten dugu:

- Zuzenbide Estatu baten askatasun demokratikoak, funtsezko eskubideak eta oinarrizko bermeak berrezartzen lagundu.
- Printzipio demokratikoak defendatzeko eta sistema demokratikoaren oinarriak berrezartzeko baliabide politiko, juridiko eta instituzional guztiak erabiltzen lagundu.
- Gizartearen mobilizazioa sustatu, askatasunen murriztapenak salatze eta atzerakada demokratikoa nazioartean salatze mekanismoak egituratzeko.
- Zuzenbide estatu baten askatasun demokratikoak, funtsezko eskubideak eta oinarrizko bermeak indartzeko legegintzako neurriak bultzatu.
- Geure gizartearen zati baten bazterketa ekiditeko eta gizarte-sektore guztiek baldintza demokratikoen berdintasunean parte hartzeko prozesuak sustatzeko ekimen politikoak gauzatu.

3.4.- ABERTZALEON PROIEKTU POLITIKOAN AURRERA EGIN

3.4.1.- Sarrera: oinarrizko kontzeptuak eta datuak

Kofi Annanek Nazio Batuen eremuan oraintsu gogoratutakoaren arabera, ez da zentzuzkoa indarkeria eta terrorismoa nahastea, kausen eta ideien legitimitatearekin. Hala eta guztiz ere, garai honetan, geurea bezalako herrien errebindikazio nazional legitimoekiko beldurraren edo izuaren eraginez, herriek autodeterminaziorako duten eskubidea ez ezik, Euskal Herria kontzeptu bera ere ukatu egin da. Hain zuzen ere, ez dago euskal gatazkarik, Euskal Herririk ez dagoelako.

Bi estaturen artean kokatuta eta hiru errealitate juridiko-administratibotan banatuta, Euskal Herria izeneko herri bat dago, eta herri hori Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako, Nafarroa Behereko, Lapurdiko eta Zuberoako euskaldunek osatzen dute, baita beste herri batzuetan bizi diren euskaldunek ere. Arrazoi historikoen, geografikoen, antropologikoen, kulturek eta hizkuntzakoek abalaten dute hori. Oraingo erakunde politikoen eta legezko arauen gainetik, Euskal Herriko gizon-emakumeek herri batekoak, Euskal Herrikoak, izateko sentimendua dute. Izan ere, dekretu eta arau konstituzionalen gainetik, zazpi lurraldeetako hiritarrek sustrai komun sakonak dituzte historian, gizartean, kulturen eta hizkuntzan oinarrituz.

Ezin daiteke ahaztu oraingo marko instituzional desberdinen errealitatea (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparralde, Pirinio Atlantikoen Departamentuaren barruan); baina, halaber, euskal hiritarrei ezin zaie ekidin, inperatibo legala aitzakiatzat hartuta, halakotzat onartuak izateko borondatea. Euskal Herriko lurraldeen egoera desberdinak egiaztatu beharra dago; baina, neurri berean, ezinbestekoa da euskal hiritarrak Euzkadi/Euskal Herriko kideak onartzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetako kideak, bai Nafarroako Foru Erkidegoko kideak, bai Pirinio Atlantikoen Departamenduan dagoen Iparraldeko kideak edo bai munduko beste herri batzuetako kide euskaldunak, eta horiek guztiek Euskal Komunitatea osatzen dute.

Zazpi lurraldeetako hiritarrik gehienak, gaur egun inoiz baino gehiago, euskal hiritartzat onartuak izateko eskubidea eskatzen ari dira, hau da, Euskal Komunitateko kideatzat identifikatuak izateko eskubidea; gainera, sakelari edozein NAN eraman arren, asko Euskal Nazioaren kide euskalduntzat eta europartzat sentitzen dira. Paperak eta erregistro zibilak aldagarriak dira eta aldatu egiten dira, baina Giza Talde bateko pertsonen barru-barruko sentimenduak ez, ezta identitateari lotutako konbikzioak eta proiektu komunean parte hartzeko nahiz elkarrekin bizitzeko loturak ere.

Euskal Herriak bere identitatea dauka Europako herrien artean; izan ere, bere nortasunaren ezaugarriak zaintzen jakin du, herri asko (baita handienak eta indartsuak ere) urteen joanarekin desagertu egin direnean, bateratasunaren eta “zori-batasunaren” arrabolaren azpian. Euskaldunok, nolabait ere, historian bizirik irtendakoak gara: geure nortasuna eta ondare berezia zein komuna (historia, kultura eta hizkuntza) kontserbatu ditugu, eta horren barruko elementu nagusia euskara da, Europako hizkuntzarik zaharrena eta euskalduntasunaren ezaugarri bereizgarriena Arturo Kanpionek zioenez, euskarak gainerako herrietatik bereizten gaitu, eta horri esker, ezin izan gaituzte asimilatu.

Baina euskaldunok ez dugu erakunde politiko komunik, eta arazo handiak ditugu Euskal Herriko lurraldea eta gizartea egituratzeko politikak aurrera eramateko. Foru-araubidean, Euzkadi/Euskal Herriko lurraldeek ez zuten errealitate politiko bateraturik eratu, baina identitatearen kontzientzia garatu zen. Frantziako Iraultzaren eraginezko estatu jakobinoak Iparraldeko berezko sistema politikoa suntsitu zuen; 1841eko Lege “Itundua” deritzonaren ondorioz, Nafarroa erresuma izatetik probintzia izatera igaro zen, eta Espainiako beste lege batek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-sistemak abolitu zituen 1876an. Horren guztiaren ondorioz, Iparraldeko eta Hegoaldeko Euskal Lurraldeak Frantziako eta Espainiako estatu zentralistetan integratuta gelditu ziren.

Orditik hona, Nafarroa Behereak, Lapurdik eta Zuberoak Departamendu berezirik ere ez dute osatzen. Pariseko politikoen promesa asko egin dituzte hauteskunde-kanpainetan, Euskal Herriko Departamendua sortzeari buruz, baina oraindik promesa hori ez da gauzatu. Iparraldeko hiru lurraldeekin Departamendua sortzea aurrerapauso handia izango litzateke, ordezkaritza eta solaskidetza berezia edukitzearen ikuspegitik begiratuta, gaur egun ez baitago halakorik eta horrek oztopatu egiten baitu erakundeen arteko lankidetzak.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak erakunde-egitura garrantzitsua dute, eta gainera, eskumen handiak dituzte, batez ere zergen arloan, bakoitzak bere autonomiaren lurralde eremuan. Bi erakunde autonomiko horiek eskumen mailako gaitasun nabaria dute (Estatuaren kontrol zorrotzak mugatutako gaitasuna), interes komuneko jarduera hitzartuak garatzeko, bai gai sozio-ekonomikoetan nahiz azpiegiturako gaietan, bai kulturaren eta hizkuntzaren arloan. Hala eta guztiz ere, UPNren gobernuak ez du inolako lankidetzarik nahi Euskal Autonomia Erkidegoarekin, eta horrek oztopatu egiten du erakundeen arteko lankidetzarako edozein ekimen.

Hala eta guztiz ere, Euzkadi/Euskal Herria zatitzen duten erakunde-eremu desberdinak ez ezik, ezin daitezke ahaztu Espainiako eta Frantziako estatuek Euskal Lurralde desberdinen arteko lankidetzak ekiditeko egiten dituzten ahaleginak, lankidetzaren arloa edozein izan arren. Bi estatuok eskura dituzten baliabide politiko, juridiko eta mediatiko guztiak erabiltzen ari dira, Euskal Herriko erakunde-eremu desberdinen arteko lankidetzak loturak oztopatzeko. Madrilek eta Parisek edozer egingo dute Euskal Herriaren aitortza ekiditeko, aitortza horrek euren estatu-ereduen inguruko gatazkak daudela onartzea eragingo lukeelako.

Lege-testuen inbobilismorik handiengan kokatuta (testuok aldatu ezin izateko moduko dogmak izango balira bezala), euskal hiritarren helburuak hertsatu nahi dituzte pentsamendu bakarraren mugen barruan, Estatuaren batasun sakratuan. Madriletik eta Parisetik, baliabide guztiak erabiliz, Euzkadi/Euskal Herriaren aitortza dakarren edozer ekidin nahi dute, modu batera edo bestera.

Estatuaren muga fisikoak desagertuta, muga-zergak deuseztatuz, estatuak Europar Batasunaren eremuan eskumenak galduta, mugez gaindiko lankidetzak programak sustatuta, eta Bruselak promulgaturiko eskualdeen arteko lankidetzak bultzatuta, aukera berriak sortu dira (orain arte egon ez diren aukerak), Bidasoaren bi aldeetako Euskal Lurraldeen arteko lankidetzak formula berriak irekitzeko. Horri dagokionez, euroaren ezarkuntza bezalako gertaerak (diru bakarra Iparraldean eta Hegoaldean) lagungarriak dira Bidasoaren bi aldeetako eragilearen arteko harreman ekonomikoak edota sozialak hobetzeko.

Historian zehar Euskal Herriak une zailak bizi izan ditu, eta orain, XXI. mende-hasieran eta globalizazioaren garaian, berriro ere bidegurutzetan dago, zaila baina ilusioz bete den bidegurutzetan. Joan den mendearen azken zatian, Europan eta Euzkadin (batez ere, Hegoaldean) aldaketa sozial nahiz politiko handiak eta ezustekoak gertatu dira. XXI. mende honetan, Herriak eta Estatuak Europar Batasunaren ardatz nagusiaren inguruan egituratzeko eta antolatzeko prozesuak aurrera jarraituko du. Horri dagokionez, XXI. mendean Euskal Herria Subjektu Politikotzat onartu behar da nazioartean. Bidegurutze horretan zailtasun handiak aurkituko ditugu; hala eta guztiz ere, ilusioz beteriko bidegurutzea da, oztopoz eta aukeraz beterikoa, Euskal Herriak erabakitzeke duen eskubidearen onarpena finkatzeko.

Euskal Herriak, XXI. mende honen hasieran ia hiru milioi gizon-emakume ditu, 20.000 kilometro karratu baino apur bat gehiagotan banatuta. Mendeko lehenengo bosturteko honetan, balantze ekonomiko eta sozial oso positiboa dauka. Geure per capita errenta 15en Europar Batasuneko batez bestekoa baino hiru edo lau puntu handiagoa da. Oraingo 10 hautagai berriak Europar Batasunean sartzen direnean (herri horien errenta Euskal Herrikoa baino askoz ere txikiagoa da biztanle bakoitzeko), Euzkadik etorkizuneko 25en Europar Batasuneko batez bestekoak baino 10 puntu gehiago edukiko ditu. Euzkadiren bideragarritasun ekonomikoari buruz sarritan mintzatzen den garai honetan, adierazgarria da Europar Batasunean laster sar daitezkeen 10 herrietatik 6k Euskal Herriak baino biztanle-kopuru txikiagoa eta 3k lurralde-azalera txikiagoa dutela ikustea.

Hegoaldeko ekonomia industria-ezarkuntza handikoa da, eta azken hamarkada honetan berebiziko dinamika garatu du; hain zuzen ere, Espainiako estatuko ekonomia baino gehiago eta

Europako batez bestekoa baino askoz gehiago hazi da. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko jarduera ekonomikoaren dinamismoa, hazkunde ekonomikoan ez ezik, batez ere enpleguaren sorkuntzan ere gauzatu da, eta geure langabezia-tasak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira; hala eta guztiz ere, bi erkidegoetan emakumeen jardueratasak oraindik ere nahiko baxuak dira. Hegoaldeko ekonomiaren kanpo-merkataritzak bilakaera oso hedakorra izan du azken hamar urteotan; horren ondorioz, geure ekonomia atzerrirantz hedatu da eta gero eta menpekotasun txikiagoa dauka Espainiako estatuko merkatuarekiko, hau da, Europako barne-merkatuari begira dago gero eta gehiago.

Iparraldeko ekonomia zerbitzuetan oinarritzen da batik bat, eta turismoa jarduera garrantzitsua da. Industria-sektoreak presentzia oso txikia dauka eta azken urteotan garrantzia galdu du, Zuberoako eta Lapurdiko industria batzuk itxi egin baitira. Iparralderen barrualdeak (Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdiren zati bat) biztanleak eta gazteak galtzen ditu etengabe. Aldiz, Lapurdiko kostaldea gero eta gehiago hazten ari da, bai biztanle-kopuruari eta bai zerbitzu-jardueren kopuruari dagokionez; hori, berriz, turismoarekin eta Frantziako estatuko beste leku batzuetako adineko pertsonak iristearekin lotuta dago.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak, autogobernu kota garrantzitsuak berreskuratuz, ekonomia modernatzeko politikak eta teknologia inplementatzeko programak garatu dituzte, eta horrek emaitza onak eman ditu laurogeita hamarreko hamarkadan. Iparraldek ez dauka erreferenterik eta erakunde-arduradunik, eta beraz, ezin izan ditu hegoaldekoak bezalako eskumen ekonomikoak, sozialak eta kulturalak lortu eta gauzatu.

Administrazio-banaketak, batez ere estatalak, ez du aukerarik ematen lurralde batzuetako ekonomiaren ondorio positiboak nahiz sinergiak beste batzuetara hedatzeko, Euskal Herri osoaren eremuan. “Muga” juridiko-administratiboek lankidetzakanalak irekitzea oztopatzen dute. Lurralde-antolaketaren eta azpiegituren arloan ere gauza bera gertatzen da, baita gai sozialetan eta kulturaletan ere. Egituratzeko eta partaidetzako mekanismoak ezartzea berez ere zaila da, baina oraindik ere zailagoa da halako egoera batean, borondate politiko nahikorik ez dagoenean.

Gaur egun Euskal Herriko biztanle guztien %74 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi dira, 7.500 kilometro karratuko azaleran; %18 Nafarroan bizi dira, 10.300 kilometro karratuko azaleran (lurralde nazionalaren erdia, azalerari dagokionez); eta %8 Iparraldean bizi dira 3.000 kilometro karratuko azaleran.

Euzkadiko eraikuntza nazionaleko proiektua, hau da, euskaldunok izan nahi duguna, Euzkadiko gizon-emakumeen nahiaren arabera da, eta ez da oraingo *statu quo* deritzonaren menpe egon behar. *Statu quo* historiak ezabatzen ditu. Euskal Herriaren garapen ekonomikorako, euskaldunon arteko babes sozialeko sistemetak, lurraldeen arteko interes komuneko azpiegiturarako, lurraldearen nahiz eremu komunen antolaketarako, geure politika kulturalen sustapenerako eta euskara indartzeko nahiz finkatzeko, lankidetzak-formulak eta zazpi lurraldeetako euskal hiritarren arteko lankidetzak-mekanismoak behar dira, oraingo banaketa juridiko administratiboak gaindituz.

Erakunde-eremu desberdinetatik, geure ekonomia produkzio sektore desberdinetan modu bateratuan eta osagarrian garatzeko lagungarriak diren neurriak eta planak bultzatu behar dira, zazpi lurraldetan finkatuta dagoen Euskal Herriaren ikuspegi integraletik begiratuta. Izan ere, ZAZPIAK BAT, helburu politiko demokratikotzat, logika estrategiko, sozial, kultural eta ekonomiko jakinaren arabera izan behar da, sakabanatze-joerak, asimetria demografikoak nahiz ekonomikoak eta gaur eguneko Euzkadiren beste urritasun batzuk zuzentzeko.

3.4.2.- Oinarri eta printzipio ideologikoak (2000ko Txosten Politikoa)

Orain arte adierazitako oinarrizko kontzeptuek eta datuek agerian jartzen dute EAJ-PNVk 2000ko urtarrileko Txosten Politikoa formulaturiko oinarriak eta printzipioak indarrean daudela.

Geure alderdiak datozen urteotarako duen strategiaren oinarri nagusia horietan euskarritzen da:

"EAJ-PNV, bere sorrera-printzipioekin eta banakako nahiz taldeko giza eskubideen defentsarekin koherentzian, oraingo errealitate politikotik eta indarreko marko juridikoetatik abiatzen da; errealitate eta marko horiek kontuan hartuta, euskaldun guztiak barne hartzen dituen eremu juridiko-politikoak garatzearen aldeko apustu garbia egiten du; eremu horrek hiritarren izate nazionala eta errealitate historikoa, kulturala nahiz hizkuntzako arrespetatuko ditu, baita etorkizuna, barne egitura eta kanpoarekiko harremanak edukitzeko eskubidea ere.

- **SUBIRANOTASUNA.-** Finkatu beharreko marko politikoan eta juridikoan, **Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko eskubide osoa berretsita eta zehaztuta edukiko du: autodeterminazio eskubidea** eta horren finkapena, ondoriozko antolamendu juridikoa osatzen duten oinarrizko testu politikoetan.
- **LURRALDE TASUNA.-** Erakunde desberdinak eta, halaber, Espainiako nahiz Frantziako sistema konstituzionaletatik ezaugarri desberdinak egon arren, **Euskal Herria sustrai sakonak (historia, kultura, hizkuntza eta gizartea) dituen komunitatea da.**

Lurraldetasun kontzeptua ulertzeko daukagun moduaren arabera, Zazpi Lurraldeetan kontzientzia nazionalak izandako garapen-maila desberdina, erabakitzeko gaitasuna eta atxikipen askea errespetatuz, **aurrera eraman nahi dugun prozesu politikoaren ondorioz hiritar eta lurralde guztiek Euskal Herria deritzon subjektu politikoan sartzeko eskubidea izango dute;** horretarako, oztopoak gainditu eta beharrezko baldintza juridiko-politikoak sortuko ditugu, eskubide hori gauzatu ahal izateko. Era berean, Trebiñoko eta Turtziozko biztanleek ere bermatuta eduki beharko dute Euzkadin integratzeko eskubidea, baldin eta eurek askatasunez eta demokratikoki erabakitzen badute.

Prozesu politikoaren lurralde-elementuak, horrenbestez, orain ez dagoen aukera konstituzionala sortzen du, eta hori Euskal Herriaren Eskubide Historikoak onartzetik eta bermatzetik ondorioztatzeko modukoa da. Izan ere, **euskal komunitate soziokulturalekoa izanik, subjektu politiko bati dagozkion taldeko eskubide politikoaren onarpena eragin dezake, lekuan lekuko hiritarrek hori nahi izanez gero.**

- **GIZARTEA.-** Herri bat eta kontzientzia nazional bat ez dira sortzen erakunde-egitura jakina ezarrita. Erakundeak, baita erakunde nazionalak ere, euskaldunon gorengo mailako ordezkariatzat, herriak heldutasun politikoa lortzearen ondoriozkoak dira, hau da, kontzientzia nazional komuna eta inguruekiko desberdina sortzearen ondoriozkoak. Horrenbestez, elementu nagusia **Euskal Herriko hiritarren artean kontzientzia nazionala, Euzkadi (izatearen aldeko apustua), hedatzea eta berrestea da.**

Hori dela eta, prozesu politiko horren ondorioz **garatu beharreko ekintza politikoa** Euskal Herri osoan planteatu eta eztabaidatu behar da, baina **berori osatzen duten lurraldeetako errealitate eta egoera politiko desberdinak kontuan hartuta**, bestela geure gizartearen benetako ahotsa lapurtuko litzatekeelako.

Prozesuaren oinarriak, horrenbestez, bi dira: Euzkadi Nazioa da eta, beraz, eskubide politikoak ditu; bestetik, oraingo erakunde-errealitateak eta euskal gizartearen barruko identitateak desberdinak dira. Horrenbestez, **bai berrespen nazionala eta bai erakunde-egituraren nahiz identitateen aniztasuna errealitateak dira. Geure proiektu politikoa** printzipio horietan euskarritzen da, batzuk besteekiko nagusitu gabe”.

3.4.3.- Helburua: Estrategia nazionalaren zehaztapena

Adierazitako printzipioetan oinarrituz, EAJ-PNVren helburu nagusia Euskal Herriaren estrategia nazionala eta abertzale guztiok elkar ulertzeko oinarriak finkatzea da.

EAJ-PNVren iritziz, abertzaleok elkar ulertzeko proposamena garatzeko eta lortzeko oinarriak hiru dira:

- 1. oinarria: indarkeriarik gabe, bide demokratikoak erabiltzeko eta indarkeriarik ez erabiltzeko behin betiko konpromisoarekin.
- 2. oinarria: euskal gizartearen aniztasuna errespetatuz eta, beraz, orain arte eraikitakoan oinarrituz.
- 3. oinarria: oraingo Euskal Herria osatzen duten errealitate desberdinak kontuan hartzen dituen estrategia nazionalaren bitartez.

EAJ-PNVren ustez, Euskal Herriaren oraingo errealitate desberdinak aintzat hartzen dituen estrategia nazionalaren zehaztapena honexetan oinarritu behar da:

- Arabatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik, lehendakariaren proposamenean eta horren inguruan irekitako eztabaidan euskarrituz;
- Nafarroatik, Euskal Herriko lurralde guztien arteko harremanetarako proiektuarekin ados dauden beste indar politiko batzuekiko hitzarmen-proposamena eginez eta nafarren borondatea errespetatuz;
- Lapurditik, Nafarroatik eta Zuberoatik, indar abertzaleen ekintza-batasuna bultzatuz, baita autogobernuko erakundeak eta Euskal Herriaren hegoaldeko lurraldeekiko harreman egonkorretarako eremua sortzearen aldeko indar guztiekiko ekintza-batasuna sustatuz ere.

3.4.4.- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik

Ibarretxe lehendakariak Eusko Jaurlaritzaren izenean aurkeztutako Proposamena: Bizikidetzarako itun politiko berria.

2000ko irailaren 22an, Lehendakariak konpromiso hirukoitzean oinarrituriko etapa berria irekitzea planteatu zuen:

- 1.- **Etikoa:** *pertsonen askatasunaren eta banakako eskubideen defentsan.*
- 2.- **Demokratikoa:** *geure gizarteak demokratikoki hartutako talde-erabakien defentsan.*
- 3.- **Politikoa:** *alderdi guztien arteko eztabaida-foroa sustatzeko.*

Planteamendu hori, izatez ere, geure Alderdiak 2001eko maiatzaren 13ko hauteskunde autonomikoen kanpainan (Legebiltzarrerako hauteskundeak) aurkeztutako soluzio-bidearen euskarria da. Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarren botoekin, EAJ-PNV/EA koalizioak historia osoko emaitzarik onenak atera zituen.

Aurrekorik gabeko laguntza soziala lortu ondoren, eta Ezker Batua Eusko Jaurlaritzan sartutakoan, Ibarretxe lehendakariak konpromiso demokratikoa garatzeko bi helburu nagusi planteatu zituen: Estatutua betetzea eta estatutu-ituna bere ahalmenen arabera gaurkotzeko aukerak ikertzea. Helburu horiek betetzeko, 2001eko azaroaren 29an Autogobernuko Batzorde Berezia sortu zen Legebiltzarrean, eta bertan, euskal gizarteko eremu desberdinetako pertsonakopuru handiak hartu zuen parte; hori lagungarria izan zen Espainiako Gobernuak Gernikako Estatutua ez betetzean daukan erantzukizuna erakusteko, baita Espainiako estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen arteko harreman-eredu berria ezarri beharra erakusteko ere.

Estatutua betetzeari dagokionez, 2002ko uztailaren 12an Legebiltzarrak eskabide hauxe egin zion Eusko Jaurlaritzari: “bidezko neurri guztiak proposatzea eta hartzea, Gernikako Autonomia Estatua beteko dela eta EAeko erakundeek bertako testuan jasotako eskumen guztiak gauzatuko dituztela bermatzeko, horretarako behar diren eta Estatuaren borondateari lotuta dauden transferentzia-prozesuak kontuan hartu barik. Hain zuzen ere, aipatutako neurrien artean, Legebiltzarrean arauzko edo beste mota bateko ekimenak sustatuko dira, Gernikako Autonomia Estatutua oso-osorik eta demokratikoki betetzeko nahiz garatzeko”.

Beste alde batetik, eta estatutu ituna gaurkotzeari dagokionez, Legebiltzarrak erabaki hauxe hartu zuen:

*“Euskal Herriko erakundeen gidaritzatik, erakundeok erreferentziako sustatzailetzat eta eratzzailetzat hartuta, **ebazpen honetan jasotako proposamen multzoa lantzen eta garatzen HASTEAN, antolamendu juridikorako proiektu berria edo berriak egiteko eta egituratzeko. Garapen eta egituratze hori, berriz, euskal gizartearen barruan irekitako eta sustatutako prozesuaren ondoriozkoa izango da, eta eragile politikoen, ekonomikoen, sindikalen, sozialen eta kulturalen partaidetza ahalik eta handienarekin eramango da aurrera**”.*

Horixe da Juan Jose Ibarretxe lehendakariak bultzatu duen akordioa, Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritzaren izenean Bizikidetzarako Itun Politiko Berrirako proposamena aurkeztu duenean, Euzkadiko normalizazio politikorako bidea irekitzeko.

Funtsean, Lehendakariaren proposamenak ireki nahi duen prozesu politikoaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiaren arteko bizikidetzaproiektu berria

eraikitzea da, alde batetik; bestetik, Euskal Herriko lurralde guztien arteko proiektu berria eraiki nahi du, askatasunez elkartzean eta partekaturiko subiranotasunean oinarrituriko proiektua.

Bizikidetzeta-proiektua idazteko orduan, eta abiapuntutzat, Ibarretxe lehendakariak hiru zutabe nagusi ezartzen ditu:

- a) Euskal Herriak bere identitatea dauka...
- b) Etorkizuna erabakitzeke eskubidea dauka...
- c) Bera orain egituratzen duten eremu juridiko-politiko desberdinetako hiritarren erabakiak errespetatuz.

Zutabe horiek eremu nazionalarekin lotzen dute Euskal Autonomia Erkidegorako proposaturiko ekimen bat; erkidego hori ordezkari-tza-eremutzat azaltzen da, Euskal Herriaren zatia delako.

Proiektuaren edukiei dagokienez, Lehendakariak funtsezko hamar oinarri proposatzen ditu:

1.- *"Geure identitate nazionalaren onarpen juridikoa eta geure etorkizuna erabakitzeke eskubidea.*

Euskal Herriak kontsultaren bidez bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea, hau da, eduki beharreko barruko eta kanpoko harremanen eremua erabakitzeke eskubidea, Euskal Herria orain egituratzen duten eremu juridiko-politikoaren eta lurralde-eremuen borondatea errespetatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrituz, eta erkidego horrek Euskal Herriaren zatitza duen erabaki-eremuaren barruan, geure etorkizuna erabakitzeke eskubidea egituratu nahi dugu, euskal gizarteari erreferendumaren bidez kontsultak egitea arautzeko eta kudeatzeko erabateko gaitasunaren onarpenean oinarrituz.

Halaber, Espainiako estatuaren aniztasuna kontuan hartuta, eta Gernikako Estatutuan berriaz jasotako naziotasunaren aitortzearen arabera, euskal naziotasuna normal-normal onartzea eta horrek ondore juridikoak, politikoak eta administratiboak edukitzea planteatzen dugu.

2.- *Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko lurraldeen arteko harremanetarako askatasuna.*

EAEko lurraldeetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiritarrek euren garapenerako eta ongizate politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalerako lotura politikoak eta barruko harremanik egokienak ezartzeko duten eskubidean euskarrituriko askatasuna, eta horren muga bakarra euren borondatea izango da.

Behingoan argi gelditu behar da Nafarroako hiritarrek erabakiko dutela euren etorkizuna. Errespetu-baldintza horretan oinarrituz, inork ezin ditu ezarri edo ekidin Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko hiritarrek euren askatasun osoz erabakitako harremanetarako bideak eta tresnak.

3.- *Frantziako estatuan kokaturiko Iparraldeko Euskal Lurraldeekin harremanak ezartzeko gaitasuna.*

Pirinioen alde bietan kokaturiko Euskal Lurraldeen arteko harremanen eremuan sakondu nahi dugu, Frantziako Estatuan kokaturiko Iparraldeko Lurraldeekin harreman historiko, sozial eta kultural bereziak estutzeko. Horretarako, Europar Batasunaren barruko estatuetakoa lurraldeen arteko mugaz gaindiko lankidetzak ahalbidetzen duten itunak eta araudi komunitarioa modu ahalik eta zabalenean eta malguenean erabiltzea proposatzen dugu.

4.- *Euskadiko aginte judizial autonomoaren eraketa.*

Aginte judizial horrek, aginte legegilearekin eta betearazlearekin batera, geure autogobernuaren hiru aginteak osatuko ditu. Horretarako, aginte judizialaren instantzia judizial guztiak Euzkadin agortu behar dira, eta gainera, Estatu ordeztu egin behar da Erkidegoko justizia-administrazioan; horretarako, berriz, Estatu indarrean dauden auzibidezko printzipio eta oinarriko eskubide berberak aplikatuko dira, eta Estatuarekiko eta Europarekiko koordinaziorako nahiz lankidetzarako markoa diseinatuko da.

5.- *Euzkadiren instituzionalizazio politikoa bermatzea.*

Erabateko autonomia behar da autogobernu politikorako erakundeak diseinatzeko. Horri dagokionez, eskumen eskusiboak behar dira geure buruaren antolaketa, segurtasun publikoan foru- nahiz toki-administrazioan eta zuzenbide pribatuan (auzotasunaren, familiaren, ezkontza-harremanen, enpresaren eta gizarte zibilaren arloan).

6.- *Identitate kulturala zaintzea.*

Politika publiko autonomoa garatu behar da, identitate kulturalaren ezaugarri guztiak zaindu ahal izateko, heziketa-sisteman eta jakintzaren eskualdatzean. Horretarako, kulturaren, hizkuntzaren eta hezkuntzaren arloan eskumen eskusiboa eduki behar da, baita beste zenbait arlo enblematikotan ere, esate baterako, Euskal Herriko adierazpen kulturalen eta kirol-federazioen selekzio nazionalen nazioarteko ordezkartzan.

7.- *Geure eremu soziala nahiz lanekoa, ekonomikoa eta babes sozialekoa garatzea.*

Horretarako, geure politika ekonomikoaren, zerga-sistemaren eta lan-harremanetarako sistemaren kudeaketa autonomoa dago jasota; halaber, aurreikuspeneko, ongizateko eta gizarte-segurantzako sistemak ere garatuko dira, eta horretarako, beharrezko elkartasun- eta lankidetzak-mekanismo guztiak ezarriko dira, Estuari eta Europari dagokienez.

8.- *Geure baliabide naturalen eta azpiegituren kudeaketa bermatzea.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, jarduera publiko eskusiboak egongo dira, ingurumenaren jasangarritasuna, lurzoruaren araubidea, baliabide naturalen titularitatea eta komunikazioko azpiegitura guztien titularitatea lortzeko.

9.- *Estatuarekiko alde biko berme-sistema ezartzea, sinaturiko Ituna alde bakarretik aldatu ezin izateko.*

Itunari eta baterako subiranotasun askeari (borondatez partekaturiko subiranotasuna) buruz mintzatzeko, beharrezkoa da elkarrekiko berme-araubidea

ezartzea, sinaturiko ituna alde bakarretik ez murrizteko, aldatzeko edo interpretatzeko.

Horretarako, formula desberdinak planteatu daitezke, eskuraturiko eskumenen motaren eta ezaugarrien arabera.

Politika publiko eskusiboetarako, horietan eragina duten kanpoko arau juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoan eraginkorrak izateko, beharrezkoa izango da arauok Legebiltzarrak alde aurretik berrestea.

Gainerako arloetan, adiskidetzarako foroak eta arauak egituratu beharko dira, desadostasunik egonez gero gatazkak modu baketsuan eta demokratikoan konpontzeko.

10.- Europan eta munduan ahotsa edukitzea.

Euskal Herria Europako herria da antzina-antzinatik, eta Europar Batasuna, berriz, Euskal Herriko erakundearen eta Espainiako nahiz Europako erakundearen arteko etorkizuneko harreman sozialak, ekonomikoak politikoak eta kulturalak gauzatzeko eremua da gaur egun.

Europaren eremuan, zorionez gizarte- eta adimen-mailan gaudituta daude Espainiako estatuan oraindik ebatzi barik dauden eztabaidak. Europan normal-normal onartzen dituzte funtsezko alderdi eta printzipio demokratikoak, esate baterako, elkartzeko askea, herriek erabakitzeko duten eskubide demokratikoa, partekaturiko subiranotasuna, mugaz gaindiko lankidetzaren edo Estaturik gabeko nazioen identitatearen errespetua; horrek, berriz, Espainiako estatuaren jarraibideak adierazi behar ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek presentzia zuena eduki nahi dute Europan, geure eskumen eskusiboak defendatzeko eta geure identitatea ordezkatzeko. Ez gabiltza planteatzen Europar Batasunaren Hitzarmenean jasota ez dagoen gauzarik, eta batzuetan Batzordeen Lehendakaritzan ere badauden eskualde eta nazio askoren presentziak eta protagonismoak horixe jartzen du agerian.

Nolanahi ere, eta 2004. urtean Batasunaren hitzarmenak berriro egingo direnez, Europarekiko harremanak planteatu nahi ditugu, “elkarturiko eskualdearen edo nazioaren statusarekin”, partaidetzarako formula aurreratutzat. Azken batean, geure eta Europako beste nazio batzuen berezitasunak berariazko erreferentzia eduki behar du Europako konstituzio berrian.

Halaber, eta nazioarteko zuzenbidearen aplikazio zabalagoaren arabera, munduan eta nazioarteko erakundeetan ahotsa eduki nahi dugu; gainera, nazioarteko hitzarmenak eta itunak sinatzeko gaitasuna ere lortu nahi dugu, geure interes ekonomikoak, kulturalak eta instituzionalak sustatzeko, eta horrela, Herritzat dugun identitatea defendatzeko.”

2002ko irailaren 27an abiatutako prozesua, bestalde, irekia, malgua, legala eta demokratikoa da, baina ez da ekimenak aurrera egitea ekiditen duen beto-eskubiderik onartuko. Aurkezpena eta irekiera egin ondoren, lau fase proposatzen dira:

- Gizartearen partaidetzarako fasea (amaituta). Bertan, gizarteari ekimenaren berri eman eta iritziak nahiz ekarpenak jasotzen dira.

- Testu artikulatuaren zirriborroa egiteko eta aurkezteko fasea. Eusko Jaurlaritzaren Batzordeak, 2003ko urriaren 25ean egindako bilkura berezian, Euskadiko Estatutu Politikoaaren proiektua onetsi zuen.
- Kontraste politikorako nahiz sozialerako eta Espainiako estatuarekin negoziatzeko fasea. Beste kontraste politiko eta sozial bat egin ondoren, behin betiko proposamena landuko da; proposamen hori, gizarteari jakinarazi eta bertan eztabaidatu ondoren, Legebiltzarrera bidaliko da, horrek tramitatzeko eta, gero, Estatuarekin negoziatzeko nahiz ituna sinatzeko prozedurak irekitzeko.
- Erreferendumean berresteko fasea. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak Estatuarekin lorturiko itun politikoa erreferendumean berretsiko du behin betiko, edo bestela, Legebiltzarrak onetsitako proiektua berretsiko du, indarkeria desagertu ondoren eta inolako bazterkeriarik gabe.

3.4. 5.- Nafarroatik

I.- Historia luzea

UPNk eta CDNk Nafarroako oraingo gobernurako sinaturiko akordioan hauxe dago idatzita:

"Nafarroako Historiaren ezagupena sustatzea. Nafarroak Espainiako, Europako eta munduko testuinguruan duen historiaren ezagupena "txerto" garrantzitsua izango da, Erkidegoa ezagupenarekin zerikusirik ez duten helburuekin erabili nahi dutenek asmatu mitoei eta gezurrei aurre egiteko".

Miguel Sanzen inbestidurako hitzaldiari emandako erantzunean, EAJ-PNVko José Luis Etxegarai parlamentariak, ekimen horrekin guztiz ados zegoela esan ondoren, hauxe adierazi zuen:

" Agian, Nafarroa Gaztelara nahita (Aizpún Santafé jaunak dioenez) ala derrigortuta eta Errege Katolikoek nahi zutelako (Zangotzako 1561eko Gorteek esan zuten) batu ote zen argituko dugu. Agian, Lege Itundua nafarrek gogo onez onaturiko Legea (Del Burgo jaunak dioenez) ala madarikatuta sorturiko Legea (Javier Los Arcosek esango lukeen bezala) izan ote zen ere jakingo dugu".

Halaber, garrantzitsua izango litzateke nafarrek Bigarren Errepublikako Estatutua ukatu ote zuten, tesi ofizialak dioenez, ala "Nafarroak Euskal Estatutuari ezetz inoiz ere esan ez" ote zion, Jimeno Juríok dioenez (nahiz eta nafar batzuek agintarien borondateari traizioa egin), jakitea.

Eskuineko nabarrismo espainolistak inoiz ere ez du abertzaletasunarekiko alternatibarik planteatu, batez ere Nafarroan euskalduntasuna integratzeko erabateko ezgaitasuna duelako. Hori dela eta, Bigarren Errepublikan 1932ko Estatutu Komuna ukatzearen ostean, elementu hori integratu behar zuen probintzia bakarreko aukera autonomistaren blokeoa iritsi zen. Halaber, 1979tik aurrera, eskuineko nabarrismoa euskara bultzatzeko ahalegin guztiei boikota egiten saiatu da; izan ere, azken urteotan euskararen aurkako erasoak sistematikoak izan dira, eta horretarako, gainera, PSNren gutxiengo sektore batzuen laguntza izan dute.

Nolanahi ere, geure iritzian, horrek Nafarroaren azken bost mendeetako bilakaera politikoa laburbiltzen du. Nafarroako Historiaren bi irakurkera desberdin: 1512ko, 1839ko eta 1936ko garaileena, eta urte horietako galtzaileena. Nafarroaren Historia irakurtzeko bi modu horiek baliozkoak izan dira, eta oraindik ere badira, bertako indar politiko guztien estrategiak eta taktikak zehazteko euskarritzat.

Sanz jaunari gogora ekarri behar zaio historia garaileek idazten eta manipulatzeko dutela oraindik. Garaituek nahikoa dute ahal duten moduan defendatzearekin, batzuetan sentimendua arrazoiari eta zorrotzasanari nagusitu arren. Gaur egun, zorionez, historiaren profesionalak gero eta hobeto ari dira manipulazioaren eta ezkutaketaren profesionalen aurka.

II.- Oraina

“Demokrazia” iritsi zenetik, “nabarrismo” deritzon horrek (garaileak), “Estatuaren Arrazoiak” (garaileena) deritzonaren laguntzarekin, biziraupenerako lehentasunezko eta ezinbesteko helburutzat, Espainiaren batasuna (Lacasta Zabalzak aipatutakoa) mantentzea dela erabaki du, eta, horrenbestez, Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko batasun-aztarna guztiak nola edo hala saihesteko erabakia hartu du. Eta, horretarako, euren aurrekoek historian zehar egin duten bezala, bi bide erabiltzen dituzte. Lehenengo eta behin, Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko erakundeen arteko lankidetzak egitatez edo zuzenbidez ekidin nahi dute; horrexek azaltzen du 1841ean Nafarroak soilik egitea “ituna”, eta 1866an Euskadi-Nafarroako Unibertsitatea sortzeko Proiektuarekin, Lizarrako Estatutuarekin, 1996ko Bilketa Organo Iraunkorarekin, Euskaltzaindiaren akordioarekin eta abarrekin gertaturikoa ere horrexek azaltzen du.

Bigarren bidea oraindik ere larriagoa da eta egunotan indarrean dago. Argi eta garbi esateko, ezabatu egin nahi dituzte Nafarroako euskalduntasunaren ezaugarri edo elementu guztiak, baita izena bera ere. “Izena duen guztia da” esaldia ondo ezagutzen dutenez, euren hori irauli eta hauxe sortzen dute: “izenik ez duena ez da”. “Nafarra bazara ez zara euskalduna” esaldia ere, behin eta berriro entzuten dugun esaldia, ez da kasualitatezkoa, ez da ezjakintasun “inozoaren” eraginezkoa. Ondo pentsaturiko eta euren estrategia “genozidan” (behintzat, identitateari dagokionez) txertaturiko nahiz zabaldutako eslogana da. Eta, gaur egun, denbora eta esfortzua gastatuz, euskalduntzat onartuak izatea errebendikatu behar dugu.

Baina gauza guztiak ez dira hain beltzak. Esandako guztia egia da; baina horien porrota ageri-agerikoa da, kontuan hartuta bost mende igaro ondoren nafar askok (hauteskondeen emaitzak barik ikerketa soziologikoak aintzat hartuta, askoz ere gehiago) oraindik ere euren euskalduntasuna aldarrikatzen eta defendatzen dutela.

III.- Etorkizuna

Etorkizuna aurreikusteko eta bertan eragina izateko, argi eta garbi eduki behar da abiapuntua: Nafarroako errealitate sozio-ekonomikoa, juridikoa eta kulturala, lanerako ditugun tresnak eta, laguntzarekin behar izanez gero, bidaia honetarako izan ditzakegun lagunak.

- 1) Kanpoko mimetismoa erabiliz, “Nafarroa ondo doa” deritzona saldu nahi da.

Aldarrikapen sinplista hori garatzeko, esan behar da Nafarroan jendea ondo edo ederto bizi dela, baina Nafarroa, halakotzat hartuta, txarto edo oso txarto doala.

Ikuspegi politikotik begiratuta, eta Estatuaren testuinguruan, “Nafarroa: erresumatik probintziara” zioen Rodríguez Garrozaren titular ospetsu horretan eranskina egin daiteke,

esanez “probintziara eta azkenera”. Izan ere, geure eragin osoa Alderdi Popularraren aginduetarako erabateko menpekotasunaren eraginezkoa da.

Europari dagokionez, bere garaian leku nagusia izan eta Shakespearek, Tomás Morok eta beste askok aipatu zuten Nafarroako Erresuma hura guztiz ezezaguna da orain, bere identitatea duen izate politikotzat. San Francisco Xabier ere santu espainola “da”.

Ikuspegi juridikotik begiratuta, aipagarria da UPNk tresna horiek interpretatzeko eta aplikatzeko duen modua: UPNren ustez, Legea ez da denon onera zuzendutako zentzuzko antolamendua, Santo Tomás de Aquinok zioenez. Antolamendu juridikoa ez da printzipio batzuen menpeko arauen multzoa, eta horren helburua ez da hiritarren beharrezko materialak nahiz espiritualak betetzea eta bizikidetzaren antolatzea. Ahaztuta daude Askatasun Zibilaren printzipio hura, Nafarroako Zuzenbidean funtsezkoa izan eta geure Foru Berriko 8. Legeak oraindik ere aldarrikatzen duena; ez da berme-sistematik behar. Ez dugu legegintzako autonomiarik behar.

UPNren iritzian, Legea bere interesen eta bere filien nahiz fobien zerbitzura dagoen tresna da. Itoizeko eta Larrako berrikuntzek eta jarduketek, edo euskararen zein alarguntasun-pentsioen arloan egindakoek, ageri-agerian uzten dute hori.

Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, BPGri, per capita errentari eta langabeziari buruzko datuek lehenengo leerroan jartzen dute Nafarroa, eta UPNk hori beldatzen, mordaztatzen eta tapoizatzen erabiltzen du, hiritarrek errealitatearen barruko beste alderdi egituratuago batzuk ez ikusteko eta horiei buruz ezer ez entzuteko edo esateko; hala ere, horiek zuzendu ezean, ez dago konfiantzarako edo baikortasunerako arrazoirik. Sarritan esaten den “Volkswagenek doministiku eginez gero, Nafarroa AIUra” esaldia erreal eta, analogiaz, Lurraldeko ekonomia- eta finantza-mundu osora aplikatzeko modukoa da.

UPNren politikak ez dauka kohesio sozialeko eta sektore sozialik baztertuenen babeserako irizpiderik; horren eraginez, gizartea hausteko arriskua egon daiteke, batez ere Iberiar penintsularen kanpoaldetik iritsitako inmigrante-kopuru nahiko handiko testuinguruetan.

Lurralde-orekari dagokionez, UPNren politikak orekarik gabeko garapena bultzatzen du; erakarpeneko bi gune eratu (nagusia Iruñeko arroan eta bigarren mailakoa Tuterako erriberan) eta mendialdea nahiz erdiko aldea zahartze demografikora kondenatu ditu, ordezpenerako inolako aukerarik gabe, eta beraz, etorkizunean biztanleriaren desertizazioa egongo da.

Kulturaren eta hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta, Nafarroako edozein pertsonarentzat eta, batez ere, bere bizitza kulturala bizi nahiz euskal identitateak garatu nahi duenarentzat, argi gorri guztiak piztuta daude: espainol uniformatzaileek (eta ez bakarrik UPNkoak) ondo dakite euskal kultura (berorren ezaugarri nagusia den euskararekin) identitate-ikur bereizgarriena eta, horrenbestez, euren helburuetarako oztoporik handiena dela, eta beraz, horrexen kontra jotzen dute gogorren. Horretarako, alde batetik, “Alde Euskalduna” deritzona “ghetto” bihurtu nahi dute, eta bestetik, lehen aipatu dugun identitate-geozidua aplikatzen ari dira. Estrategia horren eraginez, mende eta erdian, euskararen lerroa Garinoainetik Belateko magaletaraino jaitsi da.

Euskarari eta horrekin erlazionaturiko erakundeei egindako irainen eta UPNren gobernuak komunikabideetan horren kontra sustaturiko kanpainen helburua, bestalde, Nafarroako gizartea geure jatorrizko hizkuntzatik urruntzea eta euskaltzaleen eta ikastolen mugimendua baztertzeko da. Horretarako, hezkuntza-politikak D ereduarekiko hezkuntza-eredua alternatiboak planteatzen ditu Alde Euskaldunean eta alde mistoan, eta ikastoletarako dirulaguntzak murriztu egiten ditu Alde Ez Euskaldunean, hizkuntza

berreskuratzeko mugimendua moteltzeko eta geldiarazteko. Horren guztiaren eraginez, etorkizunean Nafarroako gizartea egituratzearen aurkakoa izango litzatekeen identitate-gatazka sortzeko arriskua dago.

Nafarroan euskal kulturaren eta, hain zuzen ere, euskararen defentsak eta babesak tratamendu askoz ere sakonagoa eta erabakigarriagoa behar du. Horri dagokionez, EAJ-PNVk berriro egiten du ekintza kulturalaren aldeko apustu estrategikoa.

- 2) Antolamendu juridikoa (Legea) eta Ituna, beste alde batetik, gaur egun hemen EAJ-PNV bezalako alderdi batek bere helbururik berehalakoak betetzeko erabil ditzakeen tresnak dira. Hau da, euskaldunen nahia askatasunez adierazteko eta horien errespetua lortzeko erabil daitezkeen tresnak dira. Horretarako, eta Nafarroari dagokionez, lehen edo orain Nafarroan nola edo hala eragina izan duten edo oraindik ere baduten arau juridikoak gogoratzea eta aztertzea komeni da.

2.1) 1839ko urriaren 25eko Legea:

Espainiako 1978ko Konstituzioak indargabetu egin zuen, Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoari zegokienez, baina Nafarroan indarrean dago, LORAFNari kontrajartzen ez zaion bitartean. “Monarkiaren batasun konstituzionala” deritzonari egindako aipamenak eta “lehenik probintziek esan beharrekoa entzunez” adierazpenak Estatuaren agintearen esku uzten du interpretazioa eta ondorengo ekintza. Lege hori nekez har daiteke ituntzat, ituna borondate askeen multzotzat hartuz gero.

2.2) 1841eko Lege Itundua:

Berau ere indarrean dagoela esan du LORAFNAk, berari kontrajartzen ez zaion bitartean.

Ez du ezertarako balio eta ia indargabeturik dago, denboraren joanarekin; indarrean dagoela esaten da, Estatuaren aginteari oztoporik egiten ez diolako eta berrogeita batekoek “euren” foru-araubidearen eta Nafarroaren identitate politikoaren (identitate hori ulertzeko duten eran) oinarritzko zutabetzat erabil dezaketelako. Horri buruz esan daitezkeen gauzarik onena, izan ere, “herriaren opioa” izan dela da.

2.3) Autonomiaren aurreko 1978ko dekretuak:

Behin-behinekoak izan arren, eta gaur egun indarrean ez badaude ere, merezi du horiei buruz zerbait esateak; izatez ere, geure iritzian, lurraldetasunarena bezalako gai nahasgarriari buruz dugun filosofia ondo islatzen dute, Hegoaldeko lau lurraldeek askatasunez eta baldintza-berdintasunean batzeko duten eskubidea aldarrikatzen baitute. Horrela, zapuztuta gelditzen da UPNkoek eta abarrek behin eta berriro maltzurkeriaz erabiltzen duten anexionismoaren tesia.

2.4) Espainiako 1978ko konstituzioa:

Txostenaren Eranskina aipatu eta, Nafarroatik, aditzera emango dugu Espainiako lehenengo testu konstituzionala dela, Baionako 1808ko Estatututik; azken horrek “foru-lurraldeak” daudela onartu eta lurraldeoi eskubide historikoak eratzikitzen dizkie, errespetatzen eta babesten dituen eskubide historikoak. Era berean, Nafarroak euskal araubide autonomiko komunean parte hartzeko duen eskubidea

onartzen du, Gernikako Estatutuko 47.2 artikuluan jasotako dekretu autonomikoen espirituan.

Eskubide historiko horiek zehaztea baino ez da gelditzen, eta ez da gutxi.

2.5) 1982ko Hobekuntza (LORAFNA):

Gogoratu beharra dago, lehenengo eta behin, Hobekuntza ez dela erreferendumean onetsi. Ez da inoiz ere bozkatu.

Hori dela eta, Nafarroa araubideari buruzko erabakirik hartu ez duen hiritarrak dituen lurralde bakarra da inguru osoan; eta hori oraintxe gertatu da lehenengoz Nafarroaren historia osoan, statusak sarritan aldatu diren arren.

Izan ere, agintea bidegabe zutenek inoiz ere ez diote Nafarroari eman nahi izan nafarrak identifikatuta sentitzeko moduko araubiderik, horiek bertara askatasunez eta borondatez atxiki ahal izateko. Helburua, izatez ere, berrogeita batekoen funtsik ezak eta espiritu sukurtsalistak erosotasunez zirkulatzeko moduko autopista eraikitzea izan da.

Edukiari dagokionez, beste edozein Autonomia Estatutu bezalakoa da, eta, gehiago garatu ez bada, Estatuaren interesik ezaren eta Nafarroako elkarren atzeko gobernuen utzikeria nabarmenaren eraginezkoa izan da. Hala eta guztiz ere, geure tresna juridikorik garrantzitsuena da. Nafarroaren subiranotasun historikoan sustraituta dago, 1. Xedapen Gehigarrian, onartu egiten baita ezarritako araubideak “ez dakarrela Nafarroarenak izan daitezkeen jatorrizko beste eskubide batzuen eta eskubide historikoen ukapenik”.

“Nafarroa berori hartu duen Autonomia Erkidegotik banatzeaz” ere arduratzen da (2.b Xedapen Gehigarria).

IV.- Hurrengo lau urteak

Horiexek dira geure saskiak egiteko ditugun zumeak; gainera, geure lan-inguruari dagokionez, ez da ahaztu behar txosten honetan aipatutako ETAre indarkeria berbera dela eta Nafarroan ondorio are larriagoak dituela, eragin politiko handiagoaren (orain arte) eta abertzaletasunak duen egoeraren eraginez.

Halaber, ez da ahaztu behar abertzaletasun demokratikoak Nafarroan planteatu beharreko gobernu-estrategietan, abertzaleak ez diren beste alderdi politiko batzuekiko adostasunak bilatu behar direla (PSN, CDN eta IU). UPNren gobernuak euskararen eta euskaldunon identitate-ikurren aurka egiten dituen erasoaren intentsitatea ikusita, abertzaletasun demokratikoak kontuan hartu behar ditu laurogeiko hamarkadan gobernu sozialistekin zenbait arlotan emandako aurrerapausoak, baita 1995-1996ko hiruko gobernuak inauguraturiko aukerak ere, nahiz eta horiek azkenean bertan behera gelditu.

EAJ-PNVk Nafarroan hurrengo lau urteotan izango duen helburu politiko nagusia ondoren adierazitakoa gauzatzea izango da, beharrezkoa delako:

- 1. Konpromisoa.-** EAJ-PNVk Nafarroako gainerako indar politiko eta sozialekin batera Bizikidetzarako Hitzarmen Proposamena egiteko, sustatzeko eta aurkezteko konpromisoa hartzen du.

2. **Urritasuna.**- Proposamen horren Nafarroaren oraingo bizikidetzaren eremuan dauden lau urritasun nagusiak hartuko ditu aintzat:

ETAren mehatxua eta indarkeria.

Foru Hobekuntzaren balioztatze demokratikorik eza.

Euskaldun sentitzen diren nafarrek bizikidetzatik izandako bazterkeria.

Nafarroan euskarak, euskal kulturak eta euskalduntasunak jasaten duten bazterkeria eta jazarpen ofiziala.

3. **Printzipioa.**- Gure Proposamena honako printzipio hauek errespetatzen dituzten erakunde politikoei, sozialei eta kulturei zuzenduta egongo da:

Giza eskubideak errespetatzeko eta babesteko printzipioak; horretarako, bide politikoak eta demokratikoak soilik erabiltzeko konpromiso eta indarkeriaren aurka egoteko konpromiso garbia behar da.

Lurralde-elkartze aserako printzipioa; lotura eta interes komunean oinarrituz, eta errealitate politiko, sozial eta instituzional desberdinak errespetatuz, Nafarroak Euskal Herriko gainerako lurraldeekin lankidetzaren eta harreman iraunkorrek edukitzea ahalbidetuko du.

Aniztasuna errespetatzeko printzipioa; Nafarroako hiritarren aniztasun politikoa nahiz kulturala eta izate nazionalen sentimendu desberdinak errespetatu behar dira. Horrenbestez, elkarrizketaren eta adostasunaren aldeko jarrera egongo da, bazterkeriak sortzen ez duen eta kulturarekin edo hizkuntzarekin erlasionaturiko identitate berrak sortzen ez duen bizikidetzaren eremua hitzartzeko.

Herritarren nahia errespetatzeko printzipioa; Nafarroa bertako hiritarrek nahi dutena izango dela eta Nafarroaren etorkizuna nafarrek erabakiko dutela onartu behar da. (Autodeterminazio Eskubidea).

4. **Edukia.**- Hitzartzeko aurkeztu den proposamenaren helburua Foru Hobekuntza aldatzeko adostasun sozial eta politiko ahalik eta handienak lortzea da, Nafarroaren eta Euskal Herriko gainerako lurraldeen eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman-proposamen berri baten bitartez. Proposamen horrek oinarritzko eduki hauek garatuko ditu:

Euskal Herriko gainerako lurraldeekiko organo eta erakunde komunak sortzeko gaitasuna; historia, hizkuntza, kultura, gizarte, ekonomia, industria edo lurraldeko lotura komunean eta Nafarroaren autonomian oinarrituz, organo eta erakunde horiek interes komunen eta lankidetzaren zerbitzuan egongo dira, eta nafarren ongizatea eta bizikidetzaren hobetzeraren bideratuko dira.

Herri-kontsultak egiteko gaitasuna, nafarrek etorkizunari, bizikidetzaren eremuari eta beste gai interesgarri batzuei buruz duten iritzia ezagutzeko eta errespetatzeko.

Euskararen eta euskal kulturaren defentsa, babesa eta errespetua.

Nafarroarako estrategikoak diren arloetan erabakiak hartzeko edo hitzarmenak egiteko subiranotasuna.

Gizarte-kohesioaren eta aurrerakuntza ekonomikoaren arloko berrikuntzak.

- 5.- Balioztatzea.-** Proposamenaren euskarri juridikoak oraingo antolamendu juridikoan jasota daude: Konstituzioko Laugarren Xedapen Iragankorra, Hobekuntzako Bigarren Xedapen Gehigarria, Hobekuntzako 70.2 eta 70.3 artikulua, Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarria, eta hobekuntzako 2. artikulua eta Lehenengo Xedapena, foru-lurraldeetarako eskubideen erreserbaren klausulatzat.

Beste alde batetik, Nafarroarako bizikidetzaren eremu baterako proposamen hori edo beste edozein herri-kontsultaren menpe jarri beharko da, Trantsizioak Nafarroan izandako urritasuna zuzentzeko. Nafarrek askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondate politikoa da proposamena garatzearen eta zehaztearen oinarria.

3.4.6.- Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoatik

Garai honetan, Europar Batasuna Euskal Herria baino txikiagoak edo biztanle-kopuru txikiagoak diren estatuetara irekitzen dabil, eta laster Europako Konstituzioa sortuko da; horrenbestez, EAJ-PNVren ikuspegi nazionala Europako dimentsioan txertatuko da. Dimentsio nazional eta Europar horren arabera, Iparralde (hau da, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa) EAJ-PNVren proiektuaren erdi-erdian dago.

Egoeraren araberrako hitzaldien eta Hegoalderen garrantzi demografikoaren nahiz politikoaren gainera, argi dago eraikuntza nazionalak Iparralderen eraikuntza behar duela, arlo guztietako eraikuntza (erakundeak, hizkuntza, kultura, ekonomia, lurraldea, gizartea, ingurumena...).

Iparralderen garapen hori ezin daiteke "anekdotikoa" edo Hegoalderen bilakaerarekiko paraleloa izan. Frantziako Errepublikan egoteak dakartzan desberdintasunak izan arren, Iparralderen garapena EAEn nahiz Nafarroaren garapenarekiko osagarria eta partekatua izan behar da.

Iparralde ERREALITATEA da. Horrenbestez, azterketa eta estrategia berezia behar du. Horixe da geure helburua.

1. *Erronka berriekiko inobilismoaren garrantzia:*

Iparraldeko gizarteak bere erritmo politikoak ditu eta inoiz baino gehiago jasaten du Frantziako administrazio eremuaren barruko garrantzirik eza. Hala eta guztiz ere, gizartean bilakaera sakonak gertatzen ari dira (euskaren defentsa, tokiko garapena, zinegotzien "jabetzea"...). Mugimendu abertzalean, berorren aniztasun osoan, bilakaera horien eragilea, sustatzailea eta, batzuetan, katalizatzailea da sarritan. Zailtasuna, kasu askotan, pentsaerak bilakatzeko erritmoa motela izatearen eta aginteko guneak (bai Parisekoak eta bai Iparraldekoak) inertzia handia edukitzearen ondorioz sortzen da.

Tokiko inobilismoa nagusitu egiten da oraindik, gizarte zibil oso aktiboa eta, sarritan, berritzailea egon arren. Baina azken urteotan inobilismo hori zalantzan gelditu da, gutxienez hiru zergatiren ondorioz.

Abertzaleen botoaren eta eraginaren gorakada etengabea.

Iparralden, mugimendu abertzalea anitza da. Zatiketa asko ditu, batzuk ideologikoak eta beste zenbait estrategikoak. 2002an Batasuna sortzeak apur bat gehiago zatikatu zuen abertzaleen eremu politikoa, baina ezkerreko alderdi nagusia den Abertzaleen Batasuna (AB) benetan ahuldu barik.

Lau alderdi abertzale egoteak (EAJ-PNB, AB, EA eta Batasuna) ez dio mesederik egiten ekintza-batasunari. Zatiketze hori egon arren, abertzaleek gero eta eragin handiagoa dute nekazaritza-sektorean (ELB sindikatua), sektore ekonomikoan, garapen kontseiluan, mugaz gaindiko lankidetzak-erakundeetan, etab. Abertzaleen botoa gorantz doa apurka-apurka, baina gelditu barik.

Frantziako hauteskunde estatalak (eskualdekoak, senatua eta legegintzakoak) alde batera utzita, mugimendu abertzalea (AB eta EAJ-PNB) zinegotziak lortzeko gauza da orain, bai nekazaritza-inguruan eta bai hirietan. 2001eko udal-hauteskundeetan eta kantonamenduetako hauteskundeetan zinegotzi-kopuru nahiko handia lortu da, eta alkate batzuk eta kontseilari nagusi bat ere lortu dira.

Frantziako zenbaketa-sistema eta tokiko kultura politikoa, neurri handi batean, ezkerrean eta eskuinean arteko banaketaren eraginezkoak dira. Horren ondorioz, mugimendu abertzalearen barruan ere dualtasun hori dago, neurri batean. Hala eta guztiz ere, banaketa hori egon arren, egoera egokia dagoenean hauteskundeetarako aliantzak edo ekintza bateratuak egin daitezke, eta horren adibiderik onena departamentuaren aldeko mugimendua da.

“BATERA plataforma” eta Euskal Departamenduaren aldeko mobilizazioa.

Iparralderako erakunde baten errebindikazioa ezinbesteko baldintza da bertako garapenerako, baina ez da baldintza bakarra: euskararen sustapena nahiz irakaskuntza, hezkuntza-sistema berezia, enplegua, garapen jasangarria, lurralde-antolaketa... beste ekintza mota batzuk behar dituzten errebindikazio legitimoak dira.

Biztanlerik gehienak, alkate nahiz zinegotzi ia guztiak eta eragile sozio-ekonomikorik gehienak Iparralderako erakunde bat sortzearen aldekoak dira; nolana ere, oraingo Pirinio Atlantikoen Departamentua (64) zatitzearen aldekoak dira, eta horren barruan, orain dela bi mendetik, Iparraldeko Euskal Lurraldeak eta Biarno sartzen dira.

1998tik hona, eragile taktikoen eta errealismoaren ondorioz, alderdi abertzaleak batu egin dira Iparraldeko Departamendu baten errebindikazioan; hain zuzen ere, Frantziako Errepublikarekiko erakunde administratibo deszentralizatu eskatzen da, erakunde-mailako “izendatzaile komunetako txikiena” bailitzan ulertuta.

AB eta EAJ-PNB alderdiek euren konbikzio osoa, militante guztiak eta mobilizazio-gaitasun guztia jarri dute errebindikazio horren zerbitzuan; gainera, “BATERA plataformaren” inguruan antolaturiko mugimendu sozial oso zabalari utzi diote gidaritza.

BATERAk jendea biltzeko gaitasun handia erakutsi du, Euskal Herriko Departamenduaren aldeko bigarren manifestazio historiko handian (Baionan 2003ko otsailean egindakoa), baita Baionan 2003ko urriaren 11n egindako azken manifestazioan ere.

Langileen sindikatuekin (CFDT, CFTEC, LAB), nekazaritza-sindikatuekin (ELB), zinegotzi-elkarteekin, gizarte zibilarekin, kirolariekin eta mugimendu ekonomikoarekin batera, alderdi abertzaleek errealismo politikoaren aukera jokatu dute, baina euren helburuei uko egin barik.

BATERAk ez du Iparraldeko ordezkari politiko nagusien atxikipenik lortu (ALLIOT MARIE, GRENET, BOROTRA,...) eta Pariseko Aginte Zentralak ez dio kasurik egin, baina Departamenduaren aldeko mugimenduak egituratu egin du Iparraldeko diskurtso politikoak. Hautagai bakoitzak, zinegotzi bakoitzak eta iritzi-buruzagi bakoitzak Euskal Herriko Departamenduarekiko jarrera argia eduki behar du orain.

Hala eta guztiz ere, BATERAren ekimenak atxikipenean erortzeko arriskua dauka, bai berezko higaduraren eta bai barne-zatiketen eraginez. Frantziako gobernuak ez du malgutasunik erakutsi “euskal arazoarekiko”, eta ukatu egin ditu erakundeen arloko aurrerapauso guztiak eta horrek oztopatu egiten du bidea. Halaber, CHIRACen eta RAFFARINen Frantziaren paradoxa ere hortxe dago, “Deszentralizazioaren II. Egintza” deritzon garaian.

Frantziako Konstituzioaren berrikuntza eta Deszentralizazioaren II. Egintza.

Frantziako gizarteak blokeatzen duten faktoreez jabetuta, eta Estatuaren gehiegizko zentralizazioak sortzen duen kaltea ikusiz, RAFFARINen gobernuak Errepublika deszentralizatzeko mugimenduan etapa berria sortzea erabaki zuen 2002ko urrian, “governanzaren” (tokian tokiko partaidetza-demokrazia) hurbiltasunaren eta eraginkortasun administratiboaren izenean.

Baina gauzak argi eduki behar dira. Deszentralizazioa Frantziaren berezitasuna da eta toki-erakundeei aginte administratiboa ematean oinarritzen da. Legearen barruko (Frantziako Parlamentua) deszentralizazio horri dagokionez, Estatuak bere deszentralizazioa gauzatzen du aldi behin. Beste modu batera esateko, eskumen errealak baina mugatuak dituzten toki-agintariei dagokienez (udalerrria, departamentua eta eskualdea), Estatuak lurraldean dituen ordezkariak ematen die agintea (prefetak eta pilatu gabeko administrazioak).

“Frantziar erako” deszentralizazioak erabakiguneak ugaritzen ditu, eta sarritan, eraikuntza administratibo oso konplexua eta erredundantea da.

Frantziako antolaketa deszentralizatuan, kolektibitate berrienak eskualdeak dira (1982), eta zalantzarik gabe modernoak ere badira, Europako beste estatu batzuekin konparatuz gero.

RAFFARINen gobernuak hasitako berrikuntza garrantzitsua da, bi helburu baititu:

- Konstituzioa aldatzea, Errepublikaren Antolaketa “hausteko” hori oraindik oso jakobinoa baita.
- Eskumen berriak deszentralizaturiko kolektibitatei eskualdatzea, batez ere eskualdeei.

Lehenengo etapa 2003ko udaberrian gainditu zen, 1958ko Konstituzioaren artikulua batzuk aldatuta. Sartutako berrikuntzak, besteak beste, honako honi buruzkoak dira:

- Tokian tokiko erreferendumak antolatzeak aukera.

- Mapa administratiboa, hau da, toki-erakundeen mugak aldatzeko aukera.
- Esperimentatze-printzipioa, kolektibitate bati arauzko agintea (Gobernuaren pribilegioa) eta, kasu batzuetan, aginte legegilea (Parlamentuaren pribilegioa) eskuordetzeko.

Frantziako konstituzioaren testuan egin den “iraultza txikiaren” ondorioak epe luzean ikusiko dira. Agian, “uniformetasun jakobinoaren” moldea apurtzeko balioko du.

Baina ez da amets handirik egin behar. Frantziako erakunde-sistema oraindik ere hierarkia handikoa da eta Pariseko aginte estatala inoiz baino indartsuagoa da. Ekimen berri guztiak indar-harremanen menpe daude, eta horien barruan, oraindik behintzat, ez daude Euskal Herria, Britainia eta Ipar Katalunia. Korsika, berriz, Parisen eta “Ile de Beauté” deritzonaren arteko indar-harreman historikoan kokatu behar da. Alsaziaren kasua apartekoa da. Adostasun politikoa identitatea bezain indartsua da.

EAJ-PNBk sarritan erakutsi duenez, Konstituzioaren aldaketak tokiko autonomiaren baldintzak sortzen ditu, baina erakundeen autonomia printzipioa onartu barik. “Autonomia” hitza oraindik ere tabua da politikari frantsesen artean, eta “federalismo” hitzarekin ere gauza bera gertatzen da.

Laburtzeko, esan daiteke Errepublikak erakunde-mailako bilakaera leunak soilik onartzen dituela, Frantziako lurraldearen batasuna zalantzan jartzen ez duten bilakaerak.

Hau da, Euskal Herria paradoxa baten menpe dago: abertzalerik gabe ezin daiteke erakunde-mailako bilakaerarik egon, baina abertzaleen errebindikazioak susmagarriak dira Estatuko agintarientzat.

BATERA Euskal Departamenduaren proiektuaren inguruan mobilizazio handia egin arren, eta ABk eta EAJ-PNBk erakunde-mailako eredu bitxiak eta deszentralizazioarekiko bateragarriak proposatzeko ahalegina egin badute ere, Frantziako gobernuak ez die kasurik egiten geure errebindikazioei.

Egoera larria da, gazteriaren eta mugimendu abertzalearen zati bat indarkerian erortzeko arriskua dagoelako.

Geure errebindikazioak gaurkotzeko eta mobilizazio-modu berriak asmatzeko garaia iritsi da, betiere, eremu demokratikoaren eta baketsuaren barruan, Iparralderen ahotsa Parisen entzuteko.

2. Irakaspenak ateratzeko aukera ematen duen testuinguru berria:

Testuinguru berri hori Iparraldean axolagabe utzi ezin duten bi esperientziaren inguruan egituratzen da: Korsikan Autonomia Estatutuari buruzko erreferendumak izandako porrota eta IBARRETXE lehendakariaren proposamena.

Korsikarako Estatutu berriaren esperientzia.

Korsikan 2003ko uztailean autonomiari buruz egindako erreferenduma alde gutxirekin galdu zen eta horrek ezegonkortu egin ditu Estatutu berriaren aldeko konpromisoa hartu zutenak, hau da, Korsikako nazionalistak (autonomistak eta

independentistak) uharteko ezkerreko nahiz eskuineko zinegotziak, Frantziako alderdi politikoak eta RAFFARINen gobernua, baita J. CHIRACen gobernuak.

Erreferendum horrek porrot egitearen arrazoiak edozein izan arren, horren bidez Frantzian lurraldearen zati baten autonomia planteatu da lehenengoz. Korsikako Estatuaren proiektuak, anbiguotasunak izan arren, irekita utzi zuen itxaropenerako atea. Lubakia ireki du, hori oraindik txikia izan arren, Errepublikaren uniformetasunaren dogman, eta etorkizunean kontuan hartu beharko da.

IBARRETXE lehendakariaren proposamena.

Lehendakariaren ekimenak, abertzaletasunaren aurkako eraso sistematikoaren testuinguruan, etapa berria ireki du Euskal Autonomia Erkidegoko normalizazio politiko eta instituzionalerantz.

Proposamenaren berritasun nagusia subiranotasunaren eta lurraldetasunaren ikuspegi pragmatikoa da. Iparraldeak eta Nafarroak euren lekua dute IBARRETXEren proposamenean. Iparralderi dagokionez, berebiziko aukera eskaintzen dio Euskal Herria Europar Batasunaren barruan eraikitzeko eginkizuna errebindikatzeko. **IBARRETXE lehendakariaren proposamena berebiziko aukera da Hegoalderako, baina baita Iparralderako ere.** Hori bi baldintza hauekin:

- Lehendakariaren proposamena Bidasoaren iparraldean azaltzen eta sustatzen jakitea, batez ere tokiko zinegotzien artean eta gizarte zibilaren barruan.
- Iparralderako ditugun erakunde-proiektu instituzionalak (eta ekonomikoak, kulturalak, azpiegiturenak...), mugaz gaindiko dimentsio batean ez ezik, benetan nazionala eta Europarra den dimentsioan txertatzea.

Azken batean, IBARRETXE lehendakariaren proposamenak arnasa berria ematen dio Iparraldean abertzaletzat dugun konpromisoari, Lizarra-Garaziko akordioek egin zuten bezala. Abertzaleok geure lehentasunak egituratu behar ditugu, proposamen horri dagokionez.

XXI. mendeko lehenengo hamarkada honetan, Iparralderen etorkizun politikoak errealismorako deia egiten du, baikortasunerako deia baino gehiago. Gaur egun, Iparralde erakunde-mailan garatzeko moduko egoera dago.

Iparralderen benetako erronka bikoitza da:

- orain dela 20 urtetik hona egunetik egunera pilaturiko lorpenak kapitalizatzea (antolaketa-eskema, Eurocité, Garapen Kontseilua, Departamenduaren aldeko mugimendua, toki-garapena, Estatuarekiko nahiz kolektibitateekiko hitzarmen berezia, euskararen garapena irakaskuntzan...);
- ekintzako eta mobilizazioko modu berriak bilatzea, geure errebindikazioak biztanleen aurrean legitimatzeko eta geure proposamenaren sinesgarritasuna Pariseko agintarien aurrean indartzeko.

Horixe da abertzale guztien erronka, eta EAJ-PNBk gogor ekingo dio lanari.

3. *Departamentu baten errebindikaziotik jatorrizko eredu instituzionalaren negoziatziora igarotzea:*

Oraingoak ere begien bistakoa da arazo instituzionalak ez dituela beste errebindikazio batzuk ezkutatu behar; gainera, ez du EAJ-PNBk hausnarketarako, proposamenak egiteko eta ekintzarako duen gaitasuna geldiarazi behar. Hala ere, “borroka instituzionalak”, euskararen aldeko borrokarekin gertatzen den bezala, Euskal Herriak bizirik irauteko eta Iparraldean euskal identitatea kontserbatzeko borroka islatzen du.

Hauteskunde-errealismoaren eta boluntarismo politikoaren artean, proiektu instituzionalerako lekua dago; proiektu hori berezia izango da eraikuntza nazionalaren eremuan, eta gainera, Frantziako Errepublikan egotearekiko bateragarria izango da. Horixe da EAJ-PNBren benetako erronka.

Iparralderako proiektu instituzionala hiru uste osotan oinarritzen da:

- Edozein proposamen seriok aurrera egiteko, abertzaleen konpromisoa behar da.
- Edozein proposamen serio sinesgarria izateko, tokiko stablishment deritzonaren laguntza eta baliabide sozio-ekonomikoen atxikipena behar da.
- Edozein proposamen serio gauzatzeko, beharrezkoa da Errepublikaren berrikuntza sakonean oinarritzea.

Autonomia instituzionalaren aldeko apustua.

EAJ-PNBk seguru daki Frantziako estatuaren ikuspegitik muga instituzionala autonomia dela, eta hori onargarria da oraingo egoera ikusita. Epe ertainerako soluzio horrek Euskal Herriak Europar Batasun handituan izan ditzakeen bilakaera anitzak aurreikusteko aukera ematen digu.

“Frantziar” erako deszentralizazioa ez da autonomiaren sinonimoa, eta gutxiago autogobernuaren sinonimoa. Hala eta guztiz ere, izena onartu barik, 1958ko Konstituzioaren aldaketak eta Korsikarako Estatuaren ahaleginak baldintza egokiak sortu dituzte autonomia instituzionalerako jatorrizko formetara iristeko.

Autonomiak (arauzkoa edo legegintzazkoa) alde handiz gaintzen du deszentralizazioa.

Iparraldek alderdi instituzionalean esperimentuak onartzen dituen eredu politikoa eskuratu ahal du.

Iparraldeko “Euskal Herriko Lurralde Kolektibitatearen” proiektua.

Iparraldek onarpen instituzionala, benetako eskumenak (arauzko eta legegintzako gaietan), benetako aurrekontu-gaitasuna eta Europaren eremuan Hegoalderekiko harremanak garatzeko eskubidea behar ditu.

Iparraldeko “Euskal Herriko Lurralde Kolektibitatea” oinarritzko autonomia-beharrizan horren ondoriozkoa da:

- Departamentu eta eskualde bateko aginte eta baliabide guztiak biltzen dituen erakunde desentralizatua eta bakarra.
- Hauteskunde-barrutien aldaketa, Iparraldean oinarrituz.
- Hizkuntza-politikaren arloko autonomia.
- Mugaz gaindiko lankidetzaren arloko autonomia, EA Erekin eta Nafarroarekin Mugaz Gaindiko Erakunde Publiko batean parte hartzeko.

- Aurrekontu-autonomia erreal, bertako finantza-bermearekin.

Bigarren etapan, eta Hegoalde izandako bilakaeraren eta Europan sartzeak dituen ondorioen arabera, “Euskal Herriko Lurralde Kolektibitateak” benetako autonomia baterako bilakaera izan dezake, Frantziako estatuarekin negoziaturiko autonomia iraunkorra; Mugaz Gaindiko Erakunde Publikoa, berriz, Europako hauteskundeetarako barruti bakarrerako euskarria izan daiteke eta nazio-mailako proiektuen ardura izango du (Euskal Selektzioa, Europako Fondoen kudeaketa, Europako erakundeetako kontsulta-ahotsa...).

Honetan ere, uste dugu eraikuntza nazionala apurka-apurkakoa izan daitekeela:

- Errepublikarekin apurtu barik, apurka-apurkako autonomia errealistaren bidez.
- Lurralde bakoitzeko (EAE, Nafarroa eta Iparralde) biztanleriaren nahia eta berezko erritmoak errespetatuz.
- Europako ikuspegiari lehentasuna emanaz.

Estrategia lortzeko, Errepublikan identitate handia duten gainerako Herrien eta Eskualdeen errebindikazioekin batera joan behar da (esate baterako, Eskualde eta Herri solidarioen Federazioaren bitartez).

3.4.7.- Alderdien Batzorderako proiektua

Sarrera:

Indarkeriaren eta blokeo nahiz ezegonkortze politikora bideraturiko estrategien helburua euskal estrategia nazional komuna egituratzen eta garatzen ez uztea da. Ondo dakite, denok dakigu, indarkeriarekin ezin dela abertzaleon arteko ekintza bateraturik eta lankidetzarik egon. Hala eta guztiz ere, etsipena eta fatalismoan erori beharrean, oraingo blokeo-egoera gainditzeko baldintzak sortzeko konpromiso sendoa adierazi nahi dugu.

Abertzaleon arteko oinarrizko adostasuna lortzeko (goian aipaturiko baldintzetan oinarrituz), EAJ-PNVk Alderdien Batzordea sortzea proposatzen du. Horrela, EAJ-PNVren III. Batzar Nagusiak 2000ko urtarrilean onetsitako Txosten Politikoa jasotako Alderdien Batzordea sortzeko proposamenari funtzionaltasuna eta edukia eman nahi diogu.

Alderdien Batzordea sortzeari buruzko ikerketarako, lehenengo eta behin, ondo zehaztu behar dira oinarriak edo “zer” deritzona (zehaztapena, printzipioak, helburuak, funtzionamendua eta eraketa), eta gero, proiektuak edo “zertarako” deritzona (Alderdien Batzordeak bultzatzeko moduko ekimenak eta proiektuak).

≡ OINARRIAK.-

1. Alderdien Batzordearen zehaztapena:

2000ko Txosten Politikoa jasotako “4.3.6. Oharrak” (42-43. orr.) puntua hartzen da erreferentziatzat.

Alderdien Batzordea Euskal Herria erabakitzeko eskubidea duen subjektu politikoa dela usten duten indar politikoen arteko lankidetzarako organo egonkorra da; denen arteko diagnostikoetan oinarrituz, Euskal Nazioaren eraikuntza apurka-apurka eta eraginkortasunez sustatzeko behar diren proiektu guztiak diseinatu, proposatu eta garatuko ditu.

2. *Printzipioak:*

2000ko Txosten Politikoa jasotako “1.5. Prozesuaren oinarriak” (50-51. orr.) puntua hartzen da erreferentziatzat.

Giza eskubideekiko konpromisoa.

Euskal Herriaren subiranotasunarekiko eta erabakitzeko eskubidearekiko konpromisoa.

Euskal Herriaren lurralde osotasunarekiko konpromisoa (lurraldeen berdintasun politikoa eta elkartzeko borondatean oinarrituz, eta ez anexioan oinarrituz).

Aniztasunarekiko konpromisoa.

Bide demokratikoak bakarrik erabiltzeko konpromisoak.

3. *Helburuak:*

2000ko Txosten Politikoa jasotako “1.4. Prozesu politikoaren oinarriak” puntua (49-50. orr.) hartzen da erreferentziatzat; gainera, bakea, indar politiko guztien legalizazioa eta eraikuntza nazionala erantsi dira.

Bakea, giza eskubide guztiak pertsona guztientzat.

Indar politiko guztien legalizazioa.

Kontzientzia eta eraikuntza nazionala.

Subiranotasuna eta autodeterminazioa.

Lurraldetasuna eta subjektu nazionala.

Gizarte integratua: kulturako eta adostasuneko komunitatea.

4. *Osaketa eta funtzionamendua:*

Alderdien Batzordearen osaketa Euskal Herriko indar politiko guztiei irekita dago.

Funtzionamendua, berriz, garatu beharreko proiektuen inguruko adostasunean eta Batzorde Betearazle Iraunkor baten lanean oinarritu beharko litzateke.

⇒ PROIEKTUAK.-

Alderdien Batzordea eratu ondoren, EAJ-PNVk helburuak lortzeko proiektuen ekarpena egingo du bertara, eta, besteak beste, honako hauek proposatuko ditu:

Helburuak	Proiektuak
* Bakea, funtsezko eskubide guztiak pertsona guztientzat	- Giza eskubide guztiak defendatzearen aldeko konpromisoa eta ekintza hitzartua - Biktimen integrazioa
* Pertsonen eta alderdi politikoen bazterkeriarik eza	- Baterako lanerako protokoloa
* Kontzientzia eta eraikuntza nazionala	- Udalbiltzaren proiektuaren gaurkotzea
* Subiranotasuna eta autodeterminazioa	- Herri-kontsultari buruzko legea, arlo publikoetan herritarren partaidetza sustatzeko
* Lurraldetasuna eta subjektu nazionala	- Euskal Herria ordezkatzeko erakundeak sortzeko proposamena
* Gizarte integratua: kulturako eta adostasuneko komunitatea	- Alderdien arteko elkarriketa-prozesurako eskaintza

3.4.8.- Udalbiltza

1999ko irailaren 18 hartatik hona gertaera eta jazoera asko bizi izan ditugu. Egun horretan, Udalbiltza sortu zen, Euskal Herriko lehenengo Erakunde Nazionala (udalerrietan oinarritua), eta hori Euzkadiko udalerrri eta hautetsi guztiei zabalik gelditu zen. Euskal Herri osoko 1.800 hautetsik, alkatek eta zinegotzik onartu eta eratu zuten, Bilboko Euskalduna jauregian.

- Udalerrietan oinarrituriko erakunde hau koherentea da abertzaletasunaren udal-tradizioarekin; izan ere, geurea “kalera eta hiritarregana atxikitako” abertzaletasuna da, euskal hiritar guztien zerbitzuan dagoena; Erakundeak konpromisoa hartuta dauka geure Herriaren politikarekin, ekonomiarekin, kulturarekin eta gizartearekin, geure historiaren barruko beste une garrantzitsu batzuetan agerian gelditu denez.
- Udallerria Erakundea da eta sustrai sendoa dauka Euskal Herriko lurralde guztietan. UDALBILTZAk, horrenbestez, Euskal Herriaren lurraldetasuna adierazten du; Euskal Herria bi estatutan kokaturiko hiru komunitatetan zatituta dago, eta gaur egun, gainera, desoreka sozial eta ekonomiko handiak ditu eta konpentsazio gutxikoa da.
- Erakunde demokratikoa eta guztiz legitimoa da. UDALBILTZA osatzen duten alkateek eta zinegotziek sufragio zuzenaren bidez aukeratuta daude, eta hiritarrak ordezkatzeko eta Euskal Herrian oinarrituriko era guztietako proiektuak garatzeko legitimitatea dute.
- Erakunde modernoa da. Izan ere, gero eta hurbilagoa eta irekiagoa den Europan, komunitate naturalek eta hiritarrek bertako muga artifizialen gainetik garatzeko joera dutela kontuan hartuta, euskaldunok ere Herritzat garatzeko eskubidea daukagu.

Azken 25 urte hauetako esperientzia ikusita (etengabeko urratzeak, Hegoaldeko bi Erkidegoen eta Iparraldeko lurraldeen arteko harremanetarako nahiz lankidetzarako aurreikuspen konstituzionalen garapenik eza, azken lurralde horiek onarpen administratiborik

ere ez dutela aintzat hartuta), inoiz baino beharrezkoagoa da geure erakunde nazionalak sortzea eta sustatzea.

Udalbiltzaren helburuak honako hauek dira 1.- Udaletan oinarrituz, Euskal Herriko lurralde guztietako hiritarrak harremanak edukitzea eta ongizaterako eta Herritzat garatzeko bidezkoztat nahiz positibotzat jotzen dituzten ekimenak eta proiektuak garatzea; 2.- Euskal Herriko hiritarren eskubide politikoak, hizkuntzakoak, kulturalak eta zibilak sustatzea. Hain zuzen ere, Udalbiltzaren jarduketara-lerro nagusiak honako hauek izango dira:

atxikipen askean oinarrituz, zinegotzi independenteen edo beste alderdi politiko batzuetako zinegotziak sartzeko bultzada ematea, zinegotziok Udalbiltza sortzeko printzipio etikoak eta politikoak errespetatzen eta horiekin bat egiten dutenean;

UDALBILTZAK barruan eta kanpoan duen ordezkaritza handitzea, erakundearen eta euskal administrazioko beste erakunde batzuen arteko harremanak eta akordioak sustatuz;

zenbait arlo estrategikotan programa bateratuak abiatzea eta finkatzea, esate baterako, merkataritzan, ingurumenean, turismo-sareetan, kirolean, komunikabideetan (tokiko irrati- eta telebista-instalazioak) eta euskararen arloan (ikasleen trukeak, sare teknologikoak eta telematikoak,...), Euskal Herriko lurraldeen eta udalerrien arteko harreman-sareak sustatzeko.

Proiektu honen birtualtasunean, beharizanean, legitimitate demokratikoan, modernotasunean eta izaera positiboan uste osoa daukagu.

Geure Herriak bere historia eta borondatea dauka, eta errealitate kulturalak, hizkuntzakoak, lurraldekoak eta sozialak ditu (komunak eta osagarriak); gainera, ordena guztietan integratuago dagoen herri baten eraikuntza-beharrizanak handiak direla dakigu.

Geure burua errealitate horren barruan kokatu eta, ezagupenean, elkarrekiko errespetuan eta pertsonen nahiz lurraldeen atxikipen askean oinarrituz, gero eta harreman estuagoak, elkartasun handiagoa, menpekotasun txikiagoa eta etorkizunaren jabetza handiagoa duen komunitate politikoa egituratu nahi dugu.

Printzipio gizatiarrekin eta pertsonaren eskubideen nahiz askatasunen defentsarekin dugun konpromisoa zalantzarik gabea da. Pertsonaren bizitzarako eta duintasunerako eskubidea da errealitatea, politika, gizarte eta helburu nahiz proiektu estrategikoak interpretatzeko daukagun moduaren euskarria. Indarkeria eta eraikuntza nazionala bateraezinak dira: bitartekoak eta helburuak ardatz berak elkartzen ditu: ekintza politiko demokratikoa.

Hiritarren borondatea askatasunez eta demokratikoki gauzatzeko, marko mugiezinen ezarkuntza eta derrigorrean ezarritako proiektuak onartezinak dira. Geure herriko identitate nazional guztiak onartzeko eta errespetatzeko, ezinbestekoa da euskal hiritarrek Euskal Nazioaren subjektua osatzen dutela diogen oinarritzko printzipio demokratikoa errespetatzea.

Euskal Herriaren Autodeterminazio Eskubidea eskubide kolektiboa eta demokratikoa da, eta komunitate batek askatasunez aukeratzen duen araubide politikoa edukitzeko askatasuna adierazten du.

Banakako eta taldeko eskubideak osagarriak dira. Elkarri lotuta daude eta batzuk besteak barik nekez ulertzen dira. Banakako eskubideek ezin dituzte taldeko eskubideak ukatu; era berean, taldeko eskubideen eta horien sublimazioaren izenean ere ezin daitezke pertsonaren funtsezko eskubideak urratu.

Helburua, horrenbestez, banakako eta taldeko eskubideen arteko erlazioa eta berme juridikoak nahiz politikoak zehazteko prozedura demokratikoak ezartzea da.

Seguru dakigu, egitura estatalek mehatxuak egin eta oztopoak jarri arren (horiek mesprezatu edo minimizatu gabe), eurok demokratikotzat hartzeko, geure herriaren adierazpen askerako eta demokratikorako homologazio politikoari eta juridikoari bidea eman beharko diotela.

3.5.- EUROPAR BATASUNA. EUROPAKO PARTAIDETZA ETA NAZIOARTEKO PRESENTZIA

3.5.1.- Aurrekariak

Mendeetan zehar, Europa batzeko alferreko ahaleginak egin dira, armen indarrean oinarrituz, baita Europa batuaren hobariei buruzko posizio doktrinaletan oinarrituz ere, horiek II. Mundu Gerra amaitu arte ez baitziren akordio formaletan gauzatu.

Lehenago, XX. mendeko gerra arteko aldirian, eta Europako nazio berrien sorreraren garaian, abertzaleok pozez hartu genituen proposamen europazale federalak formulatu ziren. II. Mundu Gerraren garaian eta horren osteko urteetan, Europar Batasuneko mugimendurik garrantzitsuenak oinarri kulturalen oinarrituz sortu ziren, eta hori hobeto egokitzen zen abertzaletasunak defendaturiko Herrien Europaren ulermenera.

Hagako 1948ko biltzarrak, bertako presidentea Winston Churchill izanik, Europako Mugimendu Federala sortu zuen, estatukideen oinarri juridikoan euskarrituz. Une horretatik aurrera, Europa egituratzearen protagonismoa estatuen esku gelditu zen.

Oraingo Europar Batasunaren aurrekari formala 1951koa da; urte horretan, ikatza eta altzairua sortzeko merkatu bakarra abiatu zen, Frantziak eta Alemaniak sinatuta; horren helburua, berriz, XX. mendean Kontinentea hondatu zuten gerrak eta zatiketak etorkizunean ekiditea izan zen. Horrela, Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Elkartea (IAEE) sortu zen, eta, 1954an, Italia, Belgika, Luxenburgoko eta Herbehereak bertan sartu ziren, seiren taldea osatuz. Talde horrek, 1957an, Erromako Ituna sinatu eta Europako Elkartea sortu zuen, European merkatu bakarraren sorrerarentz aurrerapausoak emateko.

Etengabeko handitzeak, Europako Parlamenturako hauteskunde zuzenak (1979an, sufragio unibertsalean), Europako 1986ko Akta bakarra, Maastrichteko nahiz Amsterdameko hitzarmenak (90eko hamarkadan) eta hitzarmen horien etengabeko berrikuntzak aurrerapauso garrantzitsuak izan ziren, Batasun ekonomikorako eta politikorako apurka-apurkako prozesuan. Hala eta guztiz ere, estatuek aukeraturiko metodoak, Gobernu arteko Konferentziak, agortze-sintomak zituen. Nizan 2000ko abenduan izandako Gailur etsigarria inflexio-puntua izan zen, eta bertan, argi eta garbi gelditu zen estatuen interesak Batasun osoaren interesen aurretik jartzea gainditu ezineko oztopoa zela, Europako Batasun politikorako bidean, batez ere berrikuntzak eta agente-banaketa berria (25 estatu edo gehiago zituen Batasunarentzat) egin behar ziren une batean.

Hau da, estatuek eurenez ez ziren gauza izan agintea nazioz gaindiko egituren mesedetan kentzen zien proiektua planifikatzeko. Urtebete geroago, 2001eko abenduan,

Laekeneko gailurrean, estatukideek Konbentzioaren proposamena aurkeztu zuten, “Europar Batasuneko erakundeak goitik behera berritzen zituen proiektu konstituzionala lantzeko eta, horrela, handitzearen txertaketa segurtatzeko...”. Proiektua foro edo biltzar batek idatziko zuen, Konbentzioa izenekoak, eta horrek Oinarrizko Eskubideen Gutuna ere idatzi zuen, Filadelfiako 1787koa gogoratuz (AEBko lehenengo konstituzioa egin zuena).

Konbentzioaren aldeko apustua egiten zen, proposamen politikoei buruzko eztabaida askeagoa eta menpekotasun nahiz zurruntasun gutxiagokoa (estatuen arteko eremuetan baino) ahalbidetzen zuen plataformatzat; horrek, gainera, gaitasun handiagoa izan zuen kanpoko eragileak praktika instituzionalera erakartzeko eta horiek bertan sartzeko.

108 kidek osaturiko Konbentzioak (gubernuen, estatueta parlamentuen, Europako Ganberaren eta Batzordearen ordezkariak) lanak amaitu eta, gero, Gubernuen arteko Konferentziak berreskuratu zuen testua, hori Erromako Gailurrean (2003ko abenduan) onetsi ahal izateko. Etorkizuneko Konstituzio Itunak EBk orain arte (azken mende erdian) egindako itun guztiak ordeztuko ditu.

3.5.2.- Konstituzio Proiektua

Europa eraikitzekeo prozesu luzean eta zailean (merkatuaren batasunerantz eta jarduera ekonomikoaren liberalizaziorantz bideraturiko alderdiak nagusi izan dituen prozesua), Konstituzioa sortzea jauzi kualitatiboa da eta, Europako diru bakarraren ezarkuntzarekin batera, aurrerapauso handia da Europa instituzionalizatzeko fasean.

Konstituzioaren zirriborroa, bestalde, eskumen gehigarri batzuk dituen (estatukideek eraxkitako eskumenak, alderdi anitzeko azpijokoan, aginte ahalik eta gutxien lagatzeko) Batasunean euskarritzen da, eta estatuok horren barne-eraketa konstituzionala egiten dute.

Konstituzioaren zirriborroaren zati handi batean orain arteko hitzarmenetan ezarritakoa berriro antolatzen bada ere, eskubideen adierazpena eta Konstituzio Proiektuak egituraturiko aginte-banaketa baterako bidea (banaketa hori oraindik ere oso argia izan ez arren) aurrerapauso kualitatiboa da Europako integrazio politikorantz.

Oraingo Konstituzio Proiektua bilakaera-prozesu baten testuinguruan kokatu behar da, eta prozesu horren protagonista nagusiak estatuak dira; era askotako borondateak mihiztatzeko lan konplexua da eta etorkizunean egin daitezkeen aldetetara irekita dago, eta aldaketa horietan hartutako norabidea (erritmoak alde batera utzita) erabakigarria da proiektua zorrotz ebaluatzeko.

Oraindik ez dago europar herririk (“demos” deritzona), Europako herrien nazio- eta toki-identitate desberdinen eta sustrai handikoen eraginez; horren ondorioz, “Konstituzio Itun” hibridoa sortu behar izan da, nazioz gaindiko antolaketa baten eta estatu baten arteko erdibidean dagoena. Hau da, Ituna estatuen artean egiten da gehienetan, eta Konstituzioa orokorrean estatu batek hartzen du.

Horri dagokionez, estatueta gobernuak barruko gaietan kanpoko esku-hartzerik ez egoteko printzipioa errespetarazi nahi dute, kasuan kasuko estatuaren barruko arazoak askatasunez aztertu ahal izateko. Agiriaren barruan “federal” hitza salbuetsita dago, adostasunak lortzeko elkarrekiko emakiden testuinguruan, eta I. artikuluan “Herri” nozioarekin ere gauza bera gertatzen da, eta horrela, sakrifikatu egiten da sortzaileetatik jarauntsitako ondare europazale tradizionala. Hitz horien ordezipenak saiakuntza leungarriak dira eta gobernu

batzuentzat ezerosoak diren nozioak ezkutatzeko balio dute, nahiz eta gainerako estatuek hitzok arazo barik onartu, eragozpen gehiegirik sortzen ez dietelako. Konstituzio Testutik kontzeptuok desagertzeak ezin izango ditu inoiz Europaren kontzientzian sustraituriko errealitate horiek ezabatu.

Oinarrizko Eskubideen Gutunetik herrien autodeterminazio-eskubidea kenduta ere, ez da ahaztuko hori EBko estatuek berretsitako Eskubide Zibilen nahiz Politikoen eta Ekonomikoen, Sozialen zein Kulturalen Itunetako I. artikuluan jasota dagoela.

3.5.3.- Konbentzioari egindako proposamenak

2003ko otsailean, geure Alderdiak agiri bat bidali zion Konbentzioari, eta bertan, Europaren etorkizunari begira egiten ditugun proposamenak daude jasota. Testuan egiten den ibilbide historikoan, ibilbide europazale eta federalista baten adierazpen eta lorpen nagusiak jasotzen dira, eta horrek gure oraingo posizioak egiaztatzen ditu.

Konbentzioari bidalitako proposamenetan, 1949an Parisen (diplomazia-talde baten aurrean) formulaturiko “Agirre doktrina” deritzona gaurkotzen da. Euzkadiko Lehendakariak zioenez, etorkizuneko Federazioa estatuen lagapenean oinarrituz egituratuko zen, hau da, estatuen subiranotasuna osatzen duten aginteen lagapenean oinarrituz; horrenbestez, berak irudikaturiko Euzkadi, aginte autonomiko handiekin, Europako gainerako estatuekiko berdintasunean egingo zen, egitura federal berrian.

Agirian Europa gehiago behar dela diogu, ez bakarrik geure Kontinentearen barruko gatazka armatu gehiagorik ez egoteko eta Europako herrien oparotasuna handitzeko, baita mundu-oreka bidezkoagoa sortzeko ere, bakerantz bideratuta dagoen eta munduan indar hegemoniko bakarra egoteak sorturiko alde bakarreko joerak gainditzen dituen oreka.

Oinarrizko eskubideen kapituluan, herrien Autodeterminazio Eskubidea onartzeko eskatzen dugu. Era berean, Batasunaren barne-handitzea ahalbidetzen duten mekanismoak sortzeko proposamena egiten dugu, Batasunean kide berriak etengabe sartzeko aukera ematen duen eta legez ezarrita dagoen testuinguruan.

Agirian nazioz gaindiko Europa federalaren aldeko apustua egiten dugu, etorkizuneko Federazioaren barruko gobernu-maila desberdinetan partekaturiko subiranotasunen printzipioa ezartzeko eta, horrela, Batasunaren erakundeetan geure presentzia bermatzeko. Subsidiarioritasun-printzipioa eskatzen dugu, printzipio hori hiritarrarengandik hurbilen dagoen mailan gauzaturiko ekintza publikotzat ulertuta, lan eraginkorragoa egin ahal izateko.

Batzordea Batasuneko benetako gobernu izatea nahi dugu; halaber, bertako Presidentea Europako parlamentuak aukeratzea nahi dugu, betiere Batzordearen erabakiarekin, Europako hauteskudeen ostean.

Europako parlamentuak, hiritarren ordezkartzaren legitimitate demokratikoaren arabera, aginte legegileak eta kontrolekoak indartu beharko lituzke.

Gure ustez, Batasunaren Kontseilua Batasuneko gorputz legegilearen barruko bigarren Ganbara bihurtu beharko litzateke apurka-apurka, beto-eskubidea ezabatuz, gehiengoaren sistema ezarrita.

Europako arkitektura berriaren egiturarako proposamenak egin ondoren, agirian hauxe esaten genuen:

“Planteamendu hauek itxuraz ez dira errealistak gaur egun; baina, hiritarren helburuak eraginkortasunez bete eta mundu osoan errespetua nahiz eragina duen Europa nahi badugu, ausardia handiagorekin jokatu beharko da, bai egitura estatal zurrinak eta inertziazkoak gainditzeko eta bai maila anitzeko nahiz partekaturiko subiranotasuneko eremu demokratikoagoa eta orekatuagoa sortzeko.”

3.5.4.- Konstituzio Proiektuaren alde onak

Batasunaren Konstituzio Proiektuak eragin argia dauka estatuen subiranotasunean; izan ere, berezko nortasun juridikoa eskuratzean, EBtik sortutako zuzenbidea (Konstituzioak emandako eskumenen eremuan sortutakoa) estatuen barruko Zuzenbideari nagusituko zaio.

Halaber, nortasun juridikoa hartzean, nazioarteko harremanak eta merkataritzako akordioak ezar daitezke, estatukideen izenean. Onarpen juridiko-politiko horrek eskumenen eremuan subiranotasuna duen erakunde berria sortzen du; erakunde hori estatuetako erakundeekin eta, praxian, legegintzako eskumenak dituzten barne-erakundeekin partekatzen du, eta hori lehen estatuek soilik gauzatzen zuten.

Konstituzio Proiektuak transferentzia gehiago esleitzen ditu estatuetatik Batasunera, eta estatuen beto-eskubidea ezabatzen du zenbait ataletan.

Gehiengoan bitartez (batez ere, kualifikaturiko gehiengoak) erabakiko diren gaien kopuruak gorakada handia izan du, eta aho batez hartutako erabakiak kanpo-politikari, zergei eta gizarte-politikaren barruko alderdi batzuei buruzko gaietan soilik mantentzen dira. Erabakiak gehiengoan bidez hartzeak argi eta garbi agertzen du Europaren eraikuntzak behar duen subiranotasun-lagapena.

Europako parlamentua indartu egiten da, Europako Kontseiluarekin batera erabaki beharreko gai-kopurua apur bat handituz, eta beraz, Europako lege ia guztiek horren aldeko erabakia beharko dute.

Kanpo Arazoetarako Ministroa aukeratzea (Batzordeko Lehendakariordea) lagungarria izango da EB munduan ikuskatzeko eta atzerrian politika bateratua gauzatzeko. Indartutako lankidetzeari esker, urrunago joan nahi duten herriek aurrerapausoak eman ahal izango dituzte, esate baterako, kanpo-politikari eta defentsari lotutako ekintzetan.

Europako hiritarrek legegintzako ekimen herrikoiak sustatu ahal izango dituzte, Batasuneko herrien artean gutxienez milioi bat sinadura batuta.

3.5.5.- Konstituzio proiektuaren alde txarrak

Lehen esan dugunez, Konstituzioa estatukideen subiranotasunean euskarritzen da, eta horiek Batasuna euskarritzen eta gaitzen dute.

Konstituzio Proiektuak ez ditu kontuan hartzen estatalak ez diren errealitate kulturalak eta nazionalak (identitate-sentimendu sakona duten hiritarrez betetako errealitateak), eta errealitate horiek estatuen barne-antolamenduen esku uzten ditu.

Estatuak gabeko nazioek edo legegintza-gaitasuna duten erakundeek ez dute Europako erakundeetan parte hartzeko bide egokirik, euren eskumenen eremuan eta euren interesen defentsan.

Terminologia ez da hobetu eta, horrenbestez, “eskualde” hitzaren erabilera ezegokia ekidin da, kasuan kasuko hiritarrek “naziotzat” hartzen dituzten Batasunaren barruko lurralde-erakundeak aipatzeko. “Estatu-Nazio” kontzeptuaren erabilera ideologikoa egiten da, “eskualde” kontzeptuari kontrajarrita.

Legegintza-gaitasuna duten erakundeei ez zaie onartzen Justizia Auzitegian errekurtsioa jartzeko eskubidea, euren eskumenen defentsa bermatu ahal izateko.

Buru biko Presidentzia baten eraketa (Batzordeak aukeratutako presidente bat eta Europako Kontseiluak aukeratutako beste bat) nahasgarria izan daiteke eta luzatu egin ditzake buruzagitza ezaren eta ekintza-batasun ezaren arazoak, Batasunaren barruan.

3.5.6.- Ondorioak

- 1.- Konstituzio Proiektua ez dugu guztiz atsegin, ez abertzaletzat eta ez europazaleztat. Gure ustez, hala eta guztiz ere, Europaren eraikuntza bilakaera prozesu ireki baten barruan kokatu behar da, eta, prozesu horretan, Europarako Konstituzioa egotea aurrerapauso kualitatibo handia da. Batasuna, orokorrean, estatuen Konfederaziotzat mantentzen da, baina gero eta integrazio handiagorako aurrerapausoak ematen ditu apurka-apurka, eta gero eta irekiagoa eta demokratikoagoa da. Aurrerapauso nabaria izan arren, ez da nahikoa.
- 2.- Izaera estatalista nabarmeneko Proiektua denez, estaturik gabeko nazioei eta legegintza-eskumenak dituzten eskualdeei ez die bermerik ematen Europako erakundeetan parte hartzeko, eta gainera, Luxenburgoko Justizia Auzitegira jotzeko aukerarik ere ez da onartzen, EBko arauen aplikazioan auzirik egonez gero. Estatukideek estaturik gabeko nazioak edo beste lurralde-erakunde batzuk gaitzen dituzten neurrian, Batasuneko instituzioek erakundeok eta toki-agintaritzak kontuan hartu beharko dituzte.
- 3.- Alderdiak Europako parlamentua indartzeari, gehiengoz hartutako erabakiak orokortzeari eta subsidiarotasun-printzipioa modu zabalagoan onartzeari buruz egindako proposamenetariko batzuk, oro har, bat datoz Konbentzioak landutako konstituzio-zirriborroan adierazitakoarekin; hala ere, geure proposamenean jasotako helburu federalistak eta erritmoak Konstituzio Proiektuaren testuak proposaturikoa baino harago doaz.
- 4.- Oinarrizko Eskubideen Gutuna Konstituzio Testuan jasotzeak oinarrizko eskubide batzuk ematen ditu, eta horiek batasuneko hiritarrentzako eta kultura desberdinetarako bermea dakarte. Agintekeriazko jarrera iraunkorrak dituen estatu batean, adibidez, Espainiako estatuan, Eskubideen Gutuna (juridikoki loteslea) Konstituzio Proiektuaren alderdi nagusienetarikoa da. Oinarrizko Eskubideen Gutuna sartzeak bermeak eskaintzen ditu Batasuneko demokraziaren, subsidiarotasunaren, aniztasun kulturalaren, hizkuntza-aniztasunaren, giza-eskubideen eta gutxiengoak babestearen arloan.

- 5.- Espainiak gogorren defendatu dituen proposamenak, izan ere, mugen aldaezintasuna bermatzeari eta konstituzio-zirriborrotik “Herri” hitza ezabatzeari buruzkoak izan dira. Estatuaren ahultasuna adierazten du horrek: barne-kohesioko proiektu politikorako borondateak erakartzean arrakastarik izan ez duen eta barruko arazoak konpontzeko Europari laguntza eskatzen dion estatu baten ahultasuna.
- 6.- Zirriborroaren testuak ez du berariaz jasotzen estaturik gabeko nazioentzako Autodeterminazio Eskubidea; hala eta guztiz ere, kontzeptu hori inplizituki onartuta dago, eta, horren arabera, estatukide bakoitza Batasunean sartu edo bertatik irten daiteke, ezarritako balioak errespetatuz. Hau da, sezesio-eskubidea jasota dago eta horrek zabalik uzten du barne-handitzearen atea, baina esan behar da beste estatu baten onarpena Europako Kontseiluak aho batez erabaki behar duela.
- 7.- Horri dagokionez, argi dago anitza den eta errealtate estatalak aldatzen dituen Europar Batasun honetan, funtsezko balio demokratikoa hiritarrek demokratikoki adierazitako borondatea dela horiek baitira talde-identitatearen titular bakarrak, eta XXI. mendeko harreman politikoak arautzen dituen printzipioa ere berori da. Europa politikoa ez da geure garapen nazionala, herrizat behar dugun garapena, ekiditen duen oztopoa, baina geure helburu politikoak lortzeko laguntzarik ere ez du ematen; horrenbestez, borroka politikoa geure kausaren aldeko borondateak irabaztean eta pilotzean oinarritu behar da, Europako ajedrez berri horretan gainerako nazio guztiekiko berdintasunean eremu politikoa aurkitu nahi duen Herrikoak izatearen kontzientzia irmoan oinarrituz.
- 8.- Europar Batasuna bezalako identitate anitzeko eremu berriaren eraketa finkatzen joateko, beharrezkoa izango da berori osatzen duten herrien aniztasuna eta borondatea errespetatzea, gero eta elkarmenpekotasun handiagokoa den barne-harremanetarako eremu politikoan, eta, horren barruan, berdinen arteko lankidetzaren nagusituko da, elkarrekin lotutako eta partekaturiko subiranotasunen eskemaren barruan.
- 9.- Hurrengo urteotan, estaturik gabeko nazioek Europar Batasunean herri txikiak sartzen direla ikusiko dute; herriok, hamarkada askotan Europako eszenatokitik kanpo egon ondoren, eta independentziako aldi laburraren ostean, Aliantzan sartzea lortu dute. Nazio horiek Europar Batasunean sartzea, Batasunaren barruan egoteak ematen dizkien berezko hobariak kontuan hartuta, eragileztat erabili behar dugu Europa bidezkoago eta demokratikoago baten alde borrokatzen jarraitzeko eta, horrela, nazio guztiok bertan eroso egon ahal izateko.

3.6.- NAZIOA, GIZARTEA ETA KULTURA ERAIKI

3.6.1.- Integrazioa eta aurrerakuntza soziala

Europako gizarte aurreratuen ezaugarri nagusienetarikoa bat XX. mendeko bigarren erdian gizarte-babeseko sistema konplexua osatzea izan da, eta sistema horri “Ongizate Estatua” esaten zaio; hori lortzeko, beharrezkoa da hiritarrei eskubide sozial batzuk eta, horrenbestez, Estatutik prestazio ekonomiko jakinak nahiz zerbitzu sozial batzuk jasotzeko eskubidea onartzea.

Ongizate Estatuaren inguruan, demografiarekin, finantzekin eta biztanleriarekin lotutako arazo handiak mugitzen dira gaur egun; hala eta guztiz ere, gure Alderdiak berretsi egiten du ongizatearen osaketa-printzipioak mantentzeko eta egokitzeko konpromisoa.

Hori horrela izanik, eta aipatutako ikuspegi merkantilista hutsa baztertuta (ikuspegi horrekin aberastasun-mailek eta gastu sozialean inbertitu beharreko zenbatekoak oreka aurkitu behar baitute, merkatu askeko arauen eta interbentzionismo esklerosigarriaren arteko oreka bera, hain zuzen ere), argi dago egituratutako eta kohesionaturiko gizartea lortzea (aukera-berdintasunean oinarrituriko gizartea, ongizate-maila egokikoa) ona dela bizikidetzarako eta erraztu egiten duela geure herriaren eraikuntza nazionala. Lurraldearen eta gizartearen kohesioa etorkizuneko edozein proiekturen helburu nagusia da, hiritarren eskubide zibilak eta sozialak betetzeko modu bakarra delako.

Beste modu batera esateko, eraikuntza nazionaleko edozein proiektu gauzatzeko, ezinbestekoa da gizartearen eta lurraldearen kohesiorako proiektu koherentea sortzea, horrek hazkunde ekonomikoa eta ongizate soziala eragiteko, aurrerakuntzan oinarrituz. Horretarako, Ongizate Estatu mantentzea bermatzen duten neurriak aurreikusi eta hartu behar dira, Europako beste herri batzuk egiten ari diren bezala.

Horretarako, jasangarritasuneko planteamenduak hartu behar dira oinarritzat; izan ere, arlo publikoak presentzia egokia izan behar du aurrerakuntza soziala euskarritzen duten zerbitzuen horniduran, elkartasuna bermatzeko, eraginkortasunaren eta, batez ere, politika publikoetan nahiz pribatuetan eraginkortasunaren alde borrokatzeko, belaunaldien arteko prestazio-dimentsioaren muga nahiz dimentsio ukaezinak (etikoak eta gizatiarrak) ezartzeko, etab.

Hori dela eta, EAJ-PNVren erronka Ongizate Estatu finkatzea da. Hausnarketa serioa eta sakona ireki behar da, oraingo egoerari eta etorkizuneko itxaropenei buruz, horren mantenamendua bermatu ahal izateko. Urte askotan, EAJ-PNVk proiektu soziala eskaini du Euskal Herriko hiritarren beharrezanean erantzuteko, eta, gaur egun, proiektu horren bilakaerak zerbitzu eta prestazio sozial berriak behar ditu. Horrenbestez, EAJ-PNVk politika soziala gidatzen jarraitzeko ardura hartzen du, gizarte bidezkoago, kohesionatuago eta integratuago batean gehiago sakontzeko eta herri aurreratuetaoak bezalako kalitate sozialeko estandarrak instalatzeko, elkartasunari nazioz gaindiko ikuspegitik begiratuz.

➤ *Oraingo egoeraren azterketa eta itxaropenak:*

Atal honekin hasi baino lehen, gauza bat esan behar dugu babes eta aurrerakuntza soziala ulertzeko moduari buruz. Esan daiteke, oro har, horren barruan honako honetara bideratzen diren politika guztiak sartzen direla: gizartearen barruko desoreka sozialen ezabaketa, belaunaldien arteko elkartasuna, lurralde-kohesioa, zamen eta aberastasunaren banaketa (ikuspegi publikotik begiratuta), errenten birbanaketa (baina ez bakarrik zergen eta finantzen ikuspegitik bakarrik), ongizate-kota handiagoetarako aurrerakuntza, etab.

Hori guztia kontuan hartuta, gehiegizkoa izango litzateke ideia jakinak dituen edozein politikari edo alderdi politikori goian aipatutako edukiarekin lotutako jarduera guztiak zorrotzegi aplikatzea; horrenbestez, ondorengo lerroetan, egoeraren diagnostikoari buruz mintzatzen garenean, Europako panoraman modu konbentzionalean eta estatistikoan kontuan hartzen diren lerroak soilik aipatuko ditugu.

a) Babes sozialeko sistemaren erronkak.

Epe ertainean eta luzean babes sozialeko sistemetan eta, batik bat, horien finantziazioan eragin zuzena izango duten faktore batzuk daude: biztanleriaren zahartzea, inmigrazioaren fenomenoak, enpleguaren urritasuna edo beharrian sozial berrien sorrera (bazterkeria soziala, pobrezia nahiz desoreka sozialeko egoerak, familia barruko eta laneko bizitzaren adiskidetzeta, haurtzaroren babesa, etab.).

Pobrezia eta, orokorrean, bazterkeria soziala fenomeno ezkutua da eta hori ezabatzea ez da erraza; beraz, beharrezko baliabideak bideratu beharko dira halako egoerak arintzeko edo ezabatzeko.

Halaber, konpondu gabeko beste erroka handi bat dago oraindik, hain zuzen ere, gazteek bizimodu independentea egiteko dituzten zailtasunak, gazteok baliabide ekonomikorik ez dutelako edo lana nahiz etxebizitza lortzeko arazoak dituztelako, batez ere.

Horri dagokionez, azken urteotan laneko eta familia barruko bizitza adiskidetzeko beharrian berriak planteatu dira. Familia-eredu berriak sortu dira, jarraibide tradizionalatik urrun dauden ereduak, eta familiak orain arte bereganaturiko funtzionaltasun asko galdu egin dira; horren eraginez, administrazioek gastu handiagoa egin behar dute familia-politiketan, jaiotza-tasa sustatzeko eta adineko pertsonak seniderik hurbilenekin batera bizitzeko.

b) *Babes sozialeko gastuaren ondorioak.*

Faktore horiek guztiek eragin zuzena dute babes sozialean orain eta, batez ere, etorkizunean egin beharreko gastuan.

Horri dagokionez, pentsioetan egindako gastuak eragin berezia dauka. Horrela, esate baterako, 1999an EBn pentsioetan egindako gastua BPGren %12,7koa izan zen. Zahartzaroko pentsioak izan ziren ugariak, guztizkoaren %75 baino apur bat gutxiagorekin, eta joera orokorrean eragin handia izan zuten. Zahartzaroko pentsioen benetako hazkunde erregularrak, biztanleria gero eta zaharragoa izatearen ondoriozkoak, berorrek pentsioen gastu osoan eta gastu orokor osoan duen proportzioa handitzea eragingo du; horren eraginez, BPGren hazkundera etorkizunean agian pentsioetan egindako benetako gastuaren hazkundera batez bestekoa baino txikiagoa izan daiteke (esate baterako, 90eko hamarkadaren hasieran, Finlandiak atzerakada izan zuen aldi horretan, pentsioetan egindako gastuak urtero %4,5eko hazkundera izatearen ondorioz).

Planteamendu hori kontuan hartuta, beharrezkoa da aurreikuspen sozialeko eredu berrien aldeko apustua egitea, eta aurreikuspen hori titularitate publikoarekin loturiko Gizarte Segurantzako sistemakiko osagarria izan behar da; gainera, sistema publikoa nahikoa izan ez arren, aparteko fondoak eskaini behar ditu, sistema epe luzera eraginkorra eta kuantitatiboki jasangarria izateko.

Alde batetik, geure ongizate-sistema lanean oinarritzen da, batez ere. Gizarte-babesean egindako gastua kotizazioetan euskarritzen da, hau da, enpleguan; horrenbestez, enplegurik egon ezean, kotizazioak murriztu eta diru-sarrerak urritu egiten dira, eta, halaber, ordainketa-sistemaren estaldura ere murriztu egiten da, eta horixe da gastu sozialaren euskarri nagusia.

Enpleguaren urritasunak edo aldi baterako enpleguak ere eragin zuzena izan dezake gastu sozialean; beraz, hazkundera jarraitua eta jasangarria lortzeaz gain, elkartasunerako deia egitea ere beharrezkoa izango da, dagoen enplegua banatzeko orduan.

Okupaturiko biztanleria aktiboaren eta biztanleria ez-aktiboaren arteko erlazio positiboa bermatu behar da, kontuan hartuta gaur egun erlazio horrek biztanleria autoktonoaren urritasunaren eragina duela, jaiotza-tasak beherakada handia izan baitu 1980tik hona; horretarako, euskal gizarteak mundu osotik iritsitako inmigrante-kopuru jakina onartu beharko du. Hori dela eta, talde horren integrazioarako neurriak sustatu behar dira, kohesio sozial ahalik eta handiena lortzeko, eta gainera, inmigranteok lan-merkatuan sartzeko heziketa-neurriak ere sustatu beharko dira. Horrek guztiak, jakina, gastu publikoa handitzeko kapitulu berria ekarriko du.

➤ *Kohesio nazionala, justizia sozialaren bermetzat:*

EAJ-PNVk Estatu Sozialaren aldeko apustua eta Ongizate Estatuaren defentsa egin behar du. Hori geure kulturen txertaturik dago, eta elkartasuna, oreka eta kohesio soziala adierazten du. Horri dagokionez, gizabanakoen eskubide formalak nahiz askatasunak ez ezik beharizan sozialei erantzuna ematen dien zerbitzuak ere bermatzen dituen estatu baten apurka-apurkako eraikuntzaren eta demokraziaren aurrerakadaren arteko erabateko banaezintasun historikoa azpimarratu behar da. Aldiz, eskubide sozial horien onarpen hutsak, zerbitzuen murriztapen drastikoarekin, zalantzarik gabeko atzerakada demokratiko handia ekarriko luke.

Ongizate Estatu berriro egituratzeari buruz hitz egiten denean, ikuspegi humanistatik begiratuta, zer planteatzen den ulertu behar da: berriro nahi den sistemaren diseinu orokorra zein den, sistema horrek lortu beharreko helburuak zein diren, zer babes mota eta zein intentsitatekin eskainiko den, finantziario-irizpideak zein diren, erabilitako zuzentasun-irizpideak eta epe luzerako konprometituriko gastu publikoaren jasagarritasuna.

➤ *Kontratu sozial berria.*

Ikuspegi horretatik begiratuta, planteatzen dena **kontratu sozial berria** da, horrek biztanleria-multzo jakinetara elkartasuna proiektatzeko, gainerako hiritarrei dagokienez. Hiritarrik pribilegiatuenean elkartasun-ahalegina egin behar dute baztertuenei dagokienez. Aberastasuna birbanatzeko lan hori egiteko (desorekak murrizteko joera duten mekanismoen bidez), garapen harmonikoa eta onartua bultzatzen duen elkartasun pilotzailea behar da. Eta, horri dagokionez, halako elkartasuna ondoen bultzatu ahal duena abertzaletasuna da, hau da, zerbaiten zati izatearen sentimendua eta guztion artean etorkizun komuna osatzearen sentimendua.

Justizia sozial eraginkorra gauzatzeko, beharrezkoa da gizarte kohesionatuta egotea eta geure etorkizuna guztioi dagokigulako sentimendua orokorra izatea. Elkartasunerako, ezinbestekoa da identitate komunaren sentimendua egotea, eta horrek zentzua nahiz edukia galtzen ditu munduan nagusi diren joera neoliberal berrien eraginezko indibidualismoaren eraginez nazioaren protagonismoa galtzen denean. Sakrifizioarako gaitasuna eta elkartasuna desagertu eta nazioa gainbeheran jartzen da.

EAJ-PNVren ustez, abertzaletasun solidarioa eta justizia soziala ezinbestekoak dira, horiek barik, aberastasuna zuzentasunez banatu gabe, ez delako komunitate kohesionaturik lortzen.

Elkartasuna egituratzeko estatu-nazioaren ongintza ezinbestekoa dela dioen ideia oraindik ere nagusia da. Nazionalismoen arrisku baztertzailaren mamuak modu interesatuan zabaltzen ari dira. Bereizte-prozesuek desberdintasun soziala dakartela esaten da. Hala eta guztiz ere, gizarte post-modernoaren barruko indibidualismo

nagusiko elkartasunik gabeko kultura dakarrenik ez da aipatzen. Ez da onartu nahi nazionalismo demokratikoak lagungarriak direla kontzientzia sozialari eusteko, eta argi dago halako nazionalismoek mesede egiten dietela kasuan kasu komunitateei, eta gainera, lagungarriak dira Europak herri desberdinak benetan integratzeko.

Horri dagokionez, abertzaletasunaren erreferentzia Europa izan behar da; are gehiago gaur egun, Europako Konstituzioa sortzen ari den unean; horren proiektuaren barruan, Batasunaren helburuen artean, bertako herrien ongizatea sustatzea dago, eta bertan jasotzen den Batasunak Europaren garapen jasangarriaren alde egin behar du, honako honetan oinarrituriko Europaren alde: hazkunde ekonomiko orekatua, merkatuko ekonomia soziala, erabateko enplegua eta aurrerakuntza soziala, bazterkeria sozialaren nahiz diskriminazioaren aurkakoa, babes soziala, gizon-emakumeen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna, talde baztertuen babesa eta, batez ere, haurren eskubideen babesa.

Europako Konstituzioak Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna jaso behar du, eta bertan, hauxe bermatu, onartu, babestu eta errespetatu behar da: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; haurren nahiz adinekoen eskubideak eta elbarriak gizarteratzeko eskubideak; lanpostua lortzeko doako zerbitzua, justifikaziorik gabeko kanporatzerik eza eta osasuna, segurtasuna nahiz duintasuna errespetatzeko moduko baldintzetan egindako lana; familiaren babesa; Gizarte Segurantzaren prestazioak eta zerbitzu sozialak; bazterkeria soziala eta pobrezia gainditzeko, laguntza soziala eta etxebizitza lortzeko laguntza, beharrezko baliabideak ez dituzten guztien bizitza duina bermatzeko; gaixotasunen prebentzioa eta osasun laguntza izateko eskubidea.

Europako Konstituzioan jasotakoaren arabera, Batasunaren politika sozialaren helburuak honako hauek dira, besteak beste: enpleguaren sustapena, bizi- nahiz lan-baldintzen hobekuntza (aurrerakuntzaren bidez parekatzea lortzeko), babes sozial egokia, elkarrizketa soziala, giza baliabideen garapena (enplegu-maila handia eta iraunkorra lortzeko) eta bazterkerien aurkako borroka. Hori guztia, berriz, Europako Gutun Sozialean jasotako oinarrizko eskubide sozialen eremuan, eta horrek Batasunari ahalmena ematen dio estatukideen ekintza zenbait arlotan bultzatzeko eta osatzeko, esate baterako, gizarte segurantzaren nahiz langileen babes soziala, lan-merkatutik bazterturiko pertsonen laneratzea, bazterkeria sozialaren aurkako borroka edo babes sozialeko sistemen modernatzea.

Baina hitz egin dezagun garbi. Europar Batasuna eraikitzeke oraingo prozesuan ez da onartu nahi subsidiariorik printzipioa estatukideetako gobernuak baino harago iristerik, eta beraz, Europar Batasuneko oraingo erakundeek gabezia demokratiko nabariak dituzte. Hala eta guztiz ere, EAJ-PNVk azken mende erdian bere ibilbidearen ezaugarria izan den bokazio europazalea mantendu behar du. Baina Europa federala lortzeko ideala defendatzen duen bezala, Europako herriek etorkizuneko Europaren eraikuntzan izan beharrek partaidetza bilatu eta aldarrikatu behar du, bere izaera demokratikoak eta europazaleak ematen dion legitimitateak.

Europako eremu horretan, horrenbestez, Ongizate Estatuaren berrikuspena eta berriztapena planteatu behar da, elkartasunaren eta, beraz, justizia sozialaren biziraupena bermatzeko. Abertzaletasunak beharrezko indarra eta irmotasuna dauka berrikuntza horiei ekiteko.

Ongizate Estatuaren berrikuntza, hala eta guztiz ere, ezin daiteke euskarritu hiritarren elkartasunari egindako deian. Nazioaren hazkundera eta oparotasuna idealtzat duen abertzaletasun demokratikoak eta positiboak, lan hori garatzeko, beste balio edo printzipio batzuk eduki behar ditu, esate baterako, pertsonaren duintasuna, askatasuna, autonomia pertsonala, zuzentasuna, aukera-berdintasuna edo erantzukizuna.

Eskubide sozialen erabateko bermean (gizabanakoek bizitza-proiektu independentea garatzeko beharrezko gaitasunak edukitzean oinarrituriko bermea) euskarrituriko ongizate sozial unibertsaleko sistema bat, bestalde, gutxieneko errenta unibertsalaren ezarkuntzan oinarritu behar da, gizabanakoek eskubide sozial eta aukera guztiak eskuratu ahal izateko, baina neurri hori, berez eta modu eksklusiboan, agian ez litzateke nahiko izango bizitza autonomoaren eta erantzukizuneko bizitzaren garapena gizabanako guztiei bermatzeko.

Eskubide hori finkatu ondoren, eta gizabanako guztientzat biziraupena ahalbidetzeko diru-sarreraren maila jakina segurtaturikoan, aginte publikoek gainerako baldintza guztiak sustatu beharko dituzte, gizabanakoek euren bizitza modu autonomoan garatzeko eta oztopatzen edo zailtzen dituzten trabak gainditzeko. Azken batean, eduki sozialeko gainerako politikak errenta unibertsalean oinarrituz garatu behar dira (enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, kultura, laguntza soziala, etab.).

Bermaturiko gutxieneko errenta unibertsalak, horrenbestez, eragin zuzena dauka era guztietako politika sozialetan, behintzat alderdi ekonomikoan, eta, batez ere, horren adierazle nagusienetariko batean, hain zuzen ere, pentsio-politikan. Horri dagokionez, baliabide ekonomikoen maila jakina oinarritzko beharrianei aurre egiteko ezinbestekotzat hartuz gero, pentsio-politika beste modu batera planteatu behar da, behintzat horien gutxieneko zenbatekoa zehazteko orduan. Horrenbestez, ezin da ahaztu gutxieneko edo oinarritzko errenta unibertsala ezartzeko, ezinbestekoa dela prestazio sozial ekonomikoen oraingo sistema publikoa integratzea, sistemaren koherentziarekin eta eraginkortasunarekin lotutako arrazoiengandik baino ez bada ere. Errenta unibertsal horren ezarkuntzak, Gizarte Ongizateko Sistemak orain arte eraikitakoa kontuan hartuta, helburu horretara bideratzen diren baliabide urrien zarrastelkeria eta, azken batean, sistemaren beraren porrota baino ez luke eragingo.

Hala eta guztiz ere, Gizarte Ongizateko Sistema unibertsala dela onartu arren, hori ez litzateke jasangarria izango, aginte publikoen babes-ekintza osatu behar duten beste printzipio batzuk aintzat hartu ezean. Babes sozialeko oraingo sistema, geure "ongizate-sistema", ezin da aginte publikoen erantzukizun eksklusiboaren menpe gelditu, eta hiritarren baterako erantzukizuna ere beharrezkoa da; horrela, bakoitzaren ekimena eta autonomia errespetatuz, gizabanakoen eta talde sozialen (familia, etab.) erantzukizuna sustatuko da. Ongizate-sistemaren helburua, izan ere, pertsona bakoitza bere bizitza autonomiaz garatzeko gauza izatea eta garapen autonomo hori bultzatzea da, berori oztopatzen duten trabak gaindituz; horrela, izaera subsidiarioarekin, egoera pertsonalen eraginez bizi-kalitateko estandar jakinetara iritsi ezin direnen beharriak betetzen lagundu beharko du.

Baterako erantzukizuna, beraz, elkartasunaren ezinbesteko osagarria da, bideragarritasun ekonomikoa eta, azken batean, ongizate-sistemaren jarraitasuna nahiz iraunkortasuna segurtatzeko. Hiritarrek zergekin (belaunaldi barruko elkartasuna) eta kotizazio sozialekin (belaunaldien arteko elkartasuna) geure babes sozialeko sistemaren indarraldia eustea ez da nahikoa. Beharrezkoa da gizabanakoek eurek, familiek, talde sozialek eta, azken batean, gizarteak berak ongizate-sistemaren mantenamenduan duten erantzukizuna berenganatzea.

Aldi berean, ezinbestekoa da Administrazioa bera modernatzea eta arrazionalizatzea, baita zerga-iruzurra kontrolatzeko eta ezabatzeko ekimenak ezartzea ere. Izan ere, prestazioen eraginkortasuna eta eragingarritasuna hobetzeko, sarritan kudeaketa sinplifikatu, administrazio-kostuak murriztu, eskainitako zerbitzuak berrantolatatu nahiz koordinatu eta abar egin behar izaten da.

Horri dagokionez, EAJ-PNVk Administrazioa arrazionalizatzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzen du, baina halako jarduketak ez dira nahikoak. Hobeto administratzeaz gain, baliabide erabilgarriak hiritarren beharrezanetara egokitu behar dira, politika sozialak beste modu batera formulatuz, kohesio soziala eraginkorragoa izateko.

Azken batean, XXI. mendeko Ongizate Estatua kontratu sozial berrian euskarritu behar da; kontratu horrek, kohesio nazionalaren bitartez legitimatua, babes sozialeko sistema unibertsala segurtatuko du, hiritarren elkartasunean nahiz baterako erantzukizunean eta agente publikoek zerbitzu sozialen kudeaketan nahiz emakidan duten jarduketara eraginkorrean euskarrituz.

3.6.2.- Euskara, Euskal Herriaren identitate nazionalaren ardatza

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, gutxiengoa da eta minorizatuta dago geure Herrian: indarreko arau soziala hizkuntza nagusiaren aldekoa da (espainola edo frantsesa), baita euskaldun-kopururik handieneko udalerrietan ere.

Egoera normalizatu batean, zuzenena euskarari eta horren inguruko arazoei buruzko txosten kulturala egitea izango litzateke, eta ez txosten politikoa. Hala eta guztiz ere, hizkuntza minorizatuak, hedapen handiagoa eta literatura zabalagoa nahiz komunikabide indartsuagoak dituzten beste hizkuntza batzuen lehia baino gehiago, eraso politikoa jasan dute beti, batzuetan gupidarik gabeko erasoak, kohesio nazionala eta desberdintasuna ezabatzeko arrazoiak oinarrituz. Esaten dugunaren adibiderik gordinena, agian, Frantzia 1789ko iraultzatik hona gertatutakoa da. Ezarritako askatasunean, hizkuntza autoktono guztiak jazarri ziren, horiek ia guztiz suntsitu arte (adibidez, okzitanieraren eta bretoieraren kasuan bezala), eta frantsesa soilik onartu zen. 300.000 biztanle inguruko herri txikiak (esaterako Malta eta Islandia), berriz, independentzia politikoa lortu dutenetik, euren literatura eta euren hizkuntzaren erabilera orokorra nahiz finkatua mantentzen dute.

Nafarroan gertatzen ari dena, bestalde, Madrileko Gobernuak EAeko agintea eskuratuz gero egingo zuenaren adibidea da.

Horren arrazoiak, jakina, politikoa da. Horrenbestez, euskararen aldeko borroka, zoritxarrez, borroka politiko bihurtuta dago. Horren finkapenean eta hedapenean emandako edozein aurrerakuntza, beraz, garaipen politikoa da; horren eraginez, euskara lehentasun politikoa da guztiontzat, euskal identitatearen ezaugarria izateaz gain.

Euskararen egoera eta, batik bat, azken urteotan izandako bilakaera ikusita, zalantzarik gabea da geure hizkuntzak lortutako ospeak eta bizitasunak erraz gainditu dituztela orain dela 25 urteko itxaropenik onenak. Gernikako Autonomia Estatutua, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialtzat onartuta, eta Euskal Herriko hiritarrik gehienek geure hizkuntza suspertzeko egindako apustua funtsezkoak dira euskarak azken 25 urteotan izandako aurrerakuntza ikusgarria ulertzeko.

➤ *Jarduketaren balantzea:*

Argi dago euskararen bilakaera estu lotuta dagoela Euzko Alderdi Jeltzaleak gidaturiko abertzaletasunaren ezarkuntza-maila desberdinetara:

- EAEn indar nagusia gara gizartean eta politikan. Euskararen gainbehera geldiarazteaz gain, geure hizkuntzak Erkidegoan aurrekorik gabeko susperraldia izan du. Euskararen normalizazioaren alde egindako apustu sozial, politiko nahiz instituzional argia eta apurka-apurka ekintza positiboko politiken egituratze eraginkorra dira prozesuaren oinarriak. Aipagarriak dira geure hizkuntza babesteko, hedatzeko eta sustatzeko behar diren erakunde nazionalen (publikoak eta pribatuak²) sorrera zein finkapena eta egokituriko tresna legalen nahiz plan estrategikoen abioa³.
- Nafarroan eta Iparralden, onartu egin behar da gizartearen zati batek egindako esfortzu itzela; hala ere, zoritxarrez, sektore oso txikia da eta ez dauka onarpen nahiz laguntza politikorik eta instituzionalik. Abertzaleak gutxienak dira Nafarroan eta abertzaleak ez direnek ez dute euskaren aldeko apusturik egin, eta, salbuespenak salbuespen, ez dute horren suspertzea eragin, abertzaleok hizkuntza-ondare komuna geureganatzen dugulakoan. Arazo nagusia, izan ere, abertzaleak ez direnek Nafarroan euskaren apurka-apurkako normalizazioa sustatzearen aurka egotea da: euskarari dagokionez abertzaleoi egozten zaigun patrimonializazioa, izan ere, hizkuntza-normalizazioarekiko dituzten erantzukizunen (erakunde mailako erantzukizunak ere bai) utzikeria ezkutatzeko ahalegina baino ez da.

Onartu beharra dago ezker abertzaleko sektore handiek euskararekiko egin duten ahalegin handia eta izan duten militantzia. Hala eta guztiz ere, horien diskurtso eta jarrera batzuk, zenbaitetan, hizkuntza-normalizazioaren aurkako emaitzak ematen dituzte. Geure Alderdia ere beti ez da gauza izan hiritarrentzako proposamen koherenteak eta erakargarriak sortzeko eta Nafarroan nahiz Iparralden euskararen ezarkuntza sozial handiagoa lortzeko. Nolanahi ere, aukera politiko desberdinen legitimitatea gaindituz, Nafarroako gobernuak (batez ere, azken urteotan) euskararen aurka garaturiko jarduketak eta ahulenaren interesen aurkakoa den “laissez faire, laissez passer” deritzon jarrera (Iparraldeko aginte publikoek gauzaturikoa) ez dira onargarriak Europa demokratikoan.

Euskara, euskal hiritarrik gehienok zaindu nahi dugun ondare kulturala izateaz gain, Euzkadiko milaka hiritarren komunikazio-tresna bizia da, arazo guztien gainetik.

Euskara batzeko, arautzeko eta modernatzeko prozesuak balantze positiboa dauka, eta hedapen demografiko, geografiko eta funtzional nahiko ona lortu du:

EAEko hizkuntza-gaitasunari dagokionez, aipagarria da 15-30 urte bitarteko gazteen artean %50 euskaldunak direla, eta kopuru hori espainol elebakarrena baino hiru aldiz handiagoa da (%17); 5-14 urte bitarteko biztanleak kontuan hartuta, euskaldunen kopurua

² Aipagarria da zenbait azpiegituraren sorrera, esate baterako, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza, Euskararen Aholkularitza Kontseilua, EITB, AB eta HAEE; halaber, erakunde estrategiko nazionalak sortu edo finkatu dira, adibidez, Euskaltzaindia, LABAYRU Ikastegia, EIE, EIZIE, UZEI, ELHUYAR, baita euskarazko komunikabideekin erlazionaturiko elkarte eta enpresa asko ere, eta talde multimediarren bat ere bai.

³ 1999ko abenduaren 10ean, Legebiltzarrak Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra onetsi zuen; plan hori Euzko Jauriaritzak landu zuen, 1996-1998 bitartean, Euskararen Aholkularitza Kontseiluarekin lankidetzan. Plan estrategiko horretan euskaren erabilera sozialeko zenbait eremutan hurrengo 10-15 urteotan garatu beharreko lehentasunezko jarduketak sartzen dira.

%66koa da eta espainol elebakarren kopurua %10ekoa baino ez da, hau da, sei aldiz txikiagoa⁴; Nafarroan, aurrerakuntza oraindik ez da adierazgarria, eta Iparraldean hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera da, eta horrek atzerakada nabaria adierazten du.

Hedapen geografikoa kontuan hartuta, geure hizkuntza nazionala dagoeneko ez da Euskal Herriko nekazaritza-arrantza-eremuetako hizkuntza bakarrik, eta geure udalerriz guztietan gero eta indar handiagoarekin ezartzen ari da, baita orain dela ehun urte baino gehiagotik galduta eduki duten hiri- eta nekazaritza-eremuetan ere, Iparraldeko hiriguneen salbuespenarekin.

Erabileraren eremuei dagokienez, euskara komunikabideetan, hezkuntzan, administrazioan, aisialdian, kirolean, merkataritzan edo industrian erabiltzen da, nahiz eta berorren presentzia oraindik ere oso txikia izan, erabilerako eremu horietan guztietan.

Esandako guztia kontuan hartuta, agerian gelditzen da euskarak Iparraldean izandako etengabeko gainbehera konpontzeko modukoa dela eta horrekiko etsipena baztertu egin behar dela. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko esperientzia aintzat hartuta, badakigu geure hizkuntzaren aldeko apustu sozialak, ekonomikoak eta instituzionalak gainbehera geldiarazteko eta suspertzea eragiteko gaitasuna duela.

Euskara suspertzearen arloan emandako aurrerapausoek, jakina, ikuspegi, beharrian eta erronka berriak ekarri dizkigute. Garrantzitsuena azken urteotako aldaketa soziolinguistikoa sakonaren ondoriozkoa da: gaur egun, euskaldun guztiak gutxienez elebidunak dira eta gehienek lehenengo hizkuntza espainola da. Orain arte ezezaguna zen egoera horrek, gehienak euskara gutxiengo hizkuntzatzat duten testuinguruetan bizi direla kontuan hartuta, gero eta kezka handiagoa sortu du euskararen kalitatearen inguruan.

Hizkuntzaren kalitatearen gaiak hausnarketa lasaia eta erabaki egokiak behar ditu. Laneko lerrotzat, kontuan hartzeko egiaztapen batzuk adieraziko ditugu:

euskal gizarteak urteak daramatza euskara ikasteko prozesuan murgilduta; oraindik ere ezagupen-maila "txikia" daukagu, hau da, geure hizkuntza ez daukagu behar bezala finkatuta eta barneratuta;

euskaldunzaharren sektore batzuk ez dute euren hizkuntza ospe oneko eta balio sozialeko elementutzat hartzen eta, beraz, ez dute erabiltzen; talde horren barruko sektore handien alfabetatzea eta euskalkien erabilera soziala ezinbestekoak dira euskaldunzaharrak euskararen bizitza sozialean benetan sartzeko, hori beharrezkoa baita;

euskaraz eskainitako kulturako, aisialdiko eta merkataritzako zerbitzuak eta produktuak oraindik ez dira nahikoak;

euskalduntzeko eskari sozialari erantzuteko orduan izandako presaren, diktaduraren erruz galdutako denbora berreskuratu behar izatearen eta orain dela urte gutxi arte desagertzeko zorian zegoen hizkuntza bat (hizkuntzalaritzaren aldetik espainolarekiko desberdina den hizkuntza) suspertzeko eredurik ez egotearen eraginez, aurrerapauso handiagoak eman dira kantitatean kalitatean baino. Hori segurutzat logikoa eta saihestezina izan da bilakaera historiko honetan.

⁴ Euskararen aurrerakada hori geure gizartean askoz ere nabariagoa ez izatearen arrazoiatariko bat gazteen presentzia nahiko txikia da, jaiotza-tasaren beherakada handiak biztanleriaren gainbehera itzela sortu baitu: orain dela hogeitau urte, 1981ean, 5-24 urte bitarteko gazteen kopurua 738.444koa zen; zifra hori 300.000 gaztetan jaitsi eta, orain, 439.566 gaztekoa da.

Ez gaude kantitatearen eta kalitatearen artean hautatzera behartuta. Jose María Agirre “Lizardi” jeltzaleak orain dela ia 70 urte antzeko eztabaida bati buruz esaten zuenez: “geure hizkuntza suspertzeko eta indartzeko ez dago kantitaterik gabeko kalitaterik”. Baldin eta euskararen kalitatearen erreferentziatzat, hartu ere, euskaldun elebazarrek (kalitate handiko euskara, baina espainolaren edo frantsesaren ezagupen oso txikia) eta euskara “bikain” (baina agian eremu funtzionalen kopuru mugatuan) menperatzen duten intelektual elebidunen edo eleanitzen taldetxoak osaturiko komunitate arraroa hartzen ez badugu. Hori orain dela urte batzuk ezagutu genuen eta, agian batzuek horren nostalgia eduki arren, euskal hiritarrik gehienok ez dugu XXI. mendeko Euzkadirako nahi.

➤ *Erronkak eta konpromisoak:*

Euskara kohesio-elementu nagusia eta euskal identitate nazionalaren adierazlerik argiena da. Horrek ez du esan nahi espainola eta frantsesa geuretzat arrotzak direnik; izan ere, bi hizkuntza horiek milaka euskaldunen eta milaka alderdikideren ama-hizkuntzak dira. Baina euskara da geure identitate pertsonalaren, sozialaren eta politikoaren eraikuntzari baliorik adierazgarriena ematen dion hizkuntza. Identitate nazional horrexek babestuko gaitu Europako gizarteetan aurrerapauso erraldoiak emanez hedatzen ari den berdintasun kultural uniformatzailetik. Aniztasuna kulturala eta, azken batean, bizimodu eta bizikidetzera desberdinak bizirik irauteko, ezinbestekoa da identitate nazionalak bizirik mantentzea.

Euskaldun guztion hizkuntza nazionala bizirik eta guztiz funtzional mantentzeko apustua gaurkotu eta intentsifikatu beharra daukagu, geure betebeharra baita. Horixe da Euzkadiko eraikuntza nazionalarekin konpromisoa duen Alderdi bateko kideztat dugun erronka nagusienetarikoa. Lehentasunezko helburuak honako hauek dira:

Nafarroa osoan eta Iparralden euskararen ofizialtasuna lortzea.

Geure hizkuntzaren presentziarik ahulenera Iparraldeko eta Nafarroako zonetan euskara irakastearen aldeko ekimenak bultzatzea, eta lurralde horietako administrazioen finantziario nahikorik ez duten ekimenak ere sustatzea.

Euskara belaunaldi batetik bestera igarotzen dela bermatzea, familiaren barruko transmisioaren garrantzi handia azpimarratuz.

Euskarak eguneroko bizitzan erabiltzeko hizkuntzat duen ospea eta balio soziala handitzea.

Euskarazko produktuen eta zerbitzuen eskaintza arlo guztietan zabaltzea, eta horien eskaria sustatzea, lortutako ezagupen- eta erabilera-mailak apurka-apurka finkatzen joateko eta, horrenbestez, hizkuntzaren kalitatea hobetzeko.

Erakunde publikoen eta pribatuen barruan euskararen erabilera normalizatzeko planak sustatzea, horien jarduketa belaunaldi berrien hizkuntza beharrianetara egokitzeko.

Geure Alderdiaren barruko bizitzan ere hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso handiagoa hartzea, bai barruan eta bai geure jarduketa politikoaren eremu publikoetan.

Horretarako, geure Alderdiak apustu eraginkorra eta sistematikoa egin behar du, Alderdiaren filosofiaren arabeko komunikabideen eta euskarazko beste produktu batzuen (kulturakoak eta aisialdikoak) sorreran partaidetza handiagoa edukitzeko, batez ere gazteei zuzendutako produktuei dagokienez.

Aurreko belaunaldiei eskerrak eman nahi dizkiegu euskararen aldeko apustua egiteagatik, bai familia barruan irakatsi zigutelako edo bai Euzkadiko hezkuntza-sisteman ikasteko aukera eman digutelako, eurek euskararik jakin ez arren. Orain geuri dagokigu euskararen erabilera apurka-apurka hedatzearen eta hurrengo belaunaldiari jakinaraztearen aldeko apustua egitea.

Horretarako, tresna legalak ezinbestekoak dira. Era berean, beharrezkoa da Euzko Alderdi Jeltzaleko kideek Euzkadiko eraikuntza nazionalen eta sozialean sakontzen jarraitzeko erabaki estrategikoa hartzea, akatsetatik ikasita eta aurrerapausoak emanez, euskararen garapena geure aniztasuna aberasteko eta lurralde guztietako euskal hiritarren arteko bizikidetzaren finkatzeko lagungarria dela jakinik. Euskara geure eraikuntza nazionalaren eta sozialaren funtsezko ardatza da, eta lurraldeen arteko kohesiorako faktorea ere bada. Euzkadiko lurraldeetako eta erakunde-eremuetako eragile sozialen, politikoen eta instituzionalen arteko lankidetzaren ondoen euskarritzen duen jarduketaren erabateko sustapena da.

ERANSKINA

*Konstituzionaltasun berria eta urritasun
demokratikoa*

(Espainiako 1978ko Konstituzioak 25 urte)

KONSTITUZIONALITASUN BERRIA ETA URRITASUN DEMOKRATIKOA (ESPAINIAKO 1978ko KONSTITUZIOAK 25 URTE)

1.- KONSTITUZIOAREN ALDARRIKAPENA, ASKATASUNERKO BERMETZAT

Azken urteotan, Gernikako Estatutuaren gabezien inguruan egindako kritika gero eta hedatuagoa eta gogorragoa, baita alderdiek, Legebiltzarrak eta Lehendakariak Euzkadiren autogobernua euskaldunen nahiaren arabera bermatzeko egin dituzten proposamenak ere, Konstituzioa eta Estatutua askatasunaren ikurtzat aurkezten dituen diskurtso politikoaren bitartez ukatu dituzte Estatuko indar politiko nagusiek, abertzaleoi eratzikitako bazterkeria eta erradikalismoa aitzakiatzat jarrita eta abertzaleok, modu interesatuan, ETArek terrorismorekin nahasita.

Honako silogismo hau erabiltzen dute: erakunde autonomikoak Estatutuak sortu dituzenez eta azken hori, aldi berean, Konstituzioak sortu duenez, euskal hiritarrek eta horien ordezkariak ezin dituzte arauok zalantzan jarri, hori eginez euren legitimitate demokratikoa ere zalantzan jartzen dutelako. Legitimitate hori ematen duen iturri bakarra Konstituzioa eta, beraz, Estatutua da. Horrenbestez, askatasuna maite duten benetako demokratek nahitaez jarraitu beharreko bidea bi arau horien defentsa gogorra da.

Argudio hori, formala eta iruzurtia ez ezik (laster ikusiko dugunez), subkontzientearekiko tradiziozkoa ere bada, nolabait ere.

Jakina, konstituzionalista berriek ezin dute ahaztu 1978ko Konstituzioa frankismoaren garaiko Oinarrizko azken Legetik sortutakoa dela, hain zuzen ere, 1976ko Berrikuntza Politikorako Legetik. Ondo gogoratzen dute, gainera, ez zegoela aurreikusita 1977ko ekainaren 15ean aukeraturiko Gorteak konstituziogileak izango zirenik, eta, azkenean konstituziogileak izan baziren, hori ez zen orduko gobernariaren nahiaren ondoriozkoa izan, agintekeriarekin nekatuta zegoen gizarte zibilak egindako eskakizunaren ondoriozkoa baizik.

Horien buruaren barruko bazterren batean ezkutaturik egongo den beste gomuta bat, bestalde, Estatuaren lurraldea Autonomia Erkidegotan antolatzea proiektaturik ez egotea eta Konstituzioaren testuak hori ez ezartzea eta, are gutxiago, ez derrigortzea da.

Segurutzik ez zuten ahaztuko autonomien orokortzea (guztientzako kafea) egoeraren eraginezkoa izan zela; hori, bide batez, lagungarria izan zen nazionalitate historikoen (konstituzionaltasun berri ortodoxoak gaur egun zalantzan jarritako kontzeptua) hamarkada askotan gogor errebindikaturiko autogobernuaren eduki politikoa diluitzeko; izan ere, garai hartan Francoren erregimenaren aurkako indarrek defendaturiko helburu demokratikoa zela pentsatu arren, gero hori ez dela horrela ikusi da.

Askoz ere hobeto gogoratuko dituzte, segurutzik, 1980tik gaur egunera arte sortu dituzten lege guztiak, hain zuzen ere, Gernikako Estatutuak euskal erakundeen alde modu serioan baina ezeraginkorrean jasota dituen eskumenak ahalik eta gehien murrizteko sortutako legeak.

Gauza bera esan daiteke jurisprudenzia konstituzional etengabeari buruz ere; hori, sentsibilitate autonomiko handiagoko garai batzuk egon arren, beti izan da (eta azken urteotan inoiz baino gehiago) interpretazio zentralisten eta unitaristen aldekoa.

Sistema konstituzionalaren egonkortasunaren arloan, halaber, aspaldiko gomutak dira konstituzionaltasunaren aurkitzaile berriek egindako adierazpen hanpatuak, horietan, Euzkadiko eta Kataluniako alderdi nazionalista demokratikoen eginkizuna funtsezkoa zela esaten baitzen. Gehiengo absolutua eskuratu eta handitu ondoren (indarreko hauteskunde-sistema eskuzabalari esker), dagoeneko ez dira beharrezkoak ase ezineko nazionalistekiko akordioak eta horien laguntza, nazionalistok Estatu desegiten ari baitira, eurek gobernatzen dituzten lurraldeetan.

Konstituzioaren guraso berrien gar konstituzionalista, agian, oroimenetik itzal horiek ahalik eta lehenen ezabatzeko sortu da. Batzuk frankismoaren ilunpe ikaragarrietan egondakoak dira, eta beste zenbait, berriz, diktaduraren aurka borrokatu eta espetxea nahiz errepresioa jasan zituen ezkerrean egondakoak; azken horiek, alde batetik, jakobinismo zaharkituaren eta, bestetik, agintea erabiltzen izandako harrotasunaren ondoriozko ostrazismoaren, kudeaketa publikoan izandako ustelkeriaren eta ETArek aurkako gerra zikinaren eraginez, orain antzinako aurkariekin batuta daude eta azken horiek legitimatzen dituzte, Estatu goi-organoetan eragina partekatzen duen bikote arraroa osatuz, abertzaletasunaren aurka. Eta hori guztia, jakina, Konstituzioaren eta Estatuaren izenean.

Lehen esan dugunez, oroimen ezerosoek pisu handia dute konstituzionalista berrien subkontzientean, hala eta guztiz ere, euren buruari zentzu politiko eta juridiko sakona traizionatuz eratziki dioten izen horrek historian zehar izandako ahanztura edo ezjakintasuna ere nabariak dira. Izan ere, Konstituzioa ez da inondik inora ere zurigarri bat izan behar, estatuaren eta politikaren ulermen jakina ezartzeko, nahiz eta ulermen hori gehiengo osoarena izan. Konstituzioak, hain zuzen ere, kasuan kasuko “subiranoaren” aginterako mugatzat sortu ziren, hau da, subirano horrek une bakoitzean eta berari komeni zaionaren arabera Konstituzio eraginkorra zein den erabaki ezin izateko. Horixe da gehiengoak Konstituzioaren letra okertu eta berorren espirituari tradizioa egiten dionean gertatzen dena.

Komenigarria da, horrenbestez, konstituzionaltasunak historian zehar izandako esangura ikustea, konstituzionalista berrien ideiak bertatik zein urrun dauden egiaztatzeko.

2.- KONSTITUZIONALITASUNAREN ESANGURA HISTORIKOA ETA ESPAINIAKO TRADIZIO KONSTITUZIONALA.

Konstituzionaltasuna XVIII. mendeko azken urteetan sortu zen, aurreko mendeko Ingalaterrako Iraultzako ideoetan oinarrituz eta Ipar Amerikako Independentziak nahiz Frantziako Iraultzak sustatuz. Burgesia sorberriak sustaturiko mugimendu juridiko-politiko hori absolutismo monarkikoaren aurkakoa zen; berorren helburua, berriz, estatuaren agintearen antolaketa nahiz erabilera kontratu sozialean oinarrituriko gorengo arau batean arautzea zen (banakako eskubideak zein askatasunak bermatzen zituen araua), baita subiranotasuna herriaren esku zegoela eta legea herriaren borondatearen adierazpena zela aldarrikatzea ere.

Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen 1789ko Adierazpeneko 16. artikuluan argi eta garbi adierazita dago: “*eskubideen bermea bermatuta ez duen eta aginte-banaketa ezarrita ez duen gizarteak ez dauka Konstituziorik*”.

Konstituzionaltasunaren esangura juridikoa eta politikoa horren arabera zehaztuta gelditu zen. Konstituzioa agintea mugatzen duen araua izatera igaro zen, eta horretarako,

Estatuaren funtsezko eginkizunak bata bestetik banandutako organoei eratzikitzen zizkien, hiritarren eskubideak bermatzeko.

Hala eta guztiz ere, Konstituzioak bere eginkizuna ondo egiteko, testu ospetsu batek esatea ez da nahikoa. Hori egin zenean, esate baterako, Cadizeko Konstituzioaren kasuan, demokraziaren ilusioa sortu baino ez zen egin, errealitateak ez baitzuen zerikusirik manu konstituzionala jasotako adierazpen erretorikoekin, Izan ere, Europako eta, hain zuzen ere, Espainiako historia konstituzionalak adibide asko dituzte eta, horietan, industrializazio berantiarreko eta garapen ekonomiko, sozial nahiz kultural eskaseko lekuetan sistema konstituzionala ezartzeko zailtasunak argi eta garbi ikusten dira.

Eragozpen horrekin, printzipio monarkikoak ez zuen aldaketa handirik izan. Egin-eginean ere, konstituzionaltasuna guztiz gauzatzeko, beharrezkoa da hiritarrik gehienek banakako askatasuna eta demokrazia onartzea, horiek erakundeetan ordezkari izateko bideak egotea eta adierazpen- nahiz informazio-askatasunean oinarrituriko iritzi publikoa egotea. Baldintza horiek estu lotuta daude Espainiako historia konstituzionalean gertatu gabeko baldintza ekonomikoekin eta sozialekin.

Horri dagokionez, Espainiako testu konstituzionalen segida azaltzeko erabiltzen den “penduluaren lege” ospetsua oso adierazgarria da, Estatuak eta gizarteak bakean eta askatasunean oinarrituriko bizikidetzaz ezartzeko gabezia estrukturalak azaltzen baititu; izan ere, ia mende batean, konstituzioak “espatatzen” izaneko edo gupidarrik gabeko gerra zibilen barruko pronuntziamentu militarren bidez ezarri ziren. Testuinguru horretan, konstituzioen balioa sinbolikoa zen, horiek ez baitzuten Estatuako organoak antolatzerik lortu, eta horietan Koroak funtsezko eginkizuna zautan, eta jakina, ez zuten askatasunik bermatzen (batzuetan, horretarako ahaleginik ere ez zuten egiten). Ez ziren benetako arau juridikoak izan, eta, horrenbestez, ez ziren Estatuako organoekin lotuta egon; beraz, urratu egin zuten euren helburua, agintearen erabilera mugatzeari nahiz arrazionalizatzeari eta, hortaz, gizartea zein Estatuak integratzeari zegoenez.

Beste modu batera esateko: Espainiako tradizio konstituzionala ez da inoiz oso konstituzionalista izan, hitz horren jatorrizko esanguran. Hori dela eta, agian, Amerikako eta Europako beste herri batzuetan lehen bezala orain ere Zuzenbide Konstituzionala dagoen bitartean, Espainian lehen eta, dirudienez, orain ere bai Zuzenbide politikoa dago.

3.- KONSTITUZIOAREN ETA ERREALITATE POLITIKOAREN ARTEKO LOTURA.

Konstituzioaren eta errealitate politikoaren arteko beharrezko lotura lortzea ez da lan erraza. Agintearen erabilera aurretiaz ezarritako arauetara lotzeko dagoen berezko zailtasunari, aginte hori mugarik gabe erabili duten edo sistema jakina euskarrizteko balio duten indarren oztopoa gehitu behar zaio.

XIX. mendeko bigarren erditik aurrera, herri bateko agiri edo testu konstituzionala eta konstituzioa bera (barrukoa, historikoa edo erreala) bereizi dira.

Kasu batzuetan, erregeek ez dute nahi izan “paper-orri bat” Erregearen eta Jainkoaren artean sartzerik, hau da, lehenengoari bere agintearen muga zein den esaterik; beste zenbait kasutan, planteamendu historizista batetik, esaten zen herri bakoitzak bere historian daukala idatzita bere izaera, eta horixe dela bertako benetako konstituzioa, eta, gehienez jota ere, hori

testu artifizial batean islatzeko modukoa zela, baina testu horrek ezin zuela jaso berezko borondatea zeukan gorputz bizirik.

Espanian horren antzeko pentsaera-lerroa egon zen; izan ere, doktrinaren pentsamenduak zionez, Espainiako konstituzio sistemaren muina, hau da, Monarkiaren “barne-konstituzioa”, Erregea/herriaren edo Erregea/gorteen arteko batasuna zen, eta konstituzio-testuak ezin zuen hori ahaztu eta berezkozat jaso behar zuen; azkenik, 1870eko hitzaldi ospetsuan, Lasaillek (ikuspegi errealista batetik) esan zuen Konstituzioak agintearen benetako faktoreak jaso behar zituela, horiek baitira Estatuaren benetako funtzionamendua eragiten dutenak, eta, hori egiten duen neurrian, konstituzio-araua errealitatearen eskakizunekin lotuta egongo zela.

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen konstituzio-arauaren eta errealitate politikoaren arteko loturaren araberakoak direla, bai bizikidetzaren antolatze gaitasuna, bai konstituzioetan eskubideei nahiz askatasunei buruz ezarritako manuen benetako eraginkortasuna eta bai ideologia desberdinen arteko gaien erabakia. Lehenengoak adierazpena eta gauzapean instituzionala eman behar die bigarrenetik sorturiko eskari politikoei eta sozialei, bere eginkizuna bete ahal izateko.

Beharrezkoa nahiz estua den lotura hori lortzeko eta bi elementuen arteko tirabirak azaltzeko formulak aurkitu nahi izan dituzte konstituzionalistek eta doktrinak, azken urteotan. Horrela, honako hau sortu da: Konstituzioaren bidezko integrazio politikoaren ideia; Konstituzioaren ulermen materiala; konstituzioaren sailkapen ontologikoa, aurreikuspen konstituzionalak errealitate politikoan benetan betetzearen arabera (arauzkoak, izendunak eta semantikoak); Konstituzio formalaren azpiko Konstituzio substantzialari buruzko tesia edo geroago egitekoa den prozesu politikora irekita dagoen Konstituzioaren teoria.

Horiek guztiak formulazio teorikoak dira eta, nolabait ere, Konstituzioa testuan esaten dena baino gehiago dela esaten digute (zenbait herri, esate baterako, Ingalaterrak edo Israelek ez dute Konstituzio idatzirik); izan ere, testu hori errealitate biziarekin erkatu behar da, eta Konstituzioak, gainera, ez dira lan perfektuak edo amaituak, eta ez dira halakoak izan behar. Hau da, Konstituzioaren prozesu politikoa eta lana ez da behin betiko itxi edo amaitu behar, eta bertako edukietariko asko zehaztu egin behar dira, indar politikoen arteko eztabaida askearen eta publikoaren bitartez; Konstituzioa modu dinamikoan eta sortzailean egiteko prozesu hori elikatzen eta bideratzen duen energia, berriz, ideien eta balioen aniztasuna izango da.

Konstituzionaltasunaren ideia zaharren eta berrien azpian, lehen esan dugunez, kontratu-hondar nabaria dago. Konstituzioak itun baten ondorioz egiten eta onesten dira, kasuan kasuko indar politiko desberdinen arteko akordioaren ondorioz, edo bestela, ez dute arrakastarik izango, Espainian XIX. mendean ikusi denez.

Konstituzioa joera ideologiko desberdinen arteko eta sistemaren barruko eragile politikoen arteko integrazio politikorako tresnatzat ulertzen da orain. Eta hori ez da onepen-unekeo sorrera-egintzaren araberakoa bakarrik, baita itun horren gaurkotzearen araberakoa ere. Horrela, alderdi eta sektore sozial nahiz ekonomiko desberdinentzat, hori baliozko markoa izango da euren helburuak lortzeko.

Hori ezinbestekoa da sentimendu konstituzionala lortzeko. Aldiz, jatorrizko ituna apurtu eta joko-arauak aldatzen direnean, Konstituzioak ez dio mugarik jartzen aginteari, eta bizikidetzaren demokratikoa ere ez du bermatzen.

Horrenbestez, konstituzio-testuak konstituzionaltasunaren baldintzak betetzea ez da nahikoa. Hori ez ezik, ezinbestekoa da sistemaren barruko aniztasun estrukturalera egokituriko oinarritzako akordioa sortzea; halaber, beharrezkoa da erakundeetako gidariek eta, batez ere, berme-organismoek (adibidez, Aginte Judiziala eta Konstituzio Auzitegia) arau konstituzionalaren

eta berorri zentzua ematen dion konstituzio-itunaren indarraldia mantentzea eta gauzatzea. Hortxe dago gaiaren gakoa.

Une honetara iritsita, zenbait galdera egin daitezke: Hori ote da Espainiako konstituzionalista berriek bultzatutako Konstituzioaren ulermena? Zer gelditzen da Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpeneko 26. artikulutik? Zein dira une honetan konstituzionalista berriek defendaturiko Konstituzioa euskarritzen duten faktore politikoak?

Galdera horiei erantzuna emateko, beharrezkoa da 1978ko testua aztertzea eta, gero, horrek praktikan duen funtzionamendua ikustea.

4.- KONSTITUZIONALITASUNA ITXURAGABETU ETA KONSTITUZIOA AGINTEAREN TRESNATZAT ERABILI.

Espainiako 1978ko Konstituzioak ez dauka aginte-banaketaren printzipioa formalki jasota. Hitzaurrean eta artikuluetan ez da printzipio hori aipatzen. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi diziplina konstituzionalean jasota ez dagoenik; izan ere, inplizituki jasota dago zenbait manutan, esate baterako, 1.1. artikuluan, eta, horren arabera, Espainia Zuzenbide Estatu soziala eta demokratikoa da; horrenbestez, berariaz aipatuta egon ez arren, argi ikusten da horrek honako honetan duen presentzia: Gorteen arauketan (III. titulua), horiek urratzeko ezintasuna aldarrikatu eta Parlamentuaren autonomia bermatzen baita; Gobernuaren diziplinan (IV. titulua) eta, batez ere, aginte judizialari buruzko VI. tituluan.

Printzipio demokratikoari dagokionez, hori hitzaurrean eta konstituzio-manu askotan jasota dago, 1.1. eta 1.2 artikuluetatik abiatuz, horrek subiranotasun nazionala herriak duela aldarrikatzen baitu.

Bestalde, I. Tituluan eskubideak eta askatasunak aipatzen dira, eta, 10.1 artikulua dioenez, horiek antolamendu politikoaren eta bake sozialaren oinarriak dira. 53. artikuluan horien eraginkortasun eta indar loteslea aipatzen da, euren berme bereziak adieraziz. Hori guztia beste manu konstituzional batzuetan jasota eta hobetuta dago.

Horrenbestez, ikuspegi formaletik eta *a priori* begiratuta, Konstituzioak bete egiten ditu konstituzionaltasunaren eskakizunak. Baina garrantzitsuena praktikan ere hori egitea da, hau da, Konstituzio *materialak*, benetako Konstituzioak, eskakizun horiek betetzea.

Horri dagokionez, Alderdi Popularrak Diputatuen Kongresuan gehiengo osoa lortzeak eta Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren aurkako Ituna deritzona sinatzeak sistema demokratikoa urratzea eragin du, orain dela urte batzuk pentsaezinak ziren mugetaraino, eta Konstituzioaren benetako aldaketa edo mutazioa sortu du.

Autonomia Estatutuen (batez ere Gernikakoa) irakurkera murriztailea nahiz atzerakoa egiteaz eta orain dela 25 urte esfortzu handiz lortutako askatasunak mugatzeaz gain, Konstituzioaren aldaketa materiala ere gertatu da, bertako testua edo forma aldatu barik.

Horrela, alde batetik, eztabaida publiko aserako eremua itxi egin da, Estatuaren lurralde-antolaketarekin eta, hain zuzen ere, Euzkadirako autogobernu-eskabideekin lotutako guztiari dagokionez. Bestalde, aginte-banaketa organoen arteko bereizketa sinboliko hutsera murriztu da, eta organo horien osaketa eta jarduketa bultzada beraren eraginezkoa da eta norabide berean orientaturik dago. Hirugarrenez, Zuzenbide Estatuari eta konstituzionaltasun-printzipioari zentzua ematen dioten bermeei buruz ere gauza bera esan daiteke, bermeok

edukirik gabeko klausula bihurtuta baitaude orain, Estatuaren Arrazoiaren zerbitzuan, eta Espainiako gobernuak unetik unera zehazten ditu bere interesen arabera. Azkenik, arazoaren jatorrian egon arren, abertzaleak eta, neurri handian, nazionalista katalanak baztertu egin dira sistema demokratikoaren euskarritzat erabili den itun politikotik, nahiz eta abertzaleok 1978ko testua ez onartu, testu horrek autogobernuko errebindikazioak eta foruekiko lotura ez onartzearen ondorioz. Orain, euskarri hori Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren aurkako Itunak osatzen du, horixe baita Espainiako oraingo estatuaren benetako konstituzio materiala.

Hona hemen salatzen ari garen mutazio konstituzionalaren hiru adierazpenak, banan-banan aztertuta.

4.1.- Konstituzioaren itxiera edo amaiera

Lehen esan dugunez, Konstituzio Zuzenbidearen barruko joera nagusien iritzi, Konstituzioa arau irekia da eta, bertan, taldeko bizitzaren funtsezko gaiak soilik uzten dira finkatuta eta eztabaidatik kanpo, hau da, estatuaren antolaketaren oinarriak. Gainerako guztia, neurria handiagoan edo txikiagoan, ondorengo zehaztapenari lotuta gelditzen da, hain zuzen ere, une bakoitzeko gehiengoan eta aniztasun politikoaren nahiz sozialaren eraginezko eztabaidari lotuta. Horrela, traumatikoa ez den aldaketa ahalbidetu eta subjektu politiko desberdinak Konstituziora atxikitzen dira.

Horrek guztiak aurkaritza politikoa eta gutxiengoaren eskubideak konstituzional bihurtzea eragiten du. Halaber, legegilearen lana konstituzio-manuak askatasunez egituratzea edo zehaztea da, konstituzio-arauak eskainitako aukeren eremuan, jende aurrean eta iritzi publikoaren aurrean egindako eztabaidaren bitartez.

Estatuaren barruko bizitzaren arrazionalizatzeko demokratiko hori, azken batean, aniztasuna eta adierazpen- nahiz informazio-askatasuna errespetatzearen arabera da. Bestela, aukeren kritika eta formulazioa ezinezkoa edo, behintzat, oso mugatua da. Edo, aurkako ikuspegitik begiraturik: gizarte garaikideen aniztasun estrukturalako adierazpen politikoak, sozialak eta kulturalak ukatuz edo ezabatuz gero, komunikabideetan euskarrituriko kontrolik gabeko aginte sozial hegemonikoa sortzen da, eta komunikabideok, alde batetik, Gobernuak eta horren alderdiak gauzaturiko ekimen nahiz jarduketa guztiak legitimatzen dituzte, eta bestetik, edozein kritika edo aurkaritzari legitimitatea eta izen ona kentzen diote. Gehiengoaren nahiz horren aliatuen indarren eta oposizioaren indarren arteko desoreka ikaragarria da, eta "egia ofiziala" salatzeko ahalegin guztiak alferrekoak dira.

PPkoa bezalako gobernu batek komunikabiderik eraginkorrenak bere agintearen menpe dituztenean eta horien mezu politikoak modu zuzenean nahiz errazean (eslogan eran) laburbiltzeko gauza denean, iritzi publikoa desagertu eta, horren ordez, "argitaraturiko iritzia" sortzen da. Parlamentuan hitzaldi bikainak egin arren, adierazpen politiko landuak sortu arren edo printzipio nahiz balio demokratikoen aldeko adierazpenak egin arren, ia ezinezkoa da Espainiako Gobernuak bultzatutako estigmatik eta ospe txarretik askatzea.

Informazio publiko eta pribatuko baliabideen pilaketak dakarren aginte-pilaketa ikaragarria da eta horren indarra ezin da geldiarazi. Ez da harrigarria, horrenbestez, hautesleek horren jarraibideei kasurik egiten ez dietenean (esate baterako, 2001eko maiatzean eta oraintsuko foru- nahiz toki-hauteskundeetan gertaturikoa), azalpen ofizialak euskal gizartea oraindik heldugabea dela esatea. Denbora kontua baino ez da, komunikazioaren estrategia egokitzea edo zorroztea baino ez baita gelditzen. Azken batean, beste errealitate bat eraiki eta denok hori benetako errealitatea dela sinestea lortu nahi dute. Une horretara iritsita, birtuala erreala bihurtuko da.

Konstituzionaltasunaren araberakoa ote da iritzi publikoa eta eztabaida askea osatzen duten komunikabideen gaineko aginte-pilaketa itzela edukitzea?

Hori, hain zuzen ere, konstituzionaltasuna oinarritu eta berorri zentzua eman zioten ideien aurkakoa da, agintea mugatzeko eta arrazionalizatzeko ideien aurkakoa.

Irekiera konstituzionalari buruzko azterketara itzulita, agerikoa da itxiera eta immobilismoa nagusitzen direla. Eta hori, berriz, esangura bikoitzean.

Lehenengo eta behin, PPren gobernuak argi eta garbi erakutsi du bere orientazio politikoa erreazionarioa, orain arte aurrerapauso handiak eman diren arloetan, banakako askatasunen ikuspegitik begiratuta, terrorismoaren aurkako borrokaren aitzakiarekin, batez ere zigor- eta espetxe-legerian. Bush presidentea 2001eko irailaren 11ko atentatu izugarrien ondorioz sortutako agintekeriazko joera antiliberalak eta atzerakoiak "legitimatuta" eta indartu egin du orientazio hori. Europak ez du jakin joera hori aurre egiten, eta batzuetan pozik eta beste zenbaitetan etsipenez bereganatu du.

Irakeko gerraren episodio odoltsua eta negargarria gezurrez eta manipulazioz inguraturik egon da, eta horiek oraintxe gelditu dira agerian; Parlamentuko gehiengoaren eta hiritarren gehienen arteko gatazka sortu eta horrek argi eta garbi adierazi du Espainiako gobernuak oraingo presidentea urrun heltzeko prest dagoela. Ez bakarrik askatasunen murriztapenean, baita horri buruzko edozein eztabaidaren ukapen erradikalean ere.

Praktika konstituzionala PPren lerrotze antidemokratikoaren eta lehen aipatutako irekitze konstituzionalerako ideiarekiko aurkakotasunaren adibide argia da. Ez dago inolako eztabaidarik, eta deskalifikazioa eta beste ideia batzuk dituenaren aurkako eraso gogorra nagusitzen dira, eta azken horri ahoa irekitzen ere ez zaio uzten.

Baina hori ez da nazioarteko politikako gai batean eta inmigrazio- edo irakaskuntza-politikan (PSOEren aurka) soilik gertatzen; egoerarik larriena nazionalisten eta, hain zuzen ere, alderdi abertzaleen eta EAEko erakundearen aurkako barne-politikan gertatzen da, autogobernuaren garapenarekin lotutako arlo guztietan. Eremu horretan, gainera, PSOEk erabateko otzantasuna erakutsi du PPren estrategiarekiko. Hau da, kanporantz kritikatu duen guztia onartu egiten du barruan. Zuzenbide Estatuaren printzipio demokratikoen eta bermeen aldarrikapen gogorra, zenbait ekimeni dagokienez (adibidez, Alderdien Legea, espetxe-zaintzako epaitegiak edo zigor osoaren betetzea), PPren eskakizunen baldintzarik gabeko onarpen bihurtu da berehala.

PPk edozein eskabide edo mehatxu egiten duenean, PSOE guztiz makurtzen da, iritzi publikoari bere planteamendua Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren aurkako Ituneko kidearena bezain gogorra (terrorismoaren aurkako borrokan) baina konstituzionalagoa dela adieraziz.

Derrigorturiko adostasun-giro horretan (guztien adostasuna) eztabaida askea baztertuta dago eta, egunetik egunera, indartu egiten da Konstituzioa eta Estatutua (baldin eta inoiz eztabaidaren eta akordioaren bidezko zehaztapen- edo egite-prozesu bati irekita egon badira) dagoeneko agortuta daudela dioen mezua, behintzat Estatuaren lurralde-antolaketa dagokionez. Beste modu batera esateko, terrorismoaren aurkako itun horrek konstituzionaltasunak Konstituzioari esleitutako eginkizuna bereganatu du.

Bera euskarritzen duten dogmetatik (adibidez, abertzaletasunaren berezko gaiztakeria, Apezpiku Batzarrak ere berori modu formalean bereganatzeko asmoa erakutsi baitu, edo autogobernuarekin lotutako errebindikazio guztiak ETari eratzitzea, edo Euzkadiren eta Estatuaren arteko harremanak berriro planteatzea) apur bat banatzen den edo dogma horietara

egokitzen ez den guztia ez-legitimotzat, Konstituzioaren aurkakotzat eta ilegaltzat hartzen da. Horrek guztiak era guztietako errepresaliak hartzeko lurra prestatzen du (alderdien nazioarteko erakundeetatik kanporatzea, konstituzio-organoetako kideen eraketa-prozesutik edo izendapenetik baztertzea, Hitzarmen Ekonomikoaren alde bakarreko luzapena, Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzeko mehatxua, Estatuko Fiskal Nagusiak egindako akusazio kriminala, etab.).

Gobernuko agintariak zehaztutako konstituzio berria, horrenbestez, 1978an onetsitakoaren gainean jarri da, horren aldaketa edo berrikuspen formala egin barik. Euzkadiko erakundeen jarduketaren eta Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren aurkako Ituna onartu edo sinatu ez zuten alderdien ekintza politikoaren konstituzionaltasuna neurtzeko jarraibidea, hain zuzen ere, itun horixe da, PPK emandako interpretazioaren arabera.

Testuinguru horretan, Estatu autonomikoa guztiz garatuta dagoela eta Autonomia Erkidegoek eskumenak berenganatzeko fasea amaituta dagoela zalantzan jartzea erronka onartezina da, eta, horretan oinarrituz, garbitasun eta duintasun demokratikoa zalantzan jartzen dute etengabe.

4.2.- Aginte-pilaketa

Jakina denez, aginte-banaketaren printzipioa konstituzionaltasunaren ikurretari bat izan da beti, banaketa horrek agintea mugatu eta, horrenbestez, askatasuna bermatzen baitu. Horixe da aginte-banaketaren printzipioaren esangura sakona, eta 1789ko Adierazpeneko 16. artikulutik ere horixe ondorioztatzen da. Beraz, ez da agortzen konstituzio-organoei ahalmenak eta eginkizunak eratzikitzearen ondoriozko lana banatzeko formula batean, eta gainera, ez da modu zurrunean interpretatu behar, Gobernuaren eta Gorteen arteko harreman estua eta erraza ez ekiditeko. Alde batetik, sistema parlamentario baten ezaugarria azken horixe delako. Bestetik, bereizte eta banaketa organiko hutsa alderdi politikoen ekintzaren bidez ñabartuta eta zehaztuta gelditu delako, eta benetako bereiztea edo banaketa ez da Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko banaketa organiko hutsa, Gobernuaren barruko gehiengoaren eta aurkaritza politikoaren arteko banaketa funtzionala edo politikoa baizik.

Aginte-banaketaren printzipioa, hala eta guztiz ere, Konstituzionaltasunaren jatorrietara itzultzen gaituen enuntziatu oso simple baten azpian dago: aginteak agintea bermatu behar du; Konstituzioaren aldetik onargarria izateko, agintea mugatua izan behar da, askatasuna mehatxupean ez gelditzeko, eta horrek eragin zuzena dauka aginte Legegilearen eta Betearazlearen arteko erlazioetan, aginte Judizialari eta Konstituzio Auzitegiari dagokionez.

Lehen esan dugunez, Espainiako 1978ko Konstituzioak formalki errespetatu egiten du aginte-banaketaren printzipioa eta berori betearazteko tresnak ditu. Hala ere, horrek azken urteotan izandako garapen praktikoari erreparatuta ateratzen den ondorioa ez da positiboa, Gobernua eta, batez ere, bertako alderdia Ganbarei eta, hauxe da larriena, Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiari nahiz Konstituzio Auzitegiari nagusitzen zaiela ikusten delako. Estatuko Fiskal Nagusiari eta Herriaren Defendatzaileari buruz ere beste horrenbeste esan daiteke.

Legebiltzarrak Auzitegi Goreneko Sala Bereziak Batasunaren ilegalizazioari buruz emandako Epaia betetzeari dagokionez gertaturikoek argi eta garbi uzten dute agintea batuta eta eginkizunak koordinatuta daudela azken urteotan, PPren gobernuaren eraginez, PSOEn eta epaile batzuen laguntzarekin. Gertaera horietan guztietan, berriz, lehen aipatu diren Estatutuko goi-organoen esku-hartzea etengabea eta koherentea izaten ari da. Laburbiltzeko, jarduketa konbinatuen segida ondoren adierazitakoa da:

- 1.- Espainiako gobernuak, gehiengo absolutuan oinarrituz eta PSOEn laguntzarekin (derrigorturiko laguntza), Alderdi Politikoen Lege Organikoaren testua eman zien Gorteei.
- 2.- Espainiako gobernuak (Kongresuak erabaki ondoren) eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak Batasuna legez kanpo uzteko prozedura hasi zuten.
- 3.- Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiak (PPren eta PSOEn artean aukeratuta eta ordura arte bere diziplina apurtu barik edukita, kasuan kasuko kideak aukeratzen zituzten alderdiei zegokienez) proiektuaren aldeko txostena emanda zeukan.
- 4.- Konstituzio Auzitegiak, alderdi nagusietatik hurbileko epaileek edukita (Espainiako gobernuak, Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiak, Kongresuak eta Senatuak aukeraturiko epaileak), interpretaziozko epai lotsagarri baten bitartez (euskarri sendoko bi ezespren zeudelarik), ukatu egin zuen Eusko Jaurlaritzak Lege horren aurka jarritako inkonstituzionaltasun-errekurtsoa.
- 5.- Handik egun gutxi batzuetara, Auzitegi Goreneko Sala Bereziak (Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiko Presidentea bertako burua eta epaiaren txostengilea izanik) Batasuna legez kanpo uztea erabaki zuen, desegindako alderdiaren ordezkioak izan zitezkeen ezker abertzaleko hauteskunde-kandidaturak berehala aztertu ahal izateko.
- 6.- Ebazpen batean, Sala Berezi horrek ezeztatu egin zituen aurkezturiko kandidaturarik gehienak, Estatuko abokatuak eskatuta.
- 7.- Gero, Konstituzio Auzitegiak ukatu egin zituen Gorenaren erabakiaren aurka aurkezturiko babes-errekurtsorik gehienak.
- 8.- Apur bat geroago, Sala Bereziak aldatu egin zuen Batasuna legez kanpo uzteko Epaia, eta horren ondorioak ABGSA deritzonak Legebiltzarrean duen Talde Parlamentariora hedatu zituen.
- 9.- Horrek bere bortxaezintasuna eta autonomia alegatu ondoren, aginte-banaketaren printzipioa aplikatuz, eta Estatuko Fiskal Nagusiak 2002ko azaroan emandako txostenaren arabera, Estatuko Fiskal Nagusiak akusazioa egin eta kereila kriminala aurkeztu zuen Mahaiko presidentearen eta bi kideren aurka.
- 10.- Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Sala Zibileko eta Penaleko kideen artean izandako berdinketa ebazteko eraturiko Desadostasun Salak kereilatuen prozesamendua bermatzen ez zuela ikusita, Estatuko Fiskal Nagusiak Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiaren eta bertako presidentearen laguntza eskatu zuen, aurkako emaitza lortzeko.
- 11.- Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiak prentsari jakinarazitakoaren eta iragarritakoaren arabera, bertako presidentearen aldeko botoarekin (Mahaiko kideen prozesamendua eskatu zuen Salako presidentea), aldatu egin zuen Desadostasun Salaren osaketa.

Gertaeren laburpen hori irakurrita, argi eta garbi ikusten da Espainiako gobernuaren nahiz horren alderdiaren, Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiaren zein bertan instalaturiko epaile-elkarteen eta Konstituzio Auzitegiaren nahiz Auzitegi Gorenaren arteko lankidetzeta estua dagoela.

Sumarioan azaldutako egoeraren eskandalua ez da mugatzen, hala eta guztiz ere, aginte-banaketaren printzipioa urratzera, batzuek Zuzenbide Estatuari buruzko aldarrikapen handiak eginez urratze hori ezkututzen saiatu arren. Larriena, izan ere, hori ETAren eta horren adar

guztien aurka borrokatzeko interes nagusian oinarrituz justifikatzen saiatzea da. Aditzera eman nahi dute urratze hori txikiagoa dela berriro egingo ez den indargabetze berezia izateagatik (joko demokratikoaren arauen indargabetzea). Baina hori ez da onargarria: duintasun demokratikoa galdu eta Legea nahiz Zuzenbidea beti betetzeari uko eginez gero, gainerakoei euren traizionatu dituzten printzipioekiko eta balioekiko errespetua eskatzeko legitimitatea galtzen da.

Aginteak pilatzea edo nahastea, horrenbestez, Konstituzio berriaren elementu estrukturala da. Arazoa ez da Espainiako gobernu justiziaren ekintza nolabait presionatzen saiatzea. Hori, neurri handiagoan edo txikiagoan, leku guztietan gertatzen da; benetan larria, berriro diogu, oraingo Espainian ekintza hori Espainiako gobernuaren zerbitzuan egotea da, eta Auzitegi Goreneko Sala Berezia bezalako auzitegi batek Eusko Legebiltzarraren aurkako gurutzada hastea, Legebiltzarraren bortxaezintasuna eta autonomia mesprezaturik; horrela, erakunde horri dagokionez, aginte-banaketa ezabatzeke mehatxua egin da.

Eraso hori ezinezkoa izango litzateke Espainiako gobernuaren eta komunikabideen estaldurarik gabe, horiek txalotu eta sustatu egiten baitute, kausa santua eta justua bailitzan.

4.3.- Zuzenbidea Estatuaren zerbitzurako tresna

Greziako klasikoek ziotenez, legeen morroi bihurtu beharra dago, benetako pertsona askeak izateko, baldin eta lege horiek pertsona guztiek onartu eta, horrela, jasotzaileek legeok euren borondatearen adierazpenzat hartzen badituzte. Zuzenbide Estatuaren errebindikazioak printzipio hori berreskuratzen du, agintearen erabilera aurretiaz eta demokratikoki ezarritako arau batzuetara lotu beharrekotzat, aginte legegileak legitimaturik dagoen eta herriaren borondatearen gorengo adierazpena den funtsezko testu batean.

Arau juridikoak eurok onesteko eskumena eratzikita duten organoetatik sortzea ez da nahikoa, ezta arauok sortzeko prozedura jarraitzea eta horretan interesatuek eta taldeko interesen ordezkariak parte hartzea ere. Bi baldintza horiek oso garrantzitsuak dira, baina funtsezkoa arauok Konstituzioan jasotako bizikidetzaren oinarriak errespetatzea da. Bestela, Konstituzioak ez du arauok baliorik edukiko; eduki politiko oso handia eduki dezake, baina ez da benetako arau konstituzionala izango. Azken batean, ez du organo horien agintea mugatuko, Parlamentutik hasita. Legea printzipio eta balio konstituzionalak kontuan hartu barik egitea subiranotasunaren "zeinua" da, eta berori onesten duena, edo hobeto esateko, bere edukia ezartzeko gaitasuna duena, subiranoa izango da *de facto*.

Konstituzio Auzitegia arrisku horren prebentziorako dago. Horren eginkizun nagusia, hain zuzen ere, eraturiko aginteek eta, batez ere, Parlamentuak (Gorteak) Konstituzioarekiko leialtasuna dutela bermatzea da. Hori epaileek eta auzitegiek ere bermatu behar dute, eta, eduki ere, aplikatu beharreko legeen konstituzionaltasuna zalantzan jartzeko gaitasuna dute.

Hala eta guztiz ere, erakunde horiek Parlamentuaren gehiengoaren borondatea onartu eta, Alderdi Politikoen Lege Organikoaren kasuan bezala, Espainiako gobernu presidentek sustaturiko erabaki politiko-legegileak abalatzten badituzte, edo, Auzitegi Goreneko Sala Bereziaren kasuan bezala, aginte-banaketa ahazteko prest badaude (Espainiako gobernuarekiko menpekotasuna onartuz eta euskal hiritarrok ordezkatzeko gaituen organoaren aurka joz), gobernatzen duen gehiengoak inolako lotura juridikorik ez edukitzea ari dira bermatzen.

Legearen formarekin hartzen dituzten erabakiak, edo Konstituzioarekiko bateragarritzat hartzen diren guztiak, derrigorrez onartu beharrekoak izango dira, eta horren aurka egiten dutenak euren Zuzenbide Estatu bereziaren aurkakotzat hartuko dituzte.

